



## HOGEI URTE ARRASATEARREI ZARZUELA ESKAINTZEN

Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak azken 20 urte hauetan eskaini dituen hamazortzi zarzuelen pasarte aukeratuak erakutsiko ditu asteburuan, 'Antología de la zarzuela' lanean / 14

*Antología de la zarzuela* antzezlanean agertokian izango den lantaldea, eguaztenean, Amaia antzokian. XABIER URZELAI



Mila Elorza, martitzenean, Angiozar erreka ondoan. JOKIN BEREZIARTUA

### Angiozar erreka "urte luzeetarako" zikin, AHTaren lanen ondorioz

Angiozarko alkate Mila Elorzak dio trenbideko obregatik zaratak eta kutsadurak jasan behar dituztela etengabe / 20

**Hitanoaren erabilera Debagoieneran "eskasa" da, Badihardugu elkartearen arabera / 2**

**Oñatiko Osaba Kimu taldeak emango dio hasiera Burrunda Faktoriaren egitarau berriari / 30**



Pantailekiko mirespenari irtenbide bila

David Azurza konpositoreari elkarrizketa

**Dolu-prozesuetan, "bakardadean eta gaixotasunean" laguntzeko elkarteak sortu dute Arrasaten / 10**

#### SINADURAK



MIKEL ZUMALDE / 8



JOANES PLAZAOLA / 21



OIANA SANCHEZ / 11



IZAR ODRIOZOLA / 40

SKODA ENYAQ IV

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SKODA

# Hitanoaren egoera, oro har, "eskasa" da bailaran

Hitanoaren egoera zein den ikusteko egin du ikerketa Badihardugu elkarteak, Hikagin egitasmoaren barruan. Euskal Herriko 287 herri hartu dute parte eta, denera, 4.215 erantzun jaso dituzte; horietatik 431 Debagoienekoak dira

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA Badihardugu elkarteak hitanoari buruzko inkesta egin du Euskal Herrian, Hikagin egitasmoaren barruan, eta ondorio orokorrak plazaratu ditu. "Erantzunak aztertuta, orokorrean, ezin da esan hikaren egoera ona denik", dio Idoia Etxeberriak, Badiharduguko kide oñatiarrak. %55,6 dira esaten dutenak hitanoaren egoera "eskasa" edo "oso txarra" dela; egoera ona dela esaten dutenak %11 dira; eta egoera nahiko ona dela baina, batez ere, mutilen artean erabiltzen dela dio %33k: "Ikusten da nokaren egoera okerragoa dela tokarena baino. %5ek uste dute euren herrian noka egoera ona dagoela, eta, tokari buruz galdetuz gero, %24k ikusten dute egoera onean. Gizonezkoek gehiago hitz egiten dute hitanoa emakumeek baino".

## Debagoieneko datuak

Datuok eskualdera ekarrita, herri bakar batean ere ez dute

esan egoera ona denik: "Debagoieneko egoera onena hitanoari begira Antzuolan eta Oñatin dago, erantzunen arabera. Noka hobeto toka baino. Hika bizirik dago, baina, batez ere, mutilen artean". Beste herri guztietan esaten dute hitanoaren egoera eskasa dela. "Gutxi erabiltzen dela; batez ere, adinekoen artean erabiltzen dela", gehitu du. Erabilerari dagokionez, Antzuolan "sarri" erabiltzen da; gainerakoetan, "batzuetan".

## Ondorio orokorrak

Hitanoak egoera onena "arnasguneetan" duela dio Etxeberriak: "Uema osatzen duten udalherri eta udalherri euskaldun gehienetatik jaso ditugu erantzunak. Egoera onena ere han dago".

Bestalde, azpimarratu du hikaren kontrako iruzkin negatiboak "gutxi" izan direla -%29-: "Datu positiboa da hori, hitanoa badelako gai bat aurreiritzi asko dituen azken hamarkadetan:

baserritarren hizkera dela, ez dela fina, ez dela emakumeendako modukoa... Badirudi denborarekin geroz eta ikuspegi positiboagoa dagoela".

"Hitanoaren egoera zein den eta ze interes dagoen jakitea interesgarria da. Debagoienean interesa dago herri guztietan hitanoa bultzatzeko, eta bideak irekitzen ari direla. Nik balorazio positiboa egiten dut. Alde negatiboa, egoera eskasa dela. Ikustea Euskal Herrian zein den egoera interesgarria da kontzientziatzeko. Oso leku gutxitan esaten dute egoera ona dela. Oso herri euskaldunetan, herri txikietan, esaten da. Hamaika herrian esan dute egoera ona dela", dio.

## ANTZUOLAN "SARRI" ERABILTZEN DA HITANO; BAILARAKO BESTE HERRIETAN, "BATZUETAN"

## Ateak zabalduko ditu Lasa jatetxeak, ospakizunetarako

Donostiako Bokado Taldeak hartu du Bergarako Lasa jatetxea; hasieran batean, ospakizunetarako soilik

### I.A.A. BERGARA

Bergarako Lasa jatetxeak ateak zabalduko ditu, Bokado taldeak hartu baitu jatetxearen ardura. Hasiera batean, behintzat, ospakizunetarako eta ekitaldiatarako erabiliko dute soilik. 2021ean hartu zuen erretiroa Koldo Lasa sukaldariak, eta ordutik itxita egon da Bergarako jatetxe ezaguna, eta gustura agertu da Lasa berrirekitzearekin: "Oso ondo iruditzen zait erabilera hori ematea. Instalazioa eginda dago, lorategi ederra dauka... Erabiltzea bakarrik falta da".



Lasa jatetxea. GOIENA

Adierazi duenez, alokairuaren tratua joan den astean itxi zuten: "Tratuan genbiltzan. Ez zuten erabakitzen, baina, azkenean, hartu dute erabakia".

Bokado taldea Donostiako catering enpresa bat da, eta hitz onak baino ez ditu izan enpresarentzat: "Bokado taldea gauzak ondo egiten duen taldea da. Catering zerbitzua eskaintzen dute; oso ona, gainera. Espero dut jendeak horretaz gozatzea. Eraikina izugarria da, ezberdina. Eta espero dut jendea animatzea. Gainera, hemen inguruan ez dago ezkontzetarako halako jatetxe handirik. Ezkontza asko egiten badituzte, izen bat eman-go diote auzoari eta herriari".

Adierazi du ospakizunetarako erreserbak egiteko Bokado taldearekin jarri beharko dela harremanetan.



## Ikerketaren testuingurua

4.214 erantzun jaso dituzte Euskal Herriko 287 herritan. Debagoieneko herri guztietan erantzun dira inkestak; denera, 431: Arrasaten, 114; Bergaran, 94; Oñatin, 84; Eskoriatzan, 52; Aretxabaletan, 31; Aramaion, 25; Antzuolan, hogeitabi; Elgetan, zortzi; eta Gatzagan, hiru. Etxeberriak adierazi du esperotakoak baino erantzun gehiago jaso dituztela. Inkestaren asmo nagusia zen hika bizirik dagoen herrietan egoera zein den eta zelakoa den jakitea. Horretarako, 28 galdera prestatu zituzten, bi ataletan banatuta: lehen zatian, norberaren herrian hitanoaren egoera zein den ikusi nahi izan dute; bigarrean,

aldiz, hitano hitzaren esperientzia pertsonala -hika erabiltzaileek erantzun dute-.

## Hika bultzatzeko egitasmoak

Horrekin batera, nabaritu du zenbait herritan badagoela gogoa hika berreskuratzeko, eta Debagoienean azken hilabeteetan egin diren ekimenak ekarri ditu gogora: I. Hika Topaketa; hika ikastaroak; *Appa hi!*, Oñatiko, Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Gatzagako hitanoa ikasteko; *Eingoxonau* eta *Oñatiko hika poltsikaran*.

Era berean, aurreratu du 2024an aterako dutela Arrasateko hika ikasteko liburuxka, eta Elgetan badagoela interesa *Appa hi!* aplikazioa sortzeko.

## Ekintzak, Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren bueltan

Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatuko dute Garaia Parke Teknologikoan otsailaren 9an

### I.A.A. ARRASATE

Euskal Autonomia Erkidegoko DBHko, batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleei eta irakasleei zuzendutako Neska eta Emakume Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatuko dute otsailaren 9an Garaia Parke Teknologikoak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak (MGEP). 10:00etan hasita, ordubeteko saioa izango da eta hiru atal izango ditu: sarreraren ostean, MGEPren eskutik, *Genero ikuspegia proiektuetan nola txertatu* hitzaldia egingo dute

Arantxa Gonzalez de Herediak eta Arrate Alonsok; horren ostean, ikasleei zuzendutako erronka azalduko dute; azkenik, hainbat enpresaren kasu praktikoak ezagutuko dituzte ikasleek.

Bestalde, MUko laborategietara bisita gidatuak antolatuko dituzte otsailaren 12ko asterako, hango egunerokotasuna ikeritzaileen eta irakasleen bidez ezagutzeko. Otsailaren 14an Arrasateko Iturripe Campusa ezagutu ahal izango da; izena eman behar da. Informazio osoa, [www.ptgaraia.eus](http://www.ptgaraia.eus) atarian.

# Udalbiltzaren batzar orokorra bihar Bergaran

25 urte beteko ditu irailean Euskal Herriko Udalen Partzuergoak, eta bihar, zazpi udal gehituko zaizkie orain arteko 77ei. Bergara Udalbiltzan sartzeko proposamena osoko bilkurara eramateko konpromisoa hartuko du Bergarako alkate Gorka Artolak

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Euskal Herriko Udalen Partzuergoak bihar, 12:00etan, Bergarako Seminarixoan egingo du lau urtean behin egiten duen batzar orokorra. 77 udalek osatzen dute partzuergoa, baina bihar, Dima, Berrobi, Larraun, Izurtza, Markina-Xemein, Mendaro eta Plentzia udalerriak Udalbiltzako kide izatera pasako dira eta 84 kide izatera pasako da.

Era berean, adierazi dute zenbait herri badutela 2024an Udalbiltzan sartzeko asmoa. Bergarak, esaterako; izan ere, Gorka Artolak Seminarixoan egingo duen hitzartzean, Bergara Udalbiltzan gehitzeko propo-



Udalbiltzako batzorde eragilearen aurkezpena joan den urrian Usurbilen. UDALBILTZA

samena osoko bilkurara eramateko konpromisoa hartuko du.

## Batzarra, bitan banatuta

Irailean Udalbiltzak 25 urte beteko dituzenez, ekitaldi izaera izango du batzarrak. Udalbiltzako lehendakari Haritz Alberdik aurreratu du batzarrak bi zati izango dituela. 25. urte beteko dituzenez, aitortza egingo zaie 25 urteko ibilbideari eta ibilbide horretan parte izan diren hautetsi, lehendakari, zuzendari eta langile guztiei. "Beste parte bat izango da Udalbiltzak herri honi datozen hilabete eta urteetan egingo dion eskaintza publiko egitea", dio Alberdik. Logoa ere berrituko dutela aurreratu du, eta zapatuan aurkeztuko dituzte irudiak dituen berritasunak.

## Datozen erronkak

Udalbiltza 1999ko irailaren 18an sortu zuten, Bilbon, eta bost printzipio oinarrian ekin zioten bideari: EH nazio bat dela aldarrikatzea eta haren egituraketa politikoa eraikitzea; nazio eraikitzea; herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea,

eta nazioartean adieraztea EH nazio berezkoa dela eta hala izan nahi duela. "Udalbiltzaren printzipioetako bat bazen nazio eraikitzeari ekarpena egitea, eta hor burujabetzak bere lekua izan du 1999tik". Azken urteetan ikusi dute Partzuergoko geroz eta udal gehiago daudela egitasmo eraldatzaile eta berritzaileak aurrera eramaten: "Udalbiltzan erabaki zen egitasmo horietan sakondu behar zela".

Horregatik, nabarmendu du bi funtziori, aholkularitzari eta "eskalatzeari", eutsiko dietela. "Aholkularitzan udalen zerbitzura egoten jarraituko dugu. Bidea urratzen lagunduko diegu. Aholkularitza sektoriala eta estrategikoa", azaldu du.

Bigarrena da herrietan egiten ari diren egitasmo horiek beste maila batera eramatea, EH mailan kokatzea: "Herrietan energia komunitateak osatzen ari dira; asko, egituraketa publiko-komunitarioetan oinarrituta. Udalbiltzaren erronketako bat izango da, baina egin diren lan-bilera eta foroetan horrela aditzera eman zaigu. Egitura horiek saretuko ditugu".

**arizmendi**  
ikastola

**BISITA**  
**PERTSONALIZATUAK**  
*ikasturte osoan zehar*

Hartu zure txanda hemen!



[www.arizmendi.eus/guikastola](http://www.arizmendi.eus/guikastola)

943 77 20 25

**Aurrematrikula:**  
Otsailaren 7tik 23ra

arizmendi



Iñigo Barrena DEBAGOIENA

Zazpi hilabete dira azken udal eta foru hauteskundeen ondotik agintaldi berriak martxan direla. Maddalen Iriarte (Donostia, 1963) EH Bilduren Gipuzkoako bozeramailea elkarrizketatu du Goienak platoan, orain artekoen, momentuko gaien eta aurrera begirako errepasoa egiteko. **Aurrekontuak onartu gabe hasi du 2024a Foru Aldundiak; ze balorazio egiten duzue horren inguruan?**

Gobernu baten ardura da aurrekontuak aurrera ateratzea. Gobernu honek Gipuzkoari egonkortasuna emango ziola esan zuen, baina ez da ohartu zein den egoera berria. PSE-EErekin ez dio gehiengorako ematen, eta gobernantza ezberdin baten beharra dago. Horren ondorioa da herritarrentzat iraungita dauden aurrekontu batzuk indarrean egotea, ez duelako jakin gehiengoak zabaltzen eta gehiengo berriak osatzen.

**EH Bilduk ez du aurrekontu proposamena babestu, eskatzen zenuen egiturazko neurri batzuk adosteari Foru Gobernuak muzin egin diola argudiatuta...**

Era honetan dagoen gobernu batek arduraz jardun behar du, konturatu behar du gehiengo behar duela. Nafarroan, esaterako, aurrez izan dugu aurrekontuetan esku hartzeko aukera, eta hori ez du eskaini Gipuzkoako Diputazioak; orduan, itxitako aurrekontu bat jaso dugu. Guretzat aurrekontua gestiorako erreminta bat baino gehiago da, Gipuzkoan izango ditugun erroken bidea irekitzen hasteko tresna, eta hori ez du ulertu Foru Aldundiak.

**Bereziki, zaintzan jarri duzue arreta; zein da egiten duzuen planteamendua?**

Gai zentrala dela uste dugu, bai Gipuzkoan, bai Euskal Herrian. Guztiok ikusi dugu Gipuzkoako gizartea nola ari zen zahartzen, baina ez zaio aurre hartu egoera horri. Zaintza guztion esku-bide bat da, eta, alde horretatik, badira arlo batzuk zaintza komunitario baterantz bidea egiten lagundu dezaketenak.

Badakigu gauden tokitik eta aurrekontuen marko batetik ezin daitekeela bide hori egin, baina neurri estruktural batzuk hartzea nahi genuen. Batetik, zaintzan diharduten pertsonen lan baldintza duinak jartzea; bestetik, dependentsia instituzio publikoetatik egitea, ez EH

# "Zaintzaren gaia gai zentrala dela uste dugu"

MADDALEN IRIARTE EH BILDUREN GIPUZKOAKO BOZERAMAILEA

Urte erdi igaro da udal eta foru hauteskundeak egin zirela; Goienak elkarrizketa egin dio, eta orain arte gertatutakoaren eta datorrenaren errepasoa egin du



Maddalen Iriarte, Goiena telebistako platoan egindako elkarrizketan. XABIER URTZELAI

Bilduren kapritzoak, legeak horrela agintzen duelako; eta, azkenik, zaintza pribatizatzeak eta irabazi asmoarekin egiteko arriskua dagoela ikusten dugu, eta epe bat harri genuen bide honetan igarotzeko, guretzako horiek ezinbestekoak direlako. **Berdintasunean bizitzeko, parekidetasuna eraikitzeak, aldarrikatzen dituzuen gobernantza feministak sustatzeko... nola eragiteko asmoa duzue?**

Arlo guztietan feminismotik bultzada emanez. Guk ikusten dugu berdintasunean aurrera egiteko, erroten aldatu behar ditugula gaur egun dauden estruktura batzuk. Hori ez dugu berehalakoan egingo, baina bizitzako arlo guztietan feminismotik eta berdintasunetik eragitea nahi dugu. Gobernantza modu feministak behar ditugu, boterea banatzen jakin, empatiatik, sen komunitariotik, gure gizartean errota dauden modu batzuetan eraldatu behar dugu. **Garraio publikoari dagokionez, iaz izandako abantaila berberak izango dituzte erabiltzaileek; beste neurri batzuk hartu beharko lirakeela uste duzue?**

**"BERDINTASUNEAN AURRERA EGITEKO, ERROTIK ALDATU BEHAR DIRA EGITURA BATZUK"**

Hemen hausnarketa sakona egin beharra dago. Jendea garraio publikoa eskainiz gero, erabili egiten du, eta gure etorkizuna da garraio publikoa, auto gutxiago egongo direlako; baina kalitatezko garraio publikoa eskaintzen ez badugu, jendeak ez du horren aldeko hauturik egingo. Hori hobetzeko zer egin behar den pentsatu behar da, eta guk askotan esan dugu bidesarietako diruaren zati bat garraio publiko hobetzera bideratu beharko litzatekeela, etorkizunean hori erabiltzeko hautua errazagoa izan dadin.

**Garraio publikoan bada zer hobetua Debagoiengan; beste ze premia nagusi ikusten duzue bailaran?**

Hemen, Euskal Herri osoan bezala, eztabaida sakonak ditugu, baina, adibidez, D2030 egitasmoa oso egitasmo sendoa iruditzen zait. Hor gobernantza modu berri bat erakusten da, eta gaur egun ditugun erroken ezingo dute erantzun egokirik jaso, erakunde baten barneko lau pareten artean hartzen badira. Horregatik, oso garrantzitsua izango da herritarrak zentrora ekartzea eta prozesu parta hartzaile eta deliberatiboak egitea. Paperak gauza asko jasotzen ditu, baina, herritarrak konprometituta ez badaude, gauza batzuk aurrera eramatea ez da posible izango. Alde horretatik, Debagoiena betidanik eskualde eredugarria izan dela eta dela uste dut.

**Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako Pello Otxandiano izango da EH Bilduren hautagaia; zu zeu izan zinen 2020an. Zer esango zenuke hari buruz?**

Lehendakaria izango dela. Ohera da orain arte nik izan dudana lekukoa hari ematea. Harekin lan egiteko parada izan dut eta zazpi lurralde dituen herri gisara herri hau maite du. Herri hau aurrera ateratzeko pasioa du, eta, gainera, jakintza tekniko du herri honek dituen erroken aurre egiteko.

**Zein erroken aurre egin beharko die Legebiltzar berriak?**

Gure osasun zerbitzuak azken urteetan izan duen gainbeherak irakurketa berri bat egitea eskatzen du, datozen urteetan gizarteari nola erantzun jakiteko. Era berean, zaintza, politika industrial, erroka energetikoa, klimatikoa eta euskara bera ere lehen lerroko errokak dira.



Pieza guztiak konpondu eta ordezkatzeko dituzte Bertakok, igogailuaren bizitza erabilgarria iritsi arte. BERTAKO

# Bertako: igogailuetan gertukoa eta berezia

Igogailuen instalazio- eta mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan. Duela 9 urtetik ari da zeregin horretan, enpresa moduan. Dena den, lantaldeak aurretik dihardu sektorean. Esperientzia handiko taldea da

Bertakok 2.700 igogailu baino gehiagoren mantentze-lanak kudeatzen ditu Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Gehienbat, igogailu marka guztietako mantentze-lanak egiten ditu Bertakok. Eta pieza guztiak konpondu edo ordezkatzeko dituzte, igogailuaren bizitza erabilgarria amaitu arte.

## Zerbitzu gardena

"Berezia da gure enpresa, sektoreko beste enpresa batzuekiko ezberdin", dio Bertakoko Iban Sanchezek, Bertako enpresako zuzendari komertzialak. "Bezeroari bideratutako enpresa da Bertako. Zerbitzu gardena eskaintzen dio jardueraren erdigunean dagoen bezeroari", dio; gardentasuna eskaini nahi du, "berez opakoa" den igogailuen sektorean. Horregatik, sorreran, sektorea ondo aztertu ostean, gustuko ez zituztenak albo ateratu eta zerbitzuak beti bezeroari, herritarrei, etxebizitza komunitateei, eskaintzen hasi ziren.

## 24 orduko benetako zerbitzua

Marka askotariko igogailuen mantentze-lanak -batik bat-; igogailuen

instalazioa; edota zaharkituta dauden igogailuen ordez berriak jartzea. Horiek dira Bertakok egiten dituen lanak eta eskaintzen dituen zerbitzuak. Eta hori guztia, ustekabeko konponketa lanei uneoroko erantzuna emanda.

Bertakok bezeroekin -etxebizitza komunitateekin- sinatzen dituen kontratuetan, "24 orduko benetako mantentze-zerbitzuak" eskaintzen ditu, urteko 365 egunetan. "Traunkortasun klausulak edota bestelako zigorklausulak ezarri barik". Hau ez da ohikoa sektorean, Iban Sanchezek ustez. "Beste enpresa batzuek 24 orduko mantentze-zerbitzuak eskaini bai, baina, gero, benetan ez dute 24 orduetan zerbitzu ematen. Guk benetako 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu; izan asteburu edo ordu txiki". Horregatik dira Bertakoren bereizgarriak "gertutasuna, gardentasuna eta bezeroarekiko konpromisoa".

Sorreran enpresa txiki izatetik bere jardun eremuan enpresa esanguratsua izatera pasa da Bertako. 40 langilez osatutako lantaldea osatzen du Bertakok.

## Prezioaren garrantzia

Prezioa da Bertakoren beste bereizgarri bat. Enpresa lehiakorra da, alde horretatik ere. Esaterako, orotariko zerbitzua eskaintzen duen enpresa batek BEZik gabe "150 eta 250 euro bitartean kobra zezakoen hileko gu hasi ginenean, duela 9 urte. Eta gu hasi ginen zerbitzu hori 100-115 eurotan eskaintzen. Eta gaurda eguna galtzen ditugun bezero gutxiak eskaintzen dutena zerbitzu hori 65-75 eurotan". Sanchezek dio kompetentziako enpresek leporatu ziotela sorreran prezioak "botatzea" eta gaur dela eguna Bertakoren aurretik eskaintzen zuten prezioaren erdian dabilzana.

## Euskarari garrantzia

Enpresa euskalduna eta euskaltzalea da Bertako. Ahalik eta zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditu. "Edozelan ere, onartzen dugu gure teknikari guztiak ez direla euskal hiztunak; batzuk badira; beste batzuk ez. Baina euskararekin konprometituta gaude eta ahal dugun zerbitzu gehienak euskaraz eskaintzen ditugu. Adibide bat jartzearen, Tuteran aurrekontuak



Igogailuen mantentze-lanak egiten ditu Bertako enpresak. BERTAKO

## Aplikazioa, bezeroen zerbitzura

Gaur egungo teknologiak darabiltza Bertako enpresak, eskaintzen duen zerbitzua eraginkorra izan dadin.

Bertakok eskuiko telefonoetan erabiltzeko aplikazio bat ere badu. Honako hau ere bezeroei begira. Bezeroaren eta Bertakoren arteko harremanetarako ez ezik, Bertakoko bezeroak beste gertuko gremio batzuekin harremanetan jartzeko ere balio du aplikazioak. "Esaterako, etxebizitzaren komunitateko arduradunak arazo bat baldin badauka eta igeltsero, argiketari, arotz, iturgin edo bestelako gremioren baten premia badu, aplikazioak ahalbidetzen du haren inguruan jarduten duten gremio horiekin harremanetan jartzea", dio Sanchezek.



Bertako aplikazioa. BERTAKO

## Lehetasunezko tratua

Hartara, bezeroei zerbitzu ona eskaintzeaz gain, tokiko negozioei ere laguntzen die. Sanchezek esanetan, "larrialdi egoeretan dauden eta momentu batean konponbide azkarra behar duten herritarrei zerbitzua eskaintzen zaie, baina ez larrialdi prezioen truke".

Lehetasunezko tratua eskaintzen diete gremioek herritarrei, Bertakoren aplikazio horren bidez.

eta fakturak euskaraz eta gaztelaniaz egiten ditugu". Beste konpromiso batzuk ere baditu euskararekiko: Korrikaren babeste izatea edota euskarazko tokiko hedabideetan publizitatea egitea.

## Gizartearekiko erantzukizuna

Euskararekiko ez ezik, bertako eta gertuko beste jarduerak batzuekiko ere badu erantzukizuna Bertakok, kirolaren edo kulturaren alorretan, esaterako. Tokikom, Arrasate Musikal, Hondarribia Arraun Taldea, Gaztedi Rugby edota Iker Vicente babesten ditu, besteak beste. Horretaz gain, emakumearen parte hartzea kirolean eta kirol egokituaren sustatzen duten erakundeak ere babesten ditu, diruz lagunduz. "Halako erakundeetan atzean dauden pertsonak, jeneralean, izan ohi dira pertsona inplikatuak, diru aldetik ez horren aberats direnak, nahiz eta beste

aberastasun batzuk izan. Haien ondoan egotea gustuko dugu eta halako proiektuak diruz laguntzen ditugu", dio Iban Sanchezek.

Bertakoren zuzendari komertzialaren ustez, gainera, erantzukizun horrek Bertakoren marka indartzen laguntzen du. "Bertakoko bezeroa gure bezero izateaz harro egon dadila nahi dugu; zerbitzu ona eskaintzeaz gain eta haren igogailua matxuratzen den bakoitzean azkar erantzuten duen enpresa izateaz gain, beste baliu batzuk, harekin bat datozenak, dituen enpresa garela ikustea".

## INFORMAZIO GEHIAGORAKO

- Araba 945 712 822
  - Bizkaia 946 523 935
  - Gipuzkoa 943 903 450
  - Nafarroa 848 870 917
- [www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)

## Agurne Barruso da Ikastolen Elkarteko zuzendari berria

"Erantzukizun handiko kargua" dela dio Barrusok, baina "ilusioz" hartu duela ere aitortu du bergararrak

**Julen Murua Mesonero** BERGARA  
Ikastolen Elkarteko Artekari Kontseiluak 2023ko irailean izendatu zuen zuzendari Agurne Barruso (Bergara, 1969), baina udazkenean zehar trantsizioaldian izan dira Jose Luis Sukia

zuzendari ohia eta biak, eta orain hartu du kargua. Gasteizko Armentia ikastolako zuzendaria izan da azkeneko zazpi urteotan.

Bergarako alkate ohiak adierazi du "ilusioz" hartu duela kargua, aitortu arren "erantzukizun handia" ere badela. Hala ere, inguruan "lantalde eta zuzendaritza nahiz artekaritza sendoak" edukitzeak "motibatu" egiten duela esan du. Ikastolen mugimenduari dagokionez, honakoa: "Uneotan mugimendu bizia da ikastolena. Etorkizun handiko proiektua". Eta momentua "interesgarria" dela, Ikastolen Hezkuntza Marko Orokor berriaren hedapena egiten hasi direlako eta Ikastolen VII. Batzarra egingo delako ikasturtearen amaieran.



Oñatiko pentsiodunen 2024ko lehen elkarretaratzea. MIREN ARREGI

## Seigarren urtez, plazetan jarraituko dute pentsiodunek

Sei urteren ostean, aurten ere plazetan izango dira pentsio duinen aldeko aldarrikapena egiten

**J.M.M. DEBAGOIENA**

Astelehenean, hilaren 15ean, bete zituzten sei urte Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren mobilizazioek, eta plazetara irten ziren mugimenduen urteurrena ospatzera.

Astelehenero elkartzen diren toki beretan batu ziren pentsiodunak, 2024ko lehenengo elkarretaratzean, eta "laurogei plaza baino gehiagotan borrokatzea merezi izan duela" adierazi zuten. Horrez gain, "pentsioak murrizteko politikak zenbait arlotan aldatzea" lortu dutela eta "funtsezko aldarrikapenak" oraindik egin gabe daudela ere azaldu zuten. Esandakoez gain, topa egin zuten urtez urte plazetan borrokatzen aritu diren baina dagoeneko ez dauden pertsonengatik.

Lortutakoa eta lortu nahi dutena aintzat hartuta, oraindik indarra dutela azpimarratu dute,

eta, beraz, 2024an ere lanean jarraituko dutela. "Pentsio duinak, bidezkoak eta nahikoak behin betiko bermatzeko adorea eta itxaropena izango dugula ziurtatzen dugu, adinekoek eta pentsiodunek bizi-baldintza duinak izango dituztela bermatzeko".

### Orain arte lortutakoak

Hainbat dira pentsiodunen mugimenduen urte hauetan lortutakoak. Besteak beste, 2013ko Alderdi Popularraren erreformak proposatzen zuen pentsioen %0,25eko igoera hura indargabetzea; pentsiodunak kalera ateratzera bultzatu zuen erabakia, alegia. Baina gehiago ere izan dira: KPIaren igoera pentsioei urtero aplikatzea eta alar-gunen pentsioa asko hobetzea, esate baterako. Etorkizunean, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa lortzea eta genero arrakala gainditzea dira helburu nagusiak.

### Olaso Dorrea Fundazioa, museoen inbentario ofizialean

Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan gehitzen azkena izan da Olaso Dorrea Fundazioa –BBK Fundazioarekin batera–, eta gaur egun 52 museok osatzen dute erregistroa. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak jakinarazi duenez, 1982an sortu zuten Olaso Dorrea Fundazioa, eta, gaur egun, 272 funts ditu inbentarioan.

### Maria Jara ekintzaile eskoriatzarra izendatu dute 'changemaker'

*Forbes* aldizkariaren Espainiako edizioak etorkizun eraldatu eta oparoa lortzeko lanean ari diren 24 pertsona hautatu ditu; haien artean, Maria Jara ekintzaile eskoriatzarra. Smallops ekimenaren sortzaileetako bat da Jara, eta nanoteknologiaren bidez klima-aldaketari aurre egiteko irtenbide berritzaileak lortzea da ekimenaren helburua.




### Gure ikasleen ahotsan



**Izen-abizenak:** Lander Agirregomezkorta Belinchon  
**Herria:** Arrasate  
**Adina:** 21 urte  
**Ikasketak:** Arizmendi Ikastolan DBH eta Batxilergoa.  
**Gradua:** Ingeniaritza Informatikoa  
**Zaletasunak:** Atletismoa, gimnasioa eta mendira joatea.

**"PBL proiektuetan autonomia izaten eta elkarlanean aritzen ikasten duzu"**

Ingeniaritza Informatikoko graduko laugarren mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hori eta zergatik Mondragon Unibertsitatean? Informatika gradua aukeratu nuen betidanik eroso egon naizelako ordenagailuarekin lanean eta jakingura nuelako barrutik nola funtzionatuko zuen. Mondragon Unibertsitatean ari naiz, sartu baino lehen entzun nuen balorazioa positiboa izan zelako eta nire herrian dagoelako.

**Nolakoa izan da orain arte bitzako esperientzia?** Positiboa izan da; egia da lehenengo urteak gogorrak izan zirela, lehen eta bigarren mailak, niretzako gauza berri asko zeudelako. Baina, ondo antolatzen bazara, atera daiteke. Horretaz gain, oso eroso egon naiz eta jende jatorra ezagutu dut.

**Zer metodologia erabiltzen duzue? Nolakoa da?** Metodologia praktikoa dela esango nuke; hau da, ikasgai bakoitzean irakasten den irakasgaia da gero inguruko enpresetan beharko duzuna. Oinarri ona ematen dizute. Horretaz gain, sei hileko bakoitzean proiektuak (PBLak) egiten dira eta horrek autonomoagoa izaten eta beste jende batekin elkarlanean aritzen irakasten dizu.

**Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta ezer hobetzeko?** Aurretik esan dudana bezala,

gehien gustatu zaidana ematen diren ikasgaien gaia dela esango nuke. Hobetzeko, aipatuko nuke ikasgai batzuetan teoria bideo bidez ikasi behar dela etxean, eta niri kostatu egiten zitzaidan etxean horretan kontzentratzea.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, dual eredu. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?** Orain, Orbik Cybersecurity enpresan nago; Ikerlaneko zibersegurtasuneko start-up bat da eta elektronikako fabrikatzaileentzako soluzioak garatzen ditu. Ni sistema industrialetarako eskaneatze automatikoa egingo duen aplikazio bat garatzen ari naiz.

**Zer-nolako ekarpena egiten dizu dual ereduak?** Esperientziak eta ezagutzak gain, enpresa batek barrutik nola funtzionatzen duen ikusteko balio dizu.



Ane Irazabal kazetaria. MARKEL ARRAYAGO

# "Maite den toki bat suntsituta ikusteak gorrotoa dakar"

**ANE IRAZABAL KAZETARIA**

Palestinan egin zituen lehen urratsak Irazabalek, eta "emozionala profesionaletik" ezin dela banandu dio. Esperientziaz eta istorioz beteriko motxila bat darama soinean

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarría** DEBAGOIENA

Berlinen bizi da Ane Irazabal kazetaria (Arrasate, 1984), baina bizileku izan ditu Palestina, Egipto eta baita Italia ere. Tartean behin, etxera itzultzen da, eta hala egin du Gabonetan ere. Bada, Amaia Uribe kazetariarekin, bizi izandakoak izan ditu hizpide *Ttap* aldizkari digitale-rako egindako elkarrizketan; gaur argitaratu da.

Fantasia "asko" gustatu izan zaio Irazabali txikitatik. "Bate-

tik, asko gustatzen zitzaidan Historia; eta, bestetik, beti izan naiz oso berriketa-zalea". Etxean albistegiak aurkezten zizkien gurasoei, baina, hala ere, Zientzia Politikoak ikasten hasi zen. "Urtebete egin nuen, eta utzi.

**"ITALIA EUROPAREN LABORATEGI POLITIKOA DA; HAN GERTATUA EUROPARA ZABALTZEN DA GERO"**

Gero, Historia ikasi nuen; eta, ondoren, Ikus-entzunezko Komunikazioa. Bidean erabaki dut zer zen gustatzen zitzaidana".

Ikasketak amaitzean, "garai korapilatsua" zen, 2008-2009ko krisi ekonomiko Euskal Herri-ira iritsi baitzen, baina argi zuen kazetaritza murgildu nahi zuela. "Harremanetan jarri nintzen Palestinako albiste-agentzia txiki batekin; motxila hartu eta hara joan nintzen". Lau hilabetez egon zen haiekin lanean, eta "izugarri" ikasi zuen. "Esperien-

tzia hura amaitzean erabaki nuen freelance hastea".

## Lehen urratsak

Irazabalen ustez, "osagai ezberdinez osatutako errezeta" da freelance lana. "Ni astun hutsa izan nintzen: proposamenak bidaltzen nituen. Eta bada unea aprobetxatzea ere". Palestinan zela, adibidez, Palestinako Aginte Nazionalak proposamena bidali zuen Nazio Batuen Erakundera Palestina naziotzat aldarrikatzeko. "Albiste pila bat sortu ziren, eta, lehenik, *Berria*-rekin hasi nintzen; gero, *Argia*-n; ondoren, EITB taldearekin...".

Palestinatik Egiptora egin zuen jauzi, eta bi herrialdeekin "konexio emozionala" du. Are gehiago, Palestinako sarraskia ere gertutik jarraitzen ari da, eta "emozionala profesionaletik" banandu ezin dela dio. "2012ko eta 2014ko Gazako gerren berri eman nuen Gaza barrutik, eta pertsona haiekin batzuk hil egin dituzte, beste batzuek han jarraitzen dute... Orduan, oso konplikatu da, dena nahasten baita. Zuk maite duzun toki bat zeharo suntsituta ikusteak, batzuetan, gorrotoa ere eragiten du".

## Palestinatik Egiptora

Palestinatik Egiptora joan zen, eta errefuxiatuen afera jarraitzen hasi zen, Ekialde Hurbileko kanpalekuetara ere bisitak eginda. Egiptotik Italiara itsasontzian alde egiten saiatzen ziren familien istorioak biltzen eta kontatzen ere hasi zen, baina 2013an estatu-kolpea izan zen Egipton. "Errepresio olatu handia hasi zen, eta geroz eta zailagoa zen Egipton lan egitea. Italian errefuxiatuen aferak indar handia zeukala ikusita, hara joan nintzen".

## Italiako egonaldia

Italian igarotako denbora "oso interesgarria" izan da Irazabalentzat. "Batetik, Italiako politikak ia-ia doktoretza bat eskatzen duelako sistema guztia ulertzeko. Niretzako Italia beti da Europaren laborategi politiko bat; Italian gertatzen dena

**"GATAZKETAN NI IZAN NAIZ NIRE BIZITZAREN ARDURADUN, BAINA UKRAINAN EZ NINTZEN SOILIK NI"**

gero, urte batzuk geroago, Europa osora zabaltzen da". Eta, hain justu, hein batean, hori gertatu zen COVID-19arekin ere. "Sentsazioa zen etorkizunetik hitz egiten ari nintzela (...) Gogoan dut lehenengo maskarak bidali nizkiela gurasoei Italiatik Arrasatera. Badirudi duela hoge urte izan zela, baina duela hiru urteko kontua da".

Oroitzapen "politikak" ditu, eta "bigarren etxetat" du Italia. "Nire semea erdi-italiarra da".

## Orain, Berlinen

Pandemiaren ostean, Angela Merkelek hamasei urteko kantzilergoa utziko zuela-eta, Berlinera lekualdatu zen, zer gertatzen ari zen gertuagotik jarraitzera. "Merkelek boterea utziko zuela bai, baina ez nuen imajinatzen handik oso distantzia motzera gerra bat abiartzeko zela European. Hura ere beste erronka bat izan zen".

Ukrainara jo zuen Irazabalek, eta oraindik ere "oilo-ipurdia" jartzen zaio, sarri, semea ikustean, haurdun baitzegoen. "Donbassen 2014tik zegoen gatazka, baina hasi ziren esaten herrialde guztia eraso zezaketela, eta hiru aldiz-edo joan ginen Kievera". Azkenekoan, ordea, horrela izan zen. "Ez genekien tankeak Kievera iritsiko zirela ez, bonbardatuko ote zuten. Testuinguru hartan, bost hilabeteko nengoen haurdun". Ukrainatik joan behar zuela bazekien, baina kontraesanak zituen, kazetari gisa han gelditu nahi zuelako. "Hori ez dut inoiz bizi izan, gatazka baten berri ematera joatean ni bainintzen nire bizitzaren eta gorputzaren arduradun, eta nik hartzen nuen arriskua, baina Ukrainan ezin nuen bakarrik nigan pentsatu".

## Kazetaria eta ama

Korrespontsala eta ama izateagatik, batzuetan, galderak egiten dizkiotela azaldu du, eta "epaitua" sentitu izan da. "Gizonei ez die hori galdetzen! Ulertzen da gizonezko gerra-korrespontsal bat joan daitekeela kanpora eta han egon". Alabaina, argi du semeak ulertu behar duela hura ez dela soilik ama. Erantsi du badela zuzenean esaten ez bada ere ulertzen ematen den beste uste bat: "Gizon bat gatazka baten berri ematera joatean, ia heroi bat da; emakumezko bat, berriz, zoroa".



ZABALIK

MIKEL ZUMALDE

# Hauteskunde berri on!

Argi dut euskal politika gertutik jarraitzen duten kazetari eta analista politikoek elkarriz "urte berri on" esan beharrean "hauteskunde berri on" esan diotela. Hauteskunde urte bat utzi dugu atzean eta hauteskundeak egongo diren beste urte bati eman diogu hasiera. Euskal herritarrentzako gertuagoak izango dira 2024koak; izan ere, Legebiltzarrerako hauteskundeetatik lehendakari berria irtengo da. Hamabi urte iraun duen etapa itxiko du Iñigo Urkulluk, eta garai berriei emango die paso. Badirudi Aste Santuko oporraldien ondoren egingo direla, apiril hasieran. Lau hilabete falta diren arren, mugimenduak hasi dira, eta Hego Euskal Herrian babes handien duten alderdiek aurkeztu dituzte hautagaiak. Guztiek dute amankomunean ezaugarri bat: belaunaldi-erreleboa errealitatea dela.

Aukerak dituzten hiru hautagaiek 50 urte baino gutxiago dituzte: gazteena EH Bilduko Pello Otxandiano da, 41 urterekin;

## GUZTIEK DUTE AMANKOMUNEAN EZUGARRI BAT: BELAUNADI-ALDAKETA ERREALITATEA DELA

jeltzaleen Imanol Pradalesek 48; eta euskal sozialisten hautagaiak, Eneko Anduezak, 44 ditu. Alderdi Popularreko hautagai Javier de Andresek 50 urteko langa gaintzen du, baina ez da lehendakari izango. Gaur-gaurkoz, Elkarrekin Podemosek


oraindik ez du aditzera eman zein izango den bere hautagaia.

Euskal hauteskundeen berritasun nagusia hori da, belaunaldi aldaketa izan dela alderdi nagusi guztietan. Azken urteetan Hego Euskal Herrian izan diren aldaketa sozialei aurre egiteko guztiek ikusi dute egoki aurpegi berriak eskaintzea, eta mezua berritzea. Lehia estua espero da EAJren eta EH Bilduren artean; jeltzaleek iazko hauteskundeetan jasan zituzten zigorretatik oraindik altxatzen ari diren bitartean egingo diete aurre hauteskundeei, eta EH Bilduk bere burua gai ikusten du azken berrogei urteetako hegemonia zalantzan jartzeko.

Bien artekoa estu joango da, eta lehia horretan sartuko dira jokoan sozialistak. Espainiako Gobernuako presidente Pedro Sanchezen indarrarekin hauspotuta, Eneko Anduezak EAJrekin osatu nahiko du, berriz ere, Gobernu, baina azken emaitzek, agian, beste gauza batera eraman dezakete agintari eibartarra. Denborak, poligrafo bakarrak, esango digu zein izango den apirilean historiako seigarren lehendakaria.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Niri bost

ANDONI EGAÑA

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
HTTPS://LABUR.EUS/9HLIT

Ez naiz oso bidaiaria izan.

Lanerako gutxitan egin behar izan dut bidaia luzerik.

Eta aisian ere ez dut kanporako joera itsurik izan.

Kalkulua egitea ez zait zailegia gertatu.

Zenbat aldiz hartu izan dut hegazkina Euskal Herrian nire bizitza osoan?

Hogei aldiz?

25 aldiz, asko jota?

Horrek esan nahi du, urtean 0,3 aldiz erabili izan dudala hegazkina.

Hiru urtetik behin, nahiago baduzue.

Zokozalea naizela pentsatuko du hainbatek.

Baina nire adin jirako jendea –salbuespenak salbuespen– ez da kopuru horietatik urrun ibiliko.

Eta kontuak zer diren, etxetik orubete baino gutxiagora baditut bost aireportu: Hondarribia, Miarritze, Loiu, Noain eta Foronda.

Niretzat, gehitxo, hain premia gutxirako.

New Yorken, Parisen edo Madrilen bizi den batek ere ez dezake horrelakorik esan.

Londresen bizi denak bai, akaso, baina kostako zaio

ordubetea bostetara heltzen...

Horregatik asaldaten nau aireportuen erabilera handiaz mintzo diren berrien baikortasun horrek.

"Pandemia aurreko datuak gaintu dituzte Euskal Herriko aireportuek".

"2019ko datuak hobetu dituzte Loiu, Hondarribian eta Forondan".

Oso ondo.

Eta?

Jendea ibili badabilela bagenekien.

Baina gehiago ez da beti hobe.

Kontua da ez ote diren hauek garai hobeak garatzeko baino, geratzeko.

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Leire Etxebarria.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.550 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



## BERBAGAI

# "Indar handia dute narkotrafikatzaileek"

YON ARRUTI MUNDUKIDEN KOOPERANTEA EKUADORREN

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE Barne gatazka betean da Ekuador. Urtarrilaren 8a ezker, Daniel Noboa presidentea aginduta, 60 eguneko salbuespen egoeran dira. Ekuadorko Gobernuak esan duenez, "talde narkoterroristek lehertutako indarkeria oldeak" eragin ditu istiluak herrialde hartan. Mundukideko kooperante Yon Arrutik 20 urte daramatza Ekuadorren, eta lehen eskutik kontatu ditu joan den astean piztutako gatazka armatuaren nondik norakoak. **Zer moduz zaudete zu eta zure ingurukoak?**

Lasaiago gaude; aste honetan lasaitasuna etorri da. Joan den astean, nahiko beldur piztu zen Ekuadorko toki guztietan.

Inguruan ez zaigu tokatu, baina, halere, orain, lasaiago gaude.

**Kolonbiarekin eta Perurekin egiten du muga Ekuadorrek, eta Latinoamerikako bigarren herrialde populatuena da. Mundukidek hainbat proiektu ditu han. Non zaudete zuek? Eta zein da egoera zuen inguru hartan?**

Mundukidek bi proiektu ditu hemen. Gaur egun, Imbabura probintzian gaude, iparraldean, eta beste proiektu bat ere badugu, Amazonian, Napo probintzian. Bi leku haiek nahiko lasaiak dira;



Yon Arruti, Mundukideko kooperantea. YON ARRUTI

istiluak, bereziki, kostaldean gertatu dira, Guayaquil eta Esmeraldas probintzietan, eta Quiton ere bai.

**Guri heltzen zaigun informazioa da narkotrafikatzaileek kontrolatzen dituzten talde armatuak botere handia eskuratu dutela eta talde armatu haien eta polizia indarren arteko borrokek salbuespen egoerara eraman dutela herrialdea.**

Egia da narkotrafikatzaileek indar handia hartu dutela azken urteotan. Duela hiru urte hasi ziren espetxeetan hilketak, eta 500-600 pertsona

hil dira dagoeneko haietan. Gero, hilketak kalera hedatu ziren. 2023a izan da hilketa gehien izan den urtea, 100.000 biztanleko 42-43. Bandek geroz eta kontrol handiagoa dute. Ia Ekuador osoa euren menpe dute eta kartzelatik dena kontrolpean dute. Ministerioetan eta Estatu mailan ere ustelkeria handia dago, eta narko bandetako buruzagiek kontrol handia dute. **Nola iritsi da herrialdea puntu horretara?**

Kolonbia eta Peru izan dira droga ekoizle nagusiak, eta gaur egun, Ekuadortik egiten da bidalketa. Hau da, droga hemendik ateratzen da AEBetara edo Europara. Horrek eragin du narkotrafikatzaile banda gehiago sortzea. Bestetik, Estatuak ere inbertsio txikiak egin ditu, eta, ondorioz, herrialdeak atzera egin du arlo guztietan. Horrek eragin du herritarren egoera ekonomikoa asko okertzea. Gazte askok ez dauka inolako aukerarik, eta, ondorioz, bandetan sartzen dira. **Daniel Noboa eskuindarra da presidente, urriari hauteskundeak irabazita, baina kanpaina nahasia izan zen; zer iruditzen zaizu Gobernuaren esku-hartzea gatazka horretan?**

Denbora gutxi darama, bi hilabete, eta ikusiko dugu zer gertatzen den. Egun hauetan egin duena ez da gaizki egon; izan ere, ematen du kontrolpean hartu dituztela kartzelak eta egoera. Arazoa oso larria da.

**Urtarrilaren 8a ezker, salbuespen egoeran zaudete. Etxeratze agindua dago indarrean 23:00etatik goizeko bostetara. Zertan eragiten du?**

Batez ere turismoan du eragina; gure egunerokoan ez horrenbeste. Hemen goizeko seieta eguzkia ateratzen da eta arratsaldeko seieta ezkututzen da, eta bizitza tarte horretan egiten da. Pandemiaren ostetik ere segurtasun gutxiago dago eta kaleko bizitza lehenago bukatzen da. 19:00etan oso jende gutxi dago kalean. Beraz,

eragiten du, bereziki, turismoan eta ostalaritzan. **Noboak dekretuz ezarri duen salbuespen horren helburua da Gobernuak espetxeetan esku-hartzea. Zein da egoera espetxeetan?**

Ez dago oso garbi une honetan espetxeak zeinen menpe dauden. Esaten da kontrola Estatuarena dela, baina hori datozen hilabeteetan ikusiko dugu. Gobernuak argitaratzen dituen irudietan erakusten da kontrola euren dela, eta espero dezagun horrela izatea; batez ere, kartzelatan. **Egoera apur bat lasaitu dela ematen du; zuek Ekuadorren jarraituko duzue?**

Pentsatu nahi dut joan den astean izan dugun egoera nahasi hau zoezer puntuala izango dela. Egunerokoan ohituta gaude segurtasun neurriak hartzera; zorionez, gure inguruan ez da ezer gertatu. Gu bizi garen eta mugitzen garen lekuak lasaiagoak dira, eta ez dugu une batean ere pentsatu beste inora joaterik.

**"JOAN DEN ASTEAN, BELDUR HANDIA PIZTU ZEN EKUADORREN, BAINA ORAIN, LASAIAGO GAUDE"**

**"DROGA EKUADORTIK BIDALTZEN DA EUROPARA ETA AEB-ETARA; BANDAK UGARITU EGIN DIRA"**

## HAUXE BAI JENEROA! / TXOKOTIK ZABALERA

GARBINE UBEDA / UNAI GAZTELUMENDI



# Dolua erdigunean jarrita, elkarri laguntzea helburu

Amadola Elkartea eratu dute, eta helburu nagusia da dolu-prozesuak dakarren bakardadean eta gaixotasunean laguntzea, dolu-lanean aurrera egiten lagunduko duten esperientziak eta emozioak partekatzeko eta trukatzeko espazioak eskainiz

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Fernando Ipiñak, Maite Urzainek eta Juanjo Pagaldaik sortu dute Amadola Elkartea –Amaia Larrañaga zenaren omenezkoa da izena–. Berez, 2022ko urriaren 25ean eratu zuten ofizialki, baina azken urtean elkartea egituratzen aritu dira, Arrasateko Udalarekin harremanetan, lokal bat aurkitu guran, eta, azkenean, lortu dute –Arrasate pasealekua 3–. Hala, behin oinarriak finkatuta, lanean hasteko moduan dira. Elkarteko kide Maite Urzainek azaldu duenez, faltan sumatzen zuten halako elkarre bat, irabazi asmorik gabekoa, eta pausoa ematea erabaki zuten.

Askotariko helburuekin sortu dute elkarre bat. Batetik, debagoiendarrei zuzendutako zerbitzu bat sortzeko asmoa dute. "Hainbat arrazoiengatik galera edo dolu esanguratsua bat jasaten ari diren pertsonak identifikatzeko, arreta emateko, baloratzeke, aholkatzeke eta laguntzeko sortu gara. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke: gaixotasun larri aurreratuko prozesuak, bizitzaren amaiera, gaixotasunagatik gaitasunen galera-prozesu garrantzitsu batean dauden pertsonak eta, heriotzakoak izan barik, pertsonen, familien edota gertukoaren bizitza aldatzea

dakarten galerak, estres handiko egoerak sortzen dituztelako".

Era berean, dolu-prozesuak dakarren bakardadean eta gaixotasunean laguntzea eta doluan eta gaixotasun larri aurreratuan dauden pertsonen eta senideen bizi-kalitatea hobetzea ere gura dute. "Horrez gain, gizarteak zabaltzen eta dolu-esperientzia eta hiltzeko prozesua normalizatzen laguntzea ere bada helburuetako bat, komunitatearen sentibilizaziotik eta hezkuntzatik abiatuta", dio Urzainek. Halaber, dolu fisiologikoa bizi duten pertsonen balioa eman eta laguntza eskaintzen saiatuko dira, "beste profesional edo baliabide ba-

tzuekin sareko lana bideratuz edo sustatuz". Azkenik, heriotza-esperientziaren normalizazioa bultzatu gura dute, "komunitateko bizitzaren zati gisa".

## 2024an lau ardatz

Urzainek nabarmendu duenez, elkarre bat 2024an izango duen jarduera lau ardatzetan banatuko da. Batetik, doluaren gaineko hitzaldi monografikoak egingo dituzte, gai bakoitzaren zuzeneko hizlari aditu bat ekarrita. Hitzaldi horietako gehienak Kulturategiaren Jokin Zaitegi aretoan egingo dituzte.

Beste ardatzetako bat norbere buruaren zaintza edo gorputza-

## Lehen hitzaldia, eguaztenean

Amadola Elkarre bat antolatutako lehen hitzaldia Karmen Amezuak egingo du, urtarrilaren 24an, 18:00etan, Kulturategiaren Jokin Zaitegi aretoan. "Karmenek semea galdu zuen Gorbeia mendian. Erizaina da, eta, lanbidez erretiratu dagoen arren, hark dio bizitzatik ez dagoela erretiratu. Guri bihotzera heltzen zaizkigu Karmenek esandakoak", azaldu du Urzainek. "Haren doluaren ostean, bizitzara konektatu da berriro, eta, gainera, trebatuta dago gaian. Beraz, uste dugu oso ahots inportantea dela honetaz hitz egiteko. Izan ere, doluari buruzko mito asko ditugu. Halako egoera batetik pasatu izanak, besteei laguntzeko prest egon izanak eta, gainera, trebatuta egoteak berezi egiten du Karmenen figura". Ostean, Aizpea Mujika eta Eva Bilbao ere izango dira hizlariak.



Fernando Ipiña, Maite Urzain eta Juanjo Pagaldai. E.A.B.

ren zaintza izango da. "Kontzientzia gara dolua modu desberdinean lantzen duela norberak eta, bereziki, norbere buruarekin egoteko denbora behar dela. Batzuentzat ez da batere erraza sentitzen dutena adieraztea. Beraz, apiriletik aurrera, Etxaluzeko areto batean, *Chi kung* terapia egingo dugu. Hala, batez ere, arnasketan zentratuko gara, mugimendu lasaiekin. Izan ere, doluan gaudenean, energia asko kontsumitzen dugu, eta gure gorputza zaindu egin behar da".

Bestalde, berdinen arteko talde txikiak ere osatuko dituzte, elkarre bat lokalera. "Lauzabost kideko taldeak izango dira eta talde bakoitzak gidari bat izango du, dolua modu egokian lantzeko", dio Urzainek.

Azkenik, kontsulta zehatzak egiteko aukera ere eskainiko du elkarre bat. Hala, lokala martitzen arratsaldeetan egongo da zabalik. "Zalantza indibidualak, kezak eta bestelakoak partekatzeko espazioa eskaini nahi dugu. Izan ere, badaude gauza batzuk hitzaldi batean edo talde batean

ezin direnak partekatu. Jendeak galdera zehatzak izaten ditu eta ez du jakiten nora jo, eta horri erantzutea ere bada gure asmoa. Gu saretuta gaude, elkarre bat askekin, eta zubi lanak egitea gura genuke". Halaber, 747 42 72 99 telefono-zenbakia jarri dute herritarren eskura. "Deituta, erantzungailua irtengo da, eta gura dugu pertsona bakoitzak bere telefono zenbakia uztea eta kontsulta egiteko daukan gaia aipatzea. Modu horretan, gu harremanetan jarriko gara harrekin eta hitzordu bat emango diogu. Lokalean elkartuko gara, modu pribatu eta intimoan".

## Ateak zabalik dituzte

Elkarre bat nahi duten guztiek ateak zabalik izango dituztela azpimarratu du Urzainek.

**HARREMANETARAKO TELEFONO-ZENBAKI BAT JARRI DUTE HERRITARREN ESKURA: 747 42 72 99**

## 2024ko tributuen eskuorri informatiboa banatu du Udalak

Arrasateko egutegi fiskala eta tasak eta zergak ordaintzeko hobarien inguruko informazioa jasotzen ditu

**E.A.B.** ARRASATE

25 hobari mota daude, lau aplikazio-eremutan banatuta: ondasun higiezinaren gaineko zergak ordaintzeko hobariak, ibilgailuen zergak ordaintzeko hobariak, komertzio berriak sustatzeko

hobariak eta obren gaineko zergak ordaintzeko hobariak. Joseba Ezpeleta Ogasun Saileko zinegotziak azaldu du helburua progresibitatea ezartzea dela, baina, "gai konplexua" izanik, "denbora luzea" beharko dela

hori ezartzeko. "Bitartean, Udalaren eskumenak diren tresnak erabiltzeko apustua egiten jarraituko dugu hobariarekin, horiek baitira progresibitate gerturatu gaitzaketen tresna eragin korrenak, gaur-gaurkoz".

Trantsizio ekologikora bidean, ibilgailu elektrikoaren eta hibridoaren gaineko zergak hobariak ezarriko dituzte, %95 eta %75ekoak, baita energia berriztagarriak instalatzeko hobariak, edota energia berriztagarriak dituzten ondasun higiezin

gaineko zergak hobariak ere. Azkenik, hobari berriak ere egongo dira, eta horien artean "berrikuntzarik nabarmenenak" dira komertzio berriak sustatzeko hobariak. "Besteak beste, jarduera irekitzeko baimenean, lokalak jarduerara egokitzeko obretan edota zabor tasaren lehen hiru urteetan %95eko hobaria".

Era berean, hobarietan bileran esparru berri gehitu dituzte, "helburu komunitarioak" dituztenak: "Alde batetik, indusketa lanak egiteko obretan %95eko

hobaria izango da; eta, bestetik, %50eko hobaria ere ezarri dugu Eusko Jaurlaritzak eraiki asmo duen osasun zentroarentzat".

## EAJren ustez, "justifika ezina"

Jeltzaleen ustez, "justifika ezina" da tasak eta zergak igo izana. "Etxebizitza, ibilgailua, ura, zaborra eta kiroldegira sartzeko zergak eta tasak ordaintzen dituen Arrasateko familia tipiko batek 1.200 euro baino gehiago ordaindu beharko ditu urtean", nabarmendu dute.

# Gaitu Eguna egingo dute datorren egubakoitzean

Geikek, Arrasateko euskaltzaleak batzeko eta euskara gehiago zabaltzeko helburua duen taldeak, Gaitu Eguna aurkeztu du asteon. Urtarrilaren 26an egingo dute, hain zuzen, Gaitu proiektua herrian ezagutarazteko eta euskarazko grabazioak egiteko

## Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Hizketaren ezagutza erabiltzen duten teknologietan euskara sustatzeko ekimen nazionala da Gaitu. "Izan ere, gero eta ohi-koagoa da egunero erabiltzen ditugun gailuei aginduak hitz eginez ematea –autoa, hozkailua, telebista...-. Eta, adituen arabera, etorkizun ez oso urrunean, teklatuak desagertu eta soilik ahotsaren bitartez komunikatuko gara gailuekin", azaldu dute Geikeko kideek. "Hartara, teknologia horiek euskaraz jakitea funtsezkoa da, gure hizkuntza teknologiaren esparruan egongo bada. Gure hizkuntza, ordea, txikia da hitzun kopuruari dagokionez, eta hizkuntzen teknologian daukan lekua ez da nahiko genukeena. Gainera, teknologia erabilienak komertzialak dira –Siri, Alexa, Bixby...-; alegia, enpresa multinazionalen esku daude. Ordainpekoak izateaz gain, hizkuntza hegemonikoetan garatuta daude, eta gurea bezalako hizkuntza gutxiagotuak baztertzeko dituzte. Gainera, segurtasun arazo handiak dituzte", gaineratu dute.

Egoera horri aurre egiteko asmoz, Common Voice proiektua sortu zuen Mozillak 2017an eta, gaur egun, ia 200 hizkuntza daude; euskara barne.



Martitzenean egin zuten aurkezpena, Kulturateko areto nagusian. MIREN ARREGI

## Grabazioak, Seber Altuben

Helburu horrekin jarri dute martxan Gaitu kanpaina, eta herritarrei parte hartzeko dei egin diete. Horretarako aukera, batetik, urtarrilaren 26an Seber Altube plazan egongo da –eguraldiak laguntzen ez badu, Kulturaten–. 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara grabazioak egiteko aukera egongo da. "Erronka moduan, ea 1.000 grabazioko ekarpena egitera iristen garen!".

Gogorarazi dute, halaber, nork bere kabuz ere egin di-

tzakeela grabazioak, *Gaitu.eus* webgunean.

## 20 urtetik gorakoentzat

Nazioarteko ekimena izanik, 20 urte edo gehiago duten herritarrek daude deituta parte hartzera. Bestetik, 30 urtetik gorako emakumeen ahotsak behar dituzte, bereziki, "eremu horretan baitago hutsunerik handiena". Bestalde, esaldiak grabatzen ez ezik, grabatuta daudenak balioztatuz ere egin daiteke ekarpena. "Animatu, eta gaitu teknologia euskaraz".



NIRE USTEZ

OIANA SANCHEZ

## 'Blue monday'

Hizkuntza atzerritar batean idatzitako bi hitz urteko astelehen tristeena izendatzeko. Horixe bera. Gure ama hizkuntzan astelehen bat, edozein astelehen dena, ezta?

Hain landutako teoria honi ez diot kontra egingo, baina astelehen baten tristura neurtzeko zertaz baliatzen diren jakitea gustatuko litzaidake. Eta bai, azalpen logiko bat dagoela badakit. Baina niretzako denak dira goibel, denak ere zoritxarreko.

Izan ere, astelehenentzako, nire buruan definizio ugari daude: asteburuaren amaiera, errutinaren hasiera eta kapitalismoaren morroi. Imajinatu zer puntura heldu garen, ekintza bera egin eta sentimendu bera izan behar ditugula suposatzen dela. Ez al da triste mundu mailan astelehen bat konkretuki denontzako tristeena izatea? Ez al gara konturatzen horretarako ere ganadu nahi gaituztela?

Astearteak bai etsai, hauetaz inork ez du tutik esaten, baina asteke egunik petralena da. Beraz, *Black Martitzena* proposatzen dut nik. Ea, ba, *black* ezin da izan, hartuta dago eta!

## Korrika batzordeak etzidamu egingo du bigarren bilera

Kulturateko Loramendi gelan elkartuko dira, 18:00etan, Korrikari begirako ekintzak antolatzeko helburuarekin

## E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Korrika batzordea dagoeneko martxan da, eta, ohi moduan, herriko hainbat eragiletako ordezkariek daude: Udala, Ekin Emakumeak Elkarte, Arrasate Herri Eskola, Emun, Txatxilipurdi eta abar. Edozelan ere, datozen bileretan parte hartzeko dei egin diete herritarrei, edozein ekarpen lagungarri izango delakoan. Modu horretan, bigarren saioa urtarrilaren 22an egingo dute, Kulturateko Loramendi gelan, 18:00etan. Helburua betikoa da: Korrikaren testuin-

guruan, herria girotzea eta askotariko ekintzak antolatzea.

Joan den eguaztenean egin zuten lehenengo bilera hainbat gai landu zituzten; besteak beste, Korrika Kulturala, Korrika Txikia eta Korrika eguna.

23. Korrika Irundik abiatuko da, martxoaren 14an, eta Baionan bukatuko da, martxoaren 24an. Arrasatetik martxoaren 23an pasako da, 03:30 inguruan. Aretxabaletatik etorriko da eta San Andrestik sartuko da herrian. Gero, Elorregitik, Oñatiranzko bidea hartuko du.

## Inplante bat behar duzu?

Orain, zure inplantologia-tratamenduari lehen mantentzea DOAN\* da

- ✔ Tratamenduaren arrakastari lagunduko dio
- ✔ Zure inplantea zainduko du
- ✔ Hats txarra prebenituko du
- ✔ Zure hortzoiak, hortzak eta inplanteak babestuko ditu

Mantentze periodontala, 151 € balio dituen

\*Sustapen honek 2024ko otsailaren 29ra arte balio du. Honek berrikuspena, kontrola eta mantentze-garbitzea barne hartzen ditu. Sustapenak 2024ko otsailaren 29ra arte balio du kontrolatutako edozein inplantologia-tratamendurako. Medikuen aginduari lotutako tratamendua. Otsail-erregistroa: C310715.



VITALDENT  
ARRASATE

Otalora lizentziaduna kalea 1  
943 06 03 22

Eta zure tratamenduan lasaitasun osoz has dezazun, zure interesak ordainduko dugu. % 0ko ITN. % 1,96ko UTB\*\*

24 hilabeterako finantzaketa

\*\*Gutuleneko zerbateko: 288 €. Finantzaketa ordubidea 1.200 €-ko zerbatekorako 24 hilabeteren, % 2ko formalizazio-komisioa: 24 €. Lehen kuotan ordaintzeko. Lehen kuota 74 €-ko langa da eta 50 €-ko 22 kuota. ITN % 0,0 (UTB % 1,96). Kredituaren kostu osoa: 24 €. Zerbateko-guztizko zerbateko eta apeakako guztizko prezioa: 1.224 €. Eskurako eresketen prezioa: 1.200 €. VITALDENTEN diruz lagundutako interesak. Banco Cetelem S.A.U.-k eskaintutako finantzaketa, 2024/02/29ra arte baliozkoa. FOP: 141-19

# Itsaspean murgiltzera, etxetik mugitu gabe

CIMASUB jaialdia, Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa, Arrasatera iritsiko da estreinakoz. Datozen hiru martitzenetan hainbat ikus-entzunezko proiektatuko dituzte Amaian. Kultureteko erakusketa eta 'Txikiziklo' jarduera ere batzen ditu egitarauak

## Hasier Larrea ARRASATE

Donostian sortu zen, 1975ean, Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa, Urpeko Erregeak elkartearen ekimenez. "Urpekari talde horretako kideek itsasoa eta urpeko irudiak maite zituzten; hala, zinemaren eta argazkilaritzaren bitartez, gure ozeanoek ezkututzen duten edertasun eta biodibertsitate guztia erakusten eta giza portaeraren ondoriozko egoera larriaren berri ematen jardun dute urte hauetan guztietan", azaldu dute zikloaren antolatzaileek.

CIMASUBek 47 edizio bete ditu jadanik, mundu osoko itsaspeko zinemaldirik luzeena bihurtu da, eta lehen aldiz ekarriko dute Arrasatera: "Hori dela eta, aukera paregabea da urpeko irudiaren profesional onenen argazkiez, film laburrez eta dokumentalez gozatzeko, bai kalitateari eta edertasunari dagokienez, bai sentsibilizazioari eta itsasoko ingurumen-hezkuntzari dagokienez".

## Askotariko filmak

Kulturaten eta Amaia antzokian ikusi ahal izango dira itsaspeko paisaia harrigarriez jositako ikus-entzunezkoak. Askotariko dokumentalak eta eta film laburrak proiektatuko dituzte, urtarilaren 23an, 30ean eta otsailaren 6an, 19:30ean hasita –doako sarrerak leihatiletan egongo dira eskuragai–. Urpeko Errege Elkarteak kideek adierazi dutenez, programazioak bi ikuspegi jarriko ditu aurrez aurre: "Alde batetik, arrantza-baliabideen gehiegizko ustiapen jasangaitza eta biodibertsitatearen desagertzea salatzen duten irudi zirraragarriak aurkeztuko dira; eta, bestetik, planetako zenbait lekutan oraindik ere existitzen

## GIZATERIAREN ETA OZEANOEN ARTEKO ELKARREKINTZARI BURUZ HAUSNARTZEA DA ZIKLOAREN XEDEA

diren unibertso harrigarrien ikuspegi baikorra".

Lan guztiak proposatuko dute itsas bidaiaren bat: "Floridako itsas belardietatik Indonesiako ozeanoaren sakoneraraino, koralezko arrezifeen kontserbazioaren garrantzia, espezie inbaditzaileen mehatxua Mediterraneoan, estresak bizitza modernoan duen eragina, eta bertako arrantzaleen eta marrazo baleen arteko harremana aztertuko dira, besteak beste. Narrazio liluragarrien bidez, publikoa gure itsas ekosistemen edertasunaren eta hauskortasunaren lekuko izango da".

## Espezie bitxiak argazkitan

Era berean, aurtengo zikloan sarituak izan diren nazioarteko argazkiek ere hartuko dute protagonismoa; izan ere, Kultureteko klaustroan urpeko 24 irudi ikusgarriz gozatzeko aukera egongo da, urtarilaren 23tik otsailaren 2ra: "Irudi horien bidez, espezie bitxi eta deiga-

rrienak aurkeztuko dira; askotan, egoera arraro eta ezohikotant". Erakusketa Gipuzkoako Aldundiko Iraunkortasun Sailaren eta Arrasateko Udalaren arteko elkarlanaren fruitua da, eta Urpeko Errege Elkarteak eta Donostiako Aquariumak babesten dute.

## Neska-mutilentzako jarduerak

Gaztetxoaren artean itsas mundua estimatzeko eta errespetatzeko ahalegina ere egiten du Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloak, *Txikiziklo* ekimen hezitzailearen bidez. Funtsean, jardueraren helburua haurrak klima aldaketa arintzen eta itsaso eta ozeanoak salbatzen laguntzearen garrantziaz kontzientziaztea da. *Txikizikloa* otsailaren 6an antolatzeko asmoa dute, Amaia antzokian, 10:00etan. Inguruko ikastetxeetako LHko 5. eta 6. mailetako neska-mutilak dira bertan parte hartzeokoak. Itsaspeko film laburren hitzaldiak eta ikustaldiak izango dituzte hizpide, Mater museoak eta Aquariumak gidatutakoak. Aurretik, gainera, material didaktikoa landuko dute ikasgeletan.

## Proiektatuko diren ikus-entzunezkoak

### Hilak 23, Kulturaten:

Hamabi film labur; tartean, *Itsaso Bizia*, *Santuario Esmeralda*, *Raja Ampat*, *Tiempo*, *Estres*, *Veo Veo* eta *Underwater Komodo*.

### Hilak 30, Kulturaten:

Zortzi pieza: *Hiru Itsasargi*; *Above & Below*; *La Moneda*; *Turtle Reef*; *Secret Bay Camouflage*; *Sunken Treasures of Love*; *Raja Ampat*; *The Magic Triangle*.

### Otsailak 6, Amaian:

Zazpi pieza: *CIMASUB 2023ren Argazkirik Onenak*; *Las 2 Caras de Tenerife*; *Una ventana al azul*; *Strangest Things*; *Spear*, *Spatula*, *Submarine*; *Los Cuatro Reyes*; *Indonesia Blue*.

## Gurasoentzako formakuntza saioak, hitzaldi eta tailer bidez

Udalak antolatuta, hiru hitzaldi eta bost tailer egingo dituzte, urtariletik maiatzera bitartean

## H.L. ARRASATE

Haurren eta nerabeen heziketari begira, Arrasateko Udalak gurasoentzako formakuntza saioak antolatu ditu, "seme-alaben heziketaren inguruan hausnartu eta gurasoei gune batzuk eskaintzeko, sortzen zaizkien kezkek eta zailtasunak konpartitu ditzaten".

Urtariletik maiatzera bitartean hiru hitzaldi eta bost tailer egingo dituzte, guztira, horietako batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritzaren *TREBA Gurasoak* dinamikarekin elkarlanean.

Hitzaldiak Kulturaten izango dira, 18:00etan, eta osasun mentala, substantzien kontsumoa eta sexualitatea landuko dituzte. Ildo beretik, bost tailer ere eskainiko zaizkie gurasoei, seme-alaben adinaren arabera banatuta. Tailer guztien helburua da gurasoei baliabideak ematea seme-alabak hezteko, ikuspegi praktikoarekin. Hitzaldietan eta tailerretan parte hartzeko, ezinbestekoa izango da izena ematea. Horretarako, bertaratu BAZera, sartu [arrasate.eus](http://arrasate.eus)-en edo deitu 943-25 20 00 zenbakira.

Saio bakoitzari buruzko informazioa [goiena.eus](http://goiena.eus) atarian dago.

## Tabernen mozerro lehiaketan parte hartzeko izen-ematea

Otsailaren 10eko mozerro lehiaketara begira, parte hartu gura duten tabernekin izena eman beharko dute BAZen, otsailaren 2a baino lehen. Izan ere, antolatzaileek taberna horiek bakarrik ikuskatuko dituzte.

Bestetik, zapatu honetan, hilak 20, bukatuko da Inauterietarako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea.



Zikloan saritutako argazkietako bat, Kultureteko klaustroan ikusgai egongo dena. MERCHE LLOBERA RODRIGUEZ



Desoreka Judo Taldeko kideak, Tortosan jokatuako lehiaketaren ostean. DESOREKA

# Judoka gazteak bidea egiten ari dira gutxinaka

Joan den asteburuan Tortosan (Lleida) jokatu zen Espainiako Kopan lehiatu ziren Desoreka Judo Taldeko hiru kide. Jokin Hurtado arrasatearrak urrea jantzi zuen; Jare Urrutia arrasatearra eta Beñat Ovejera eskoriatzarra, berriz, bosgarren izan ziren

**Iñigo Barrena Kortabarria** ARRASATE Arrasateko Desoreka Judo Taldeko kirolariak ezin hobeto ekin diote urte berriari; izan ere, joan den asteburuan Tortosan jokatuako Espainiako Kopan emaitza bikainak lortu zituzten: urrezko domina bat eta bi bosgarren postu. Taldeko hiru kide lehiatu ziren: Jokin Hurtado eta Jare Urrutia arrasatearrak eta Beñat Ovejera eskoriatzarra. Hain zuzen ere, Hurtado izan zen urrea lortu zuena, lehen aldia gainera debagoiendar batentzat. "Itxaroten ari ginen ea aukera hau noiz suertatuko zen, eta iritsi da, azkenean. Hasi da sinisten gai dela", dio Markel Urrutia entrenatzaileak. Era berean, meriturik ez die kentzen Urrutiak eta Ovejera lortutako bosgarren postuei: "Asteroko lanean kirolari talde sendoa dugu. Entrenamenduetan sekulako giroa dugu, eta, bakarka hobetuz gero, taldea ere bere osotasunean mailaz igotzen da. Batek egiten

duen lanetik beste guztiak aprobetxatzen dira".

**Oinarri sendo baten garrantzia** Edozein kirolatan bezala, emaitza guztien atzean lan handia dago, baina askotariko bideak daude emaitzetara iristeko. Desoreka Judo Taldean "konstruktibismoan" oinarritutako "irakaskuntzan" oinarritzen direla dio Urrutiak, hori baita hura iritsi zenetik taldeak eta klubak hartu duten bidea. "Hezkuntza mundutik nator eta nire helburua judo pedagogikoa egitea da, baita klubarena ere. Agian, emaitzak lortzeko bide motelagoa da, baina talde sena duen borroka da judoa; horrenbestez, elkarren arteko harre-

**ESPAINIAKO KOPA BATEAN DEBAGOIENDAR BATEK URREA JANTZI DUEN LEHEN ALDIA DA**

manak zaintzea ezinbestekoa da. Horrek oinarri sendo batzuk sortzeko bidea ematen du", dio entrenatzaile arrasatearrak. Halaber, aitortu du kirolariak "ondo" ari zirela lanean orain arte, baina euren "erronka" oinarri horiek eraikitzea zela hasieratik.

**Instalazio duinen beharra** Talde harremana eta izaera sendotzeko zein oinarri sendoak eraikitzeko, berriz, leku eta inguru aproposak behar dira. Hori dela eta, Urrutiak dio instalazio "aproposen" beharra dutela, gaur egungo espazioa "egokia" ez dela iritzita; besteak beste, "hezetasunak" dituelako eta tatamiaren erdian "zutabe bat" dagoelako. Horri konponbidea emateko lanean ari dira. "Arrasate Judo Elkartearrekin eta Udalarekin elkarlanean ari gara, irtenbidea aurkitzeko asmotan. Dena dela, Udalarari eskatzen diogu judoa duintasunerako eramateko". dio Urrutiak.

## Naturarekin hitzordua izango dute bihar arrasatearrek

Zuhaitz Egunaren hamaikagarren edizioa egingo dute, eta bertako produktuen azoka ere izango da

**I.B.K. ARRASATE**

Urteko hitzordua izaten da Zuhaitz Eguna, eta aurten ere ez du hutsik egingo, bihar egingo baitute hamaikagarren edizioa izango dena. Goizeko hamarretan San Isidro elizan elkartu, eta Etxezarreta parkerantz abiatuko dira landaketa egitera. Aurten, gainera, 1621 zuhaitz enkargatu dituzte landatzeko; denak, ordea, ez dituzte bihar landatuko. Pello Garai Udaleko Landa Ingurune teknikiariak Arrasate Irratian azpimarratu duenez, urte sasoi "ona" da hau

zuhaitzak landatzeko, eta gonbita egin dio nahi duen orori parte hartzeko, izan gazte edo heldu. Hala, zuhaitz kopuru hori enkargatzearen arrazoia ere azaldu du: "Proba bat gin nahi dugu, eta naturak birsortzeko duen ahalmenean lagundu nahi dugu". Zuhaitz Egunaz gain, Seber Altube plazan ere bertako produktuen azoka egingo dute bihar goizean zehar. Garaik azpimarratu du bihar sei mintegi egongo direla eta, tartean, Euskal Herriko Hazien Sarea egongo dela azokan.



GOIENA

## Hildako zuhaitzak bota dituzte

Biteri plazan zeuden hiru zuhaitzak udan "erabat lehortu" zirela jakinarazi dute udal langileek, eta, ondorioz, hilda zeuden hiru zuhaitzak botatzea erabaki dute. Ereku horretan "sistema erradikularretarako lur gutxi" dagoela kontuan izanda, baldintza horietara egokitzen diren *Viburnum lantana* espezieko hiru zuhaixka landatuko dituzte.

## Taillagintzan hasteko eta hobetzeko ikastaroak

Beste urte batez, tailla ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Taillaginen Elkartek. Ikasteko zein hobetzeko ikastaroak egingo dituzte, urtarrilaren 23an hasita, martitzen eta eguenean, 17:30etik 19:30era, haien lokalean. Izena emateko, 628 05 50 84 eta 600 45 79 45 zenbakietara deituta edo [arte1982arrasate@gmail.com](mailto:arte1982arrasate@gmail.com) helbidera idatzita.



# Zarzuclaren ibilbidea, emanaldi baten laburtuta

Pandemia aurretik prestatzen hasitako lanak gaur (20:00) ikusiko du argia lehen aldiz Amaia antzokian, eta bihar eta etzi beste bi emanaldi egingo dituzte. Oraingoan, gainera, Cristina Cubillo lehen aldiz eta Edu Arzamendi aritu dira zuzendari lanetan

**Iñigo Barrena Kortabarria** ARRASATE Entsegu orkorora amaituta, jendea aulkietan esertzea, Amaia antzokiko argiak piztea eta oiha zabaltzea besterik ez da falta Izaskun Murgia Elkarte Liriko-kideak ia lau urtez prestatzen izan diren *Antología de la zarzuela* emanaldiarekin gozatzeko. Ia 50 abeslari, beste horrenbeste musikari eta eszenatokiaren atzean egongo diren jostunak, dekoratuen egileak, antzokiko langileak... batzen dituen ikuskizuna izango da gaur iluntzean estreinatuko dutena.

Eta guztia zuzentzen, estreinakoz zuzendari lanetan arituko den Cristina Cubillo; nola ez, oholtzara igotzeko gogotsu daude denak. "Hau prestatzen hasi eta berehala iritsi zen pandemia. Denbora asko igaro da ordutik, eta jendea irrikan dago berriz ere taula gainera igotzeko. Orokorrean, oso pozik gaude orain arte egin dugun lanarekin, baina denbora honetan guztian landu dugun hori oholtza gainean erakusteko garaia iritsi dela esango nuke", dio Cubillok.

## Orain artekoaren laburpena

Izaskun Murgia Elkarte Liriko ibilbide luzea duen elkartea da eta Arrasaten zarzuela bat egin duen bakoitzean arrakastatsua



Zarzuclako kideak azken entseguan. XABIER URTZELAI

suertatu da. Gaur estreinatuko dena, hain zuzen, ibilbide horretan guztian egin dituzten zarzuclaren pasarteekin osatutako emanaldia izango da. "Hamazortzi zarzuela egin ditugu. Batzuk errepikatu egin ditugu, eta, oraingoan, guztiaren laburpena egin nahi genuen", dio zuzendari arrasatearrak. Ikusleek emanaldian zati "komikoak" eta "tragikoak" aurkituko dituztela azpimarratu du Cubillok, eta, gainera, muntaia "kuriosoa eta futurista" izango duela ikuskizunak.

Era berean, aitortu du hasierako asmoa ez zela Amaia antzokian egitea: "Gure lokal berrian antologia txiki bat egin nahi genuen, hasieran; ate irekiak antolatzea. Hilabeteek aurrera egin ahala, antzokiak irekitzen joan ziren, eta orduan

## GAUR GAUEKO EMANALDIRAKO ETA DOMEKARAKO SARRERAK GELDITZEN DIRA

## Idazketa tailerra antolatu du Udal Bibliotekak

Miren Amuriza izango da tailerreko irakaslea, eta otsailetik apirilera bitartean izango dira saioak. Hauek dira datak: otsailak 27, martxoak 19, apirilak 9 eta apirilak 30. Saio guztiak 18:00etatik 20:00etara izango dira. Izen ematea hilaren 25era arte dago zabalik eta bibliotekan edo webgunean apuntatu daiteke. Plazak mugatuak dira eta zoz-

erabaki genuen zarzuela Amaia antzokira eramatea".

## Oholtza gainean hobeto

*Antología de la zarzuela* prestatzen hasi zirenean, Tere Gonzalez zen zuzendaria, baina, gaixotasun baten ondorioz, Cristian Cubillok ordezkatu zuen. Orain arte, beti oholtzan gainean abesten izan da, eta taldekideak zuzentzea egokitu zaio orain. "Jendeak oso ondo hartu nau eta asko lagundu didate", dio arrasatearrak. Lana jada hasita zegoen hura zuzendari jarri zenean, eta aitortu du ordura arteko jarraipena ematen saiatu dela: "Zuzendari bakoitzak bere estiloa du, eta nik nire ekarpen pertsonalak egin ditut, baina, une oro, Terek hasitako lanari jarraipena ematen saiatu naiz".

Orain arteko zarzuela guztietan oholtza gainean aritu denez, zuzentzeko orduan "ezberdin" sentitu dela aitortu du, eta garbi dauka non sufritzen den gutxiago: "Orain arte, ondo moldatu naiz, baina uste dut gutxiago sufritzen dela abesten". Fokuen aurrean protagonista izatetik ikuskizuna fokuen atzetik ikustera igaroko da asteburu honetan.

2019an azken zarzuela egin eta gero, zirt edo zart egiteko unea iritsi da Izaskun Murgia Elkarte Liriko-kideentzat; zuzendariak ere azpimarratu du berak jada "gehiago" ezin duela egin. "Nik nire lana egin dut, eta orain, abeslarien, musikarien eta gainontzeko parte hartzaileen txanda da. Zuzendariaren lana amaitu da, eta, hala, egindakoaren emaitza jasotzea besterik ez da gelditzen", dio Cubillok. Era berean, zuzendari lanetan gustura egin

den arren, pena du oholtzan ezingo delako egon: "Nik asko gozaten dut taula gainean abesten, eta sentsazio oso ezberdinak izango ditut oihalaren atzean. Uste dut askoz gehiago sufrituko dudala oraingo honetan".

## Sarrerak gelditzen dira

Ia bost urte igaro dira arrasaten azkeneko zarzuela bat egin zenetik, eta herritarrak gogotsu dira asteburuko emanaldiei begira. Gainera, ikuskizunarekin gozatu nahi duenak oraindik aukera dauka; izan ere, gaurko emanaldirako eta domeka arratsaldean egingo denerako sarrerak gelditzen dira; zapatukoak, berriz, agortuta daude. Sarrerak 21,45 euro balio dute eta Udalaren webgunean eta Amaia txarteldegian daude eskuragarri.

## Harreman-en zozketa

Harreman elkartek hiru saski zozketatuko ditu asteburuko zarzuclako hiru emanaldietan. Ereindajane bere dendako bertako eta produktuko ekologikoekin egindako saski bat eta Harreman dendako bidezko merkataritzako produktuekin egindako beste bi. Batutako dirua Mumbaiko (India) "Ankur" harrera-etxearen proiektura eta Mundukide Mozambiken egiten ari den irismen luzeko nekazaritzako programara bideratuko da.

## Zeramika ikastaroak izango dira Loixe taldearen eskutik

Urtarrilaren 30ean abiaraziko ditu zeramika ikastaroak Loixe taldeak, eta hastapen mailetan eta trebatze mailetan banatuko dira taldeak. Ikastaroek balioko dute zeramika prozesuak ezagutzeko hutsetik hasita edo prozesu horietan sakontzeko. Askotariko teknikak eta akaberak landuta, partaide bakoitzak sortuko ditu

hainbat pieza bere proiektu propioari jarraituta.

Hilaren 30ean hasi eta martxoaren 21era bitartean, martitzenetan eta eguenetan egingo dituzte saioak, goizez eta arratsaldean, Kulturen duten egoitzan. Hauek izango dira ordu-tegiak: A Taldea, Hastapena eta Trebatzea (10:00-12:00); B Taldea, Hastapena eta Trebatzea (16:00-18:00); eta C Taldea, Hastapena eta Trebatzea (19:00-21:00). Izena emateko, 685 79 61 27 telefono-zenbakira deitu behar da.

keta bidez banatuko dituzte. Lehenetsuna izango dute aurreko urtean parte hartu ez zutenek.

Bestalde, Bibliotekak urtarilerako egitarau zabala antolatu du. Datorren egunean, *Beirazko kanpaia* liburuarren gaineko literatura solasaldia izango da; hilaren 30ean, *Craford* telesailaren gaineko ingelesezko irakurketa saioa; hilaren 31an, Lupe Lekuonaren ipuin kontaketa; eta hilaren 31n, *Tea Rooms* liburuarren gaineko tertulia tailerra. Webgunean eman behar da izena.

## Harat taldearen txanda Kooltur Ostegunen barruan

Datorren egunean, hilaren 25ean, Harat taldearen txanda izango da Kooltur Ostegunen barruan. Gaueko hamarretan hasita, rock doinuak nagusituko dira gaztetxe oholtza gainean. Ibai Gogortza musikariaren proiektua da Harat taldea eta 2022an grabatu zuten diskoa, Beran. Sarrerak 7 euro balio du.

# Zazpi aramaioar Arabako Bertsolari Txapelketan

Urtarrilaren 28an Izarran hasi eta martxoaren 16an Gasteizen amaituko da txapelketa, eta, tarte horretan, finalurrekoetako bat Aramaion jokatuko dute, otsailaren 24an, 17:30ean, kultur etxean; sarrerak salgai daude dagoeneko

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARAMAIO  
Urtarrilaren 28tik martxoaren 16ra jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketa, eta arituko diren hamazortzi bertsolarietatik zazpi dira aramaioarrak: Xabi Igoa, Manex Agirre, Paula Amilburu, Aitor Ugarte, Danel Herrarte, Martin Abarrategi eta Peru Abarrategi. Azken hori da egungo txapelduna, eta GOIENARI adierazi dio txapelketari begira "pisu apur bat" sortzen diola txapeldun izate horrek: "Erreparo apur bat ematen du. Beste txapelketa batzuetan, agian, ikuspuntu edo leku dibertigarriago batetik kantatu izan dut. Aurten, pisu apur bat sortzen dit txapela defendatzeak, baina gogotsu joango naiz. Badakit bertso eskolako kideak daudela, lagun pila bat, eta ahalik eta ondoen egitera joango naiz".

Bertsolari aramaioarrak iraila ezker dabilta prestaketa lanetan, eta Amilburuk nabarmendu egin du aurreko edizio-

ko aramaioar sailkatuen kopurua mantentzea: "Aurreko txapelketan batek ez zuen parte hartu, aurten beste batek ere ez... Atzetik badatoz gazteak, badago jendea ez dena sailkatu eta badago jendea ez duena parte hartu ere".

Gai-jartzaileen eta epaileen artean ere badira debagoiendak

rrak: Lierni Altuna aramaioarra gai-emaile izango da eta Iker Elexpuru aramaioarra eta Mikel Arroiabe aretxabaletarra, epaile. "Arabako euskararen inguruan egiten den ekintza garrantzitsuenetakoa da, gazte jende asko mugitzen duena, eta horren parte izateak asko betetzen nau. Nire lanetik eta nire

## Bertxokoko finalean aramaioarrak

Paula Amilburu eta Ane Arexolaleiba sailkatu dira urtarrilaren 26an Gasteizen egingo den Bertxoko sariketaren finalerako. Egubakoitzean jokatu zen sariketaren lehen kanporaketa, eta publikoak hala erabakita lortu zuen bikoteak finalerako txartela. Ordubete inguru iraun zuen saioak eta bakarka, binaka nahiz hirunaka egin zuten bertsoetan. Ezohiko ariketez eta era askotako gaiez beteriko saioa izan zen.

Bigarren kanporaketa domekan jokatu zen, Baranbion, eta han izan ziren Aitor Ugarte, Txomin Abarrategi, Danel Herrarte eta Peru Abarrategi aramaioarrak, baina ez ziren finalerako sailkatu. Azken kanporaketa Agurainen izango da, gaur, eta Sabin Abarrategik parte hartuko du.



Arabako Bertsolari Txapelketako aurkezpeneko talde-argazkia. A.B.E.

bestelako jardueretatik oso desberdina da eta jende ugari ezagutu dut epaile ibilbidean", dio aretxabaletarrak.

## Hurrengo saioak

Parte-hartzaileak dira 2022ko Arabako Bertsolari Txapelketaren finalean kantatu eta izena eman duten bost finalistak eta 2023ko udazkeneko kanporaketan sailkatutako lehenengo hamahiruak. Hala, hemezortzi arituko dira final-laurdenetan, hamabi finalerdietan eta sei finalean. Finala Gasteizko Printzipal antzokian izango da, martxoaren 16an, 17:30ean.

Lehen final-laurdena urtarrilaren 28an jokatu da Izarran, eta han arituko dira Peru Abarrategi, Paula Amilburu, Danel

Herrarte eta Aitor Ugarte aramaioarrak, Eli Zalduarekin eta Ekaitz Samaniegorekin batera. Bigarren final-laurdena Oionen jokatu da, otsailaren 4an, eta Manex Agirre eta Xabi Igoa aramaioarrek hartuko dute parte. Azken saioa, berriz, Laudion izango da, otsailaren 11n, eta Martin Abarrategi arituko da.

Lehen finalurrekoa Aramaion jokatu da, otsailaren 24an, 17:30ean, kultur etxean, eta sarrerak salgai daude [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian. Sarrera arrunta 10 euro da, 6-18 urte bitartekoendako doan eta Bertsozale Elkarteak bazkideendako 7 euro.

Finalerako sarrerak, berriz, otsailaren 6an jarriko dituzte salgai.

## Iker Senar hamaseigarren izan da Espainiako Txapelketan

Amurrion jokatu zen domekan Espainiako Ziklo-kros Txapelketa, eta aramaioarra gustura dago emaitzarekin

### I.A.A. ARAMAIO

Iker Senar aramaioarra lehen aldiz lehiatu zen Espainiako Ziklo-kros Txapelketan, eta hamaseigarren postuan helmugaratu zen elite mailan. Esperientzia "polita" izan dela dio: "Zirkuitua ederra zen eta lokatzarekin teknikoago bihurtu zen. Gustura agertu da hamaseigarren postua lortzearekin. Haren hitzetan, ez da erraza lehen hoge postuetan sailkatzea, eta erronka bezala jarri zuen 20-25 postuen artean helmugaratzea. Gainera, azaldu du irteeran azken postuetatik

abiatu zela eta ez zela erraza izan aurkariak aurreratzea.

Txapelketaz galdetuta, dio hasierako itzulietan kostatu egin zitzaizkion erritmoa hartzea: "Akats batzuk egin nituen, baina, poliki-poliki erritmoa hartuta, azken itzulian batzuk aurreratzea lortu nuen".

Enduro modalitatean ekainean Castejon de Sos-en (Huesca) izango den Espainiako Txapelketan parte hartzeko gogoz dago. "Hemen inguruan egingo diren enduro lasterketez gozatzeko ere desiratzen nago", gehitu du.

## Bi entsegu antolatu dituzte Santa Ageda batzerako

Otsailaren 3an egingo dute Santa Ageda batzea Aramaion, Pargorri abesbatzak, Triki kalejirak, Aramaioko bertso eskolak eta Alaiak jubilatuen elkar-teak antolatuta, eta, kantuan atera aurretik, bi entsegu antolatu dituzte datozen egunetarako. Lehena urtarrilaren 25ean izango da eta bigarrena, berriz, otsailaren 1ean. Entseguak musika etxean egingo dira, arratsaldeko zazpietan. Egun berean, Santa Ageda batzearen ostein, 14:30ean, bazkaria egingo dute eskolan, eta joan nahi duenak izena eman beharko du, 615 73 92 55 telefono-zenbakira deituta. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 30a da.



ARAMAIOKO KORRIKA BATZORDEA

## Korrikako lehen bilera irekia

Herriko ia eragile guztiak elkartu ziren martitzenean Korrika Kulturalaren egitaraua prestatzeko. Besteak beste, adostu zuten otsailaren 9an eta 24an Korrikako standak jartzea eta martxoaren 22an Korrika Eguna antolatzea. Hilaren 30ean, 19:00etan, kultur etxean izango da hurrengo bilera, martxoaren 22ko programa findu eta beste ekintza batzuk lotzeko.



Aretxabaleta Lanbide Eskolako kideak eta Yaakar elkarteko ordezkariak proiektuaren berri ematen, Herriko Plazan. TXOMIN MADINA

## Yaakar eta ALE, eskutik Senegalgo proiektuetan

Hiru gupildun aulki elektrifikatu egokituko dituzte Aretxabaleta Lanbide Eskolan, eta Mbam udalerrira bidali ikasturte bukaeran; Yaakar elkarteak hainbat proiektu ditu abian han, bereziki, emakumei bideratutakoak, eta orain, hezkuntzari ere heldu gura diote

**Mirari Altube** ARETXABALETAKO

Senegalgo Mbam herrian hainbat proiektu ditu abian Yaakar elkarteak 2019az geroztik. Eta iaiztik, Aretxabaleta Lanbide Eskolarekin elkarlanean dihardu. Materiala eman zieten orduan eskolakoek, eta hori Senegalera bidali ahal izateko diru-batze batzuk egin ere bai. Lankidetzari hori sendotuz joan da, eta horren erakusgarri izan zen joan den egubakoitzean Herriko Plazan egindako erakustaldia.

Batetik, Mbamera bidaliko dituzten hiru aulki gupildun elektrifikatu erakutsi zituzten, eta, bestetik, dirua batu zuten, eskolan ikasten dihardutena eginda: erizaintzako zaintza osagarrietako ikasleek, bizi konstanteak hartuta; eta galdaragintza eta mekanizatukoek, haiek egindako tresnekin prestatutako txistor-mokaduak eskainita. "Nerabeak gogotsu dabilta lanean, proiektuarekin bat egin dute eta", adierazi zuen Idoia Mendia irakasleak.

Yaakar elkarteko kideak izan ziren gonbidatuak, eta ezin pozago agertu ziren; honela zioen Amalia Ormaetxea presidentek: "Ez genuen uste gure proiektuak halako harrera izango zuenik; sekulako sorpresa izan da. Senegalen gabezia handiak daude, eta esku artean ditugun ekimenek aurrera egin dezaten laguntza benetan polita da".



**AIMAR SASIGAIN** ALE-KO ELEKTROMEKANIKAKO IKASLEA

"Orain dela lau urte egindako aulkiaren prototipoa daukagu; moldatu egingo dugu, eta erabiltzaileen ezaugarriak kontuan hartuta prestatu".

**Hezkuntza jomuga orain**

Osasungintzan eta emakumeen ahalduntzean jarri du arreta orain arte Yaakarrek; hala, osasun zentroa eta amatasun-etxea eraikitzen lagundu dute. Orain, baina, hezkuntzari ere heldu diote: "Lanbide Heziketa ikasketak sustatu gura ditugu. Poliki-poliki, baina bagabiltza pausoak ematen".



**AMINATA SENE** YAAKAR ELKARTEKO KIDEA

"Garrantzitsua da proiektua, desgaitasuna duten umeendako laguntza handia izango direlako aulkiak. Eskolarako materiala ere erosiko dugu".

## Pertsonal batzordea sortzea onartu du udalbatzak

Hamabigarren batzordea da, eta bertako kideak izango dira Gari Iturbe alkatea eta EAJko Unai Elkoro zinegotzia

**M.A. ARETXABALETAKO**

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, eta beste batzorde bat sortzea onartu zuten aho batez: Pertsonal batzordea. Udal Gobernuak proposatu zuen, eta EAJk, zalantza agertu arren hamabigarren batzorde bat sortu beharrezkin, alde bozkatu zuen. Eta han izango diren udal taldeetako kideak izendatu zituzten: Gari Iturbe alkatea eta EAJko Unai Elkoro zinegotzia. "Langileen gaineko kontuak lantzeko izango da; entzuteko eta gorabeherak

konpontzeko gune bat, besteak beste", azaldu zuen alkateak.

**Pentsiodunen mozioa**

Pentsiodunek aurkeztutako mozioa ere eztabaidatu zuten. EH Bildukoen aldeko botoekin onartu zuten eskatzea Jaurilaritari eta Legebiltzarrari 1.080 eurora arte osatzeko gutxieneko pentsioa, hamalau ordain-saritan eta atzeraeraginezko ondorioekin. EAJ aurka azaldu zen, pentsioen eskumena Mardrilgo Gobernuari dagokiolako, eta ez Jaurilaritari.

## Kiroldagiko fitness gela itxita bihurtik hilaren 23a bitartean

Ibarra kiroldegiko fitness gelan konponketa lan batzuk egingo dituzte, eta ekipamendu berria eroango dute. Horregatik, itxita izango dira areto hori eta kardio gunea urtarrilaren 19tik 23a arte.

Zoru tekniko handituko dute eta eremu multifuntzional bat gehitu, makina eta ekipamendu gehiago jarrita.

## Hezitzailea behar du Loramendik hizkuntza errefortzuetarako

Hezitzailea behar du Loramendik otsailetik apirilera arte lan egiteko: astean hamar ordu, astelehenetik eguenera, arratsaldeetan. Euskalduna izatea eskatzen da, eta bigarren mailako Lanbide Heziketa, gradua edo diplomatura-lizentziatura titulua. Curriculumak urtarrilaren 21a baino lehen bidali behar dira: [euskara@loramendielkartea.eus](mailto:euskara@loramendielkartea.eus).

## GORA ETA BEHERA




## Urkuluko begiratokiko bidea, irristakor

Urkulu urtegiaren bueltan dagoen begiratokira iristen saiatu den herritar batek adierazi du ezin izan dela haraino iritsi: "Oso-oso labainkor eta arriskutsu zegoelako bidea". Eta horretarako konponbidea ere badu: "Metalezko sare bat jartzen badute, konpondu!".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

edo 688 69 00 07.





# Hitanoaren bueltan elkartutako lagunak

Hika hitz egiteko batzen dira bi talde aurtengo ikasturtean, eta hirugarren bat ere badago eratuta. Emakume eta gizon, gazte, heldu zein erretiratu elkartzen dira: batzuk, ikasteko asmoz; eta guztiak, mingaina askatzeko gogoz

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Hikapraktika ekimena Aretxabaletan ere abian da, Loramendi elkartearen eskutik –interesa dutenek hara jo dezatela–, eta hiru talde daude sortuta gaur egun. Astean ordubetz elkartzen dira eta hirurek dute lanleku taberna bateko mahaiaren buelta. Ez dira kuadrillako lagunak, ezta guraso taldeak edo lankideak ere; hitanoak batu ditu adin, ezaugarri eta egoera ezberdina duten herritarrek eta "gogotsu" dihardute mingainari eraginez.

**Lotsa alboratu, eta egin**

Jasone Gorroño eta Mila Zubizarreta dira beteranoenak, eta egunerokoan hitz egiteko ohitura ere badute. "Nik beti egin izan dut. Pentsa, Laboral Kutxan lan egiten nuenean, hara etorritako mutil guztiei egiten nien hika; baten batek noizbait belarrondoko bat emango zidala pentsatu izan nuen, askok ez dutelako gustuko", dio Gorroñok. Zubizarretak ere hala egiten du: "Baina alabari, adibidez, ez; ez dakit zergatik... Uste dut urte askoan desprestigiatura izan dela, eta, horren eraginez ere, kalean oso gutxi entzuten da".

Gazteagoak ere sartu dira taldeetan, ikasteko eta erabiltzen hasteko gogoz. "Entzun eta eza gutu arren ez dut sekula erabili, eta lotsa eta beldurra kendu eta mingaina askatu nahiko nuke", azaldu du Leire Langaranek. Berretsi egin du hori Jon Egidazuk, baita Orkatz Askasibarrek ere: "Nostalgia puntua ere badago. Aitajaunei eta amandreei entzuna diet anai-arreba artean hitz egiten. Lagunen artean ere egin izan dut neuk, mutilen artean".

Xabier Ormaetxeak, ostera, transmisioa bermatzea gurako luke: "Penatuta ikusten dut transmisio falta. Orain, aplikazioa martxan dago, eta ea, ba, zerbait lortzen den".



Zubizarreta, Gorroño, Egidazu eta Elortondo, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

## Pandemia aurretik hasitakoak

2019az geroztik, eguaztenean elkartzen dira Mila Zubizarreta, Jasone Gorroño eta Oier Etxebarria; ondoren, Virginia Elortondo sartu zen; eta azkenak batzen Nerea Altuna eta Jon Egidazu izan dira. Pandemia sasoiaren ere ez zuten hutsik egin, online elkartuta.



Egidazu, Langaran, Ormaetxea eta Askasibar, mahaiaren bueltan. M.A.

## Talde hasiberria, "gogotsu"

Astelehen iluntzeetan elkartzen dira Jon Egidazu gatzagarra eta Leire Langaran, Xabier Ormaetxea eta Orkatz Askasibar arrasatearrak. Bigarren saioa izan dute astean, eta, hika jardun eta hitz eginez, "ikasteko gogotsu" daude.

## Demode Quartet taldeak 'A kupela' ikuskizuna eskainiko du

Ahotsa eta umorea bakarrik erabilia egingo du kontzertua aparteko musikariekin osatutako laukoteak

**M.A.** ARETXABALETA

Joli Paskualena, Iker Huitzi, Santi Romano eta Karlos Ngema abeslariak osatutako Demode Quartet taldea bueltan dator Aretxabaletera, eta oraingoan, *A kupela* ikuskizuna eskainiko du. Gaur izango da hori, Arkupen, 20:00etan, eta sarrerak online zein leihatilan eskura daitezke, 5 eurotan.

Orain dela hamabi urte hasi zuten ibilbide taldeak, eta musika ulertzeko modu dibertigarri eta berezia du; betiere, lekua eginez umoreari eta jolasari.

Ahotsa da euren *instrumentu* nagusia, baina beste batzuk ere erabiliko dituzte: gitarra, pianoa eta *beat box*-a, esaterako.

2021ean, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* ikuskizuna sortu zuten, eta musika-ikuskizun onenaren Max saria jaso zuten. 2022an, ostera, *La Voz* ekimenean hartu zuen parte: "Erronka zaila eta aldi berean kitzikagarria".

Orain arte erabili ez dituzten esperimendu eta ahots-sorpresa batzuekin osatu dute *A kupela*; goi mailako 80 minutuko emaldi dibertigarria.

## 'Kortxoaren dilema' antzezlanaren bihar, Telleria eta Martinezekin

Endredozko thriller politikoa da, eta etika, koherentzia, traizioa eta mendekua izango dituzte hizpide

**M.A.** ARETXABALETA

Patxo Telleria antzerkigileak idatzitako eta Mireia Gabilondok zuzendutako *Kortxoaren dilema* lana taularatuko du Tartean Teatroa konpainiak zapatuan, hilaren 20an, Arkupen, 19:00etan; sarrerak online edo leihatilan eros daitezke, bost eurotan. Telleria bera izango da oholztan Mikel Martinezekin batera, eta politika, etika, traizioa eta mendekua batuko dituen istorio dibertigarria eskainiko dute. Minbizia duen ezkeraren erreferente intelektual batek, hau-

tatu beharko du printzipioei leial izan edo "prakak jaitsi" eta aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan eman dion ekipamendu batekin tratamendua hartu.

**Ekain pailazoa domekan**

Domekan, ostera, *Slapstik* ikuskina eskainiko die Ekain Ibar-guren pailazo azpeitiarrak neska-mutikoei; 17:00etan izango da, Arkupen; sarrera 3 euro da. Trikimailuak, umorea, zirkuko jokoak eta beste hainbat jolas uztartuko ditu.

## Mozorroren bigarren eskuko azoka antolatu dute biharko

Aratusteetako mozorroei eta osagarriei bigarren bizitza bat emate aldera, Karnabalen Lagunak taldeak bigarren eskuko azoka deitu du biharko, urtarilaren 20rako. Herriko Plazan egingo da "truke-salmenta azoka", 12:00etan, eta edonork parte hartu ahal izango du. Herri-tarrak gonbidatu dituzte hara joan daitezten.



Durana 15  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Joan den astean jarri zituzten aldordioak Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiaren kanpoaldean, lanak hasteko. Beste solairu bat egingo dute kiroldegian, eta hiru gune izango dituen gimnasioa eraikiko dute han.

Burgosko Aplibur enpresak egingo ditu lanak, eta azken urteetan izandako eskaera handiari erantzuna emateko egin beharreko lanak direla adierazi du Asier Urzelaik, Manuel Muñoz kiroldegiko arduradunak. "Urtero izan dira herritarren kezak eta eskaerak, eta, batez ere, gimnasioarengatik. Lehenengo solairuko gunea oso txikia da, eta beste gune bat sortu genuen bigarren solairuan. Hala ere, ez da nahikoa... Behin eskaerak formalizatuta eta Eskoriatzako Udalak lanak egitea begi onez hartuta, dagoeneko hasi dira. Erabiltzaile kopurua asko hazi da azken urteetan; unibertsitateko ikasleak direla-eta, arratsaldeetan, batez ere, beteta izaten dugu. Azken finean, gimnasioa txiki geratu zaigu, eta lan horiekin konponbidea emango diogu arazoari. Behar den moduko gimnasioa izango dugu, eta erabiltzaileak pozik etorriko direlakoan nago".

#### Edukiera hirukoiztu egingo da

Hirukoiztu egingo dute Manuel Muñoz kiroldegiko gimnasioaren edukiera, metro karratuetan. Izan ere, beste solairu bat egingo dute, eta itxi egingo dute beiratearekin. Muskulatura lantzeko makina berriak jarriko dituzte, eta kiroldegi osoa alderik alde zeharkatuko du eremuak, pasabide batekin. Hiru gune izango ditu, eta apustu sendoa dela azaldu du Mikel Luengok, Eskoriatzako Udaleko Kirol zinegotziak: "Proiektu honekin

# Solairu bat gehiago, gimnasio berria egiteko

Kiroldegiko gimnasioak duen erabiltzaile kopuru handiari konponbidea emateko lanak Burgosko Aplibur enpresakoak hasi dira egiten, eta, aurreikusten dutenez, hiru eta lau hilabete artean iraungo dute; hau da, maiatzerako erabilgarri izango da



Mikel Luengo –Eskoriatzako Udaleko Kirol zinegotzia– eta Asier Urzelai –Manuel Muñoz kiroldegiko arduraduna–. IMANOL BELOKI

216 metro karratu inguru irabaziko ditu kiroldegiak, eta gimnasioak, berriz, 180 metro karratu. Lanak hasi dituzte, eta, aldordioak jarrita ostean, pasta bat jarri dute lehenbizi; ondo sikatu ostean etorriko dira geroakoak. Beharrezko lana dela uste dugu, egin beharrekoa, eta, modu horretan, gimnasioaren edukieren arazoari konponbidea

emango diogu. Aurreikusten dutenez, hiru hilabete eta erdi edo lau hilabete inguruan amaituta izango dituzte lanak; hau da, maiatzerako erabilgarri izango da".

#### Inbertsio handiko lana

Kiroldegiko obrak 390.000 euroko kostua izango du, eta beste 150.000 euro bideratuko

dira hobekuntzentzat eta makina berrientzat. 2024ko udal aurrekontuetako inbertsio nagusien ataleko gastu osoaren 100.000 euro bideratuko dituzte ekipamendurako eta hobekuntza lanetara bideratzeko, eta falta dena soberakinetik ordainduko dute. "Diru aldetik apustu sendoa da, baina uste dugu merezi duela

eta kirola egiteko gune ederra geratuko dela", adierazi du Luengok.

#### Erabiltzaileentzako oharrak

Obrek ez dute kiroldegiko jarduerara etengo. Hala ere, zenbait ohar aurreratu dituzte, nahiz eta ohar bidez jakinaraziko dizkieten erabiltzaileei. Bate-tik, astebetez itxita egongo da zumba eskaintzen duten gela, hirugarren solairuko pasarela egiteko. Hala ere, jarduerak ez dira etengo; izan ere, saio horiek Ibarraundi museoen egingo dituztela adierazi du Urzelaik. Bestetik, obrak amaitzear daudela, azken hiru asteetan igogailua berritu egingo dutela adierazi dute. Eta lanek iraun bitartean ezingo da igogailua erabili. Hala ere, erabiltzailearen batek laguntza behar izanez gero, harrerako langileak bertan izango direla azaldu zuen Luengok. Azkenik, azken bi asteetan itoginak konpontzeko lanak egiten ari direla ere jakinarazi dute, eta lan horretan jarraituko dutela ere azaldu dute, erabiltzaileei oztoporik sortu gabe. "Itoginekin arazoa aspalditik izan dugu, eta konpontzen hasi ginen duela bi aste. Sabaiko lan horiek egitea ez da erraza, eta guneka ari dira itogin horiek konpontzen; beraz, konponteta lan horiekin ere jarraituko dute datozen asteetan", adierazi du Urzelaik.

## AURREIKUSPENEN ARABERA, HIRU ETA LAU HILABETE ARTEAN IRAUNGO DUTE LANEK

## Eskoriatza Lagunkoiako kideek berrartu egin dute egitasmoa

Erretiratuen proiektua aurkezteko bilera egin dute Edorta Zubizarretarekin eta Dorleta Sologaitzarekin

#### I.B. ESKORIATZA

Interesdunei jakinarazi nahi die pandemia atzean utzita euren jarduerari berriro ekitea erabaki dutela –ekarpenak egiteko, [eskoriatzalagunkoia@gmail.com](mailto:eskoriatzalagunkoia@gmail.com) helbidera idatzi daiteke-. "Gure

lan-ildoan herrian sor daitezkeen hobekuntzen ingurukoa da. Taldeko kide izateko baldintza bakarra erretiroa hartzea da, eta proiektu batean islatzea. Hala, aurreko urteetan hobekuntzak gauzatu ahal izan genituen he-

rrian, alderdi urbanistikoetan, baita gizarte-ongizatearen hobekuntzarekin lotutako gaietan ere". Proiektua aurkezteko bilera egin dute Edorta Zubizarreta alkatearekin eta Dorleta Sologaitzarekin, Gizarte Ongizate zinegotziarekin. "Egin gabe geratu zirenen berri ere eman diegu; adibidez, aulki gurpildun bat plaza paretik pasatzeko galtzadaren jarri bako pasoa jartzea, irisgarritasun lan batzuk, garraio publikorako hobekuntzak, ordenantza etxeko animalien dako...



## Berritu egin dute Luis Ezeizako Haur Hezkuntzako eraikina

Kristalezko hormak jarri dituzte eta komunak berritu eta lekuz aldatu; emaitzarekin "pozik" agertu dira

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA Luis Ezeiza Herri Eskolako Haur Hezkuntzako eraikinean, Eskoriatzako bibliotekako eraikinean, 2 eta 5 urte bitarteko haurren eremuan, berrikuntzak egin dituzte. Besteak beste, espazioak banatzeko kristalezko hormak eraiki dituzte, horrela oztopo bisualak ekiditeko eta argi naturala gela barruraino sartzeko. Horrekin batera, komunak berritu dituzte eta lekuz aldatu; hala, gelatik komunetarainoko distantziak murriztu egin dira.

### Espazio aldaketa

"Orain, gelatik komunitara sarrera izango dute haurrek, eta alderantziz. Modu horretan, haurren autonomia sustatzea da asmoa. Gelak altzari eta material berriekin hornitu dira, ingurune estimulatuak sortzeko helburuarekin. Haurrak zer egin nahi duen aukeratu eta

askatasunez mugitzea baimentzen duten espazioak sortu dira. Hori guztia, aniztasuna errespetatzeko, bakoitzak bere motibazio eta interesen arabera jarduteko eta modu naturalean garatzeko helburuarekin", Luis Ezeiza eskolatik adierazi dutenez.

### Egindakoarekin konforme

Irakasleak "oso pozik" azaldu dira aldaketek izan duten erantzun positiboarekin. Espazioak ziurrago eta dinamikoago bihurtu direla diote. "Helburua haurren garapenean onerako eragitea izan da. Bi lan egin dira: batetik, Hezkuntza Saitetik bideratutakoa; eta, bestetik, Eskoriatzako Udalak egindakoa. 42 ikasle ditugu 2 eta 5 urte arteko haurren eremuan, eta egin beharreko lanak ziren", adierazi du Eneritz Dorronsorok, Luis Ezeizako Haur Hezkuntzako irakasleak.



Luis Ezeizako Haur Hezkuntzako gunea berrituta. LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

## Zoriontasun osoaren utopia aztergai duen antzezlana domekan

Alanbike Teatro konpainiaren *Mi hermana y no yo* antzezlana izango da ikusgai domeka honetan, 19:00etan, Zaldibar antzokian. Testuinguru utopiko batean, guztiz zorionsu den pertsona bat esnatuko da, kezkarik gabe, beldurrik gabe, supergizaki bat dena... Sarrerak bost eurotan egongo dira salgai aldeztu aurretik.

## 'El buen trato' hitzaldia izango da urtarrilaren 23an

Olaraz Erretiratuen Elkarteak antolatuta, urtarrilaren 23an, *El buen trato* izeneko hitzaldia izango da kultura etxean, 18:00etan. Bi ordu iraungo du saioak, eta sarrera librea izango da, aretoa bete arte. "Uste dugu garrantzitsua dela adinekoekiko dagoen tratua gainean hitz egitea", azaldu dute Erretiratuen Elkarteak.



Aratz Oñederra eta Nerea Elorza, Bolivian, Huayna Potosi mendiaren gailurrean. AMETS OÑEDERRA

# Goi lurretan zehar ibili, eta euren ametsa bete

Aratz Oñederra eta Nerea Elorza Latinoamerikan izan dira ia urtez. Txilen lanean zazpi hilabetez egon ostean, bueltarako hegaldia hartu beharrean Andeak zeharkatu dituzte, Perun hasita; Bolivia zeharkatu, eta Argentina osoan zehar bidaiatu dute

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA Latinoamerika ezagutu gabe etxera ezin zirela itzuli ohartuta, hiru hilabeteko bidaiak egin dute Aratz Oñederra gatzagarrak eta Nerea Elorza aretxabaletarrak Latinoamerikan. Santiagotik (Txile) Perura hegaldia hartu, eta, handik hasita, Andeetako lurraldeak ondo baino hobeto ezagutu dituzte, Patagoniara iritsi arte. Hiru orrialdetan laburtu dute bidaiak, zenbait gomendioekin, eta hain ezagunak ez diren eta bisitatu beharreko tokiak aipatu dituzte *-Goiena. eus-en daude-*.

### Bihotza beteta

"Esan genezake bizitzako erabakirik onena hartu genuela. Hiru hilabeteko bidaiak honetan, izan dugu zer ikusi, ikasi eta zer kontatu. Badira gure emozio aldakorren errudun izan diren milaka istorio, idatzita ere motz geldituko direnak, seguru. Goi lurretan zehar, Perun hasi eta Txile hegoaldera iritsi arte topo

egindako herritarrekin zein faunarekin bizitakoa magikoa izan da. Andeetako lurralde garrietan harrera ona egin ziguten familiek; etxean bezala sentiarazi gaituzte. Euskaldunok aimorekin, kitxuekin, diagitekin zein maputxeekin uste duguna baino antz handiagoa dugula ohartu gara".

### Aklimatazio gogorra

Santiago atzean utziz iritsi ziren Perura, eta Liman hasi zuten bidaiak Oñederrak eta Elorzak. "Ordubetez Liman egon eta gero, Huaraz-era joan ginen; 0 metrotik 3.000 metrora takada batean. Mendilerro zuria ezagutu genuen; izenak garbi dioen bezala, zuriz estalitako tontor handiz ingu-

ratutako paraje hura. Andeetako mendikate zuria parez pare izanda, txiki sentitzen ginen erraldoi haien aurrean, baina han ikusi genuen Vallunaraju; hankak mugimenduan jartzeko aukera paregabea. Ancash eskualdeko kitxua hizkuntzan mendi hark badu bere esanahia, behin mendi puntan geundela ulertu genuena: *Ametsetako Mendi*. Pixkanaka-pixkanaka, hango arbasoen hizkuntza zaharra ezagutuz joan ginen. Begiz jota genuen beste inguru magiko bat Hatun Machay izan zen. 4.000 metrora dagoen harrizko baso galanta; horregatik, haren izena *Kobazulo Handia* da kitxuz.

Bidaian aurrera joan ahala, Titikaka aintziran Bolivia agurtu genuen, eta Argentina osoan ere egin genuen. Argentina iparraldean bidaiari askok gomendatutako heldulekua izan zen; Patagoniaren kontrako: pobrezia handia, beroa... Bisitatze moduko lekua dela esango nuke".

## HIRU HILABETEKO BIDAIA EGIN DUTE LATINOAMERIKAN OÑEDERRAK ETA ELORZAK



Angiozarko alkate Mila Elorza AHTaren lanak seinalatzen, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

# "Faktura handiko obra" Angiozarren

Abiadura Handiko Trenaren lanak egunerokoan ari dira pairatzen Angiozar bailaran, besteak beste, gau eta egun etengabe dutelako zarata handia; horrez gain, asteon "beste behin" salatu dute obrak hasi aurretik garbi zuten erreka "urte luzeetarako" zikindu dutela

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Abiadura Handiko Trena egiteko lanen ondorioak egunerokoan ari dira pairatzen Angiozarren. Azken hilabeteotan etenik ez duen obra da, zarata handia eragiten duena egunez eta gauez, eta obrak hasi aurretik garbi zegoen Angiozar erreka "urte luzeetarako" zikindu dutela salatu dute. Martitzenean erreka kolore gris nabarmena zuela esnatu ziren bizilagunak, eta argazkiak bidali zituzten komunikabideetara, esanez, besteak beste, ez dela lehen aldia.

## Zikinkeria erreka azpian

Angiozarko alkate Mila Elorzak dioenez, egun batzuetan urak dagokion kolorea berreskuratu arren, zikinkeria azpian gertatu da: "Egun gutxira joango zaio urari kolore grisa, baina obrako zikinkeria azpian gera-

tuko da; orain arte, beti sartu izan gara erreka udan, eta iaz konturatu ginen umeak etxera hankak beltz zituztela itzuli zirela. Urte luzeetarako zikindu digute erreka".

Angiozarko bizilagunak obra hasi eta berehala ohartu ziren erreka isurketak izaten zirela, eta, egoera salatu ostean, araztegi bat jarri zuten. Horrek ahalbidetu du, Elorzaren arabera, isurketak egunerokoan nahiko kontrolatuta egotea, baina euri apur bat egiten duenean gainezka egiten duela dio: "Ez du euri askorik egin beharrik araztegiak gainezka egin dezan. Ur zikin guztiak leku berera daude desbideratuta, eta, askotan egiten du gainezka".

**"Interes orokorraren" izenean** Jaurlaritzan, Ura agentzian eta beste administrazio batzuetan

jarri izan dituzte salaketak; azken, urtarrilean bertan isurketak eta obrek Goimendiko iturburua lehortu dutela salatzen. Hala ere, erantzuna beti izaten da antzerakoa, Elorzaren arabera: "Gehienetan esaten digute baietz, obraren gainean daudela. Hala ere, proiektu hau interes orokorrekoa dela esaten digute, eta, beraz, denboraldi batean sufritu beharreko gaitza. Askotan esan izan digute obra amaitzen denean ahalik eta txukunen lagatzen saiatuko direla, baina imajinatu dezakegu zer gertatuko den... Natura zikintzea

## "DIRUA ETENGABE XURGATZEN ARI DEN MAKINA BAT DA AHT-A; EZ DU IRTEERARIK"

MILA ELORZA, ANGIOZARKO ALKATEA

## Angiozar errekaen egoera asteon



Angiozar erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen tokia, Labegaraietan. A.B.B.

**Labegaraietan** Angiozar erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen tokia Labegaraietan, martitzen goizean; Deba ibaiarekin alderatuta, agerikoa da Angiozar erreka kolore grisa.



Elorza, Angiozar erreka bainutokietako bati begira. J.B.L.

**Bainatzeko putzuak** Modu naturalean egindako presen bidez, udan ohitura dute herritarrek erreka bainatzeko, Osinen edo goiko irudiko putzuan. Aurten ez dakite bainatu ahalko diren.

eta hondatzea di-da batean egin daiteke, baina gero, denbora asko behar izaten du naturak egoerari buelta emateko".

## "Diru lapurreta bat da"

Atzera eginda, Elorzak gogoratu du 30 urte daramatzatela AHTaren aurka borrokatzen: "Bete dira 30 urte proiektu hau astakeria bat izango zela esaten. Informazioa batu eta bizilagunei bideratu, herri galdeketa bat ere egin genuen hasi aurretik, bizilagunon kontrako iritzia argi uzten zuena... Eta behin hasita, gure susmo txarrenak bete dira; irla bat da, ez duena irteerarik inora ere. Denon dirua etengabe xurgatzen dabilen makina bat da; honek ez dauka ez etorkizunik eta ezta irteerarik ere. Diru lapurreta bat da, argi eta garbi". Bizilagunak etsita ikusten dituela ere gaineratu du auzo-alkateak: "AHTak

eragingo zuen triskantza ikusita, ilusioa banuen auzotarrak mobilizatu egingo ginela, baina, arrazoi bategatik edo besteagatik, jende gutxi mugitu da benetan proiektu honi aurre egiteko".

Gainera, haserre daude Angiozarren, bailarara begirako eskaera txiki bat egiten dutenean "hainbat oztopo" jasotzen dituztelako: "Madril eta Paris lotu nahi dituen proiektua egiteko dirua etengabe ari dira xahutzen, angiozartarrok, bergararrak, debagoiendarrak eta euskaldunak ez dituen aintzat hartzen. Horrelako proiektu baterako dirua etengabe bideratzen dute, baina gero, beheko baserri bat goiko baserriko batekin lotuko duen bidexka bat eskatzen dugu edota beste edozein txikinkeria bat, eta horiek gauzatzeko arazoak besterik ez dugu aurkitzen administrazioan".

# Hilerriko kapera berritzen amaitzeko, hiru hilabete

Matxiategiko hilerriko elizaxoa zaharbertzeko lanak apiril erdialderako amaituta egotea espero du Udaleko zerbitzu teknikoak, ondare ikuspegitik erakin babestua izateak "obra zaila" izatea dakarren arren; proiektuaren aurrekontua da 136.234 euro da –BEZa barne–

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Aspaldikoa da Matxiategiko hilerriko kapera berritzeko beharra. Lanak 2023ko azaroaren 15ean hasi ziren, eta, proiektuak bost hilabeteke exekuzio-epea duenez, 2024ko apirilaren 15erako lanek amaituta egon beharko lukete. Harri Construcciones y Manposteria enpresari esleitu zion Udalak proiektua, 136.234 euroko aurrekontuarekin –BEZa barne–, bereziki kaperak zituen bi arazo konpontzeko: batetik, fatxada nagusiko arkuaren mugimendua; eta, bestetik, ondoko eraikinaren estalkiaren kokapena.

## Babestua izateak, zaildu

Horretarako, honako lan hauek egiten ari dira kaperan: fatxada nagusia garbitu; zorrotenetan jasotzen diren euri-urak behar bezala bideratu, aurreikusitako kutxeten bidez eta PVCzko hodi berri batez –lurpeko ur-kopurua mantentzea da helburua–; fatxada nagusia eta albokoak zaharberritu; zurezko egitura egonkortu kontserbaziorako irizpideak lehenetsita; eta, azkenik, kanpoko arotzeria berreskuratu.

Udaleko zerbitzu teknikotik adierazi dute eraikin zaharra eta babestua izateak esku-hartzea zaildu egiten duela: "Ondare historikoa zaharbertzeko obrek



Obretan dagoen hilerriko elizaxoa, atzo goizean. NEKANE MUNOZ

eraikuntza-arauei eta kultura-ondasuna mantentzeko, errespetatzeko eta kontserbatzeko irizpideei erantzun behar diete. Kasuistika berezi horrek areagotu egiten du jardunaren ziurgabetasuna; hasierako aurreikuspenak alda daitezke, babestutako ondasuna denez ezin direlako beste eraikin mota batzuetan egin daitezkeen demuntatzeak eta eraispinak egin". Horren adibide da obra hasi eta gutxira langileek segurtasun osoz lan egiteko fatxada nagusiko arkuak dagokion lekura

erroteko zenbait egokitzapen egin beharra.

## Berandu hasi, baina "martxan"

Hilerriko ermita berritzeko lanen hasiera atzeratu egin bada ere, Udaletik azpimarratu dute "martxan" dagoela: "Patologiak aurkitu ondoren, jarraipen zehatza egin behar izan da behin betiko irtenbidea emateko. Horretarako, igeltsuzko lekukoak jarri ziren, eta alboko eraikinaren fatxada eta estalkia finkatu ziren... Eta beharrezko informazioa bildu ondoren, proiektua idatzi zen".



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

## Amorrua indar

Etxejabeak alokairua igo dit eta ezin dut ordaindu. Joan den astean desokupazio-enpresa bat bidali zidan, bertatik atera nendin. Sarraila aldatzen ere saiatu da, eta argia moztuko didala mehatxu egin dit. Klean utzi nahi nau, eta ez dakit zer egin.

Beste etxegabetze bat zerrenda luzean. Praktika ilegale bidez, eta instituzioen ezikusiarekin. Lan bat izan eta etxebizitza mantendu ezin, etxegabetuen %66,1ek bezala. Hori da errealitatea, eta joerek erakusten digute gero eta ohikoagoak izango direla etxegabetzeak, azpierreantak eta, oro har, miseriazko bizi-baldintzak. %53 igo da etxerik gabeko pertsonen kopurua EAEn, eta instituzioen neurriak ez dira joera hau gelditzeko gai.

Etxebizitzaren sarbidearen arazoari guk geuk errotik heltzeko ezinbestekoak dira Etxebizitza Sindikatu sozialistak; etxegabetze guztien aurka, etxegabetzerik existitu ezingo den gizarte baten alde egiteko. Urtarrilaren 20an dugu hitzordua, Bergarako UNEDen, 11:30ean, bailarako Etxebizitza Sindikatua eta etxegabetzeen aurkako ekintza gida aurkezteko. Bihur ditzagun amorrua eta ezintasuna indar antolatua.

## GORA ETA BEHERA



## Plastikozko hondarrak erreka bazterrean

Autobus geltokiaren ondoan atera du goiko argazkia irakurle batek: "Plastikozko pinportak itsasoan eta plastikozko hondarrak erreka bazterrean. Lotsagarria! Zertarako daude zaborrontziak?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo [688 69 00 07](tel:688690007).

## OHARRAK

### Ikasfest: sarrerak

DBHko 4. mailako ikasle talde batek ikas bidaiarako dirua lortzeko jaialdia antolatu du otsailaren 3rako gaztetxean: Laino Beltzak, Hankaz Gora, Zatekeen eta Iltze. Sarrerak Arrano tabernan daude salgai.

### Wikipedia maratona

Wikipedia editatzeko dei egin dute; hilaren 23an, Ehunduko bulegoan (18:30).

**UGARTE**  
AROTZEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROTZEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugartearoztegia.com](mailto:aroztegia@ugartearoztegia.com)

**21**  
**K**  
KALITATEA

Enteina Registrada N°006025

*Sugoi*

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

*Kabutzia*

**ARRANDEGIA**

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

# Organo berritua heltzen denerako lanean ari dira

San Pedro elizako 1889ko Stoltz Freres organoa birgaitzeko prozesua "martxa onean" doa. Michael Jaurin organogile frantziarraren Lyongo tailerreko lanez gain, Artez estudioko langileak ere buru-belarri ari dira organoaren kutxa eta hango figurak garbitzeko lanetan

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA 2021eko uztailean iragarri zuten San Pedro elizako Stoltz Freres organoa zaharberitzeko finantzaketa lortu eta Lyonera (Frantzia) eroango zutela, 2.343 tutuz osatutako pieza baliotsua konpontzeko. 468.103 euroko aurrekontua dute berritze lanek, eta, organo-jole titular Aitor Oleak asteon adierazi duenez, espero dute ekainaren 29ko San Pedro eguneko ospakizunean estreinatu ahal izatea organo berritua: "Azaroan Rontalen [Lyon, Frantzia] egon nintzen, eta organoaren berritzea martxa onean doa; prozesuaren %60 inguru eginda eta ordainduta dago. Birgaitze lanak dira, ez da lan osagarririk egingo; helburua da organoak jatorrian zuen soinua berreskuratzea". Bergaran lehen aldiz 1889ko martxoaren 18an entzun ahal izan zen organoa.

**Artez estudiokoak ere lanean** Hodien zati handi bat berreskuratuta eta San Pedro elizako koruan gordeta dago, apirilean Michael Jaurin organogile frantziarrak Lyongo tailerrean pieza guztiak birgaitu ondoren, nazioartean ezaguna den pieza berreraikitzen hasteko zain. Stoltz-Freres organo handi bakarra da, haren jatorrizko egoe-



Artez estudioko Aiora Elkoro, Aida Paya eta Maite Fernandez. TXOMIN MADINA

## ORGANO BERRITUA EKAINAREN 29KO SAN PEDRO EGUNEKO OSPAKIZUNEAN JOTZEA ESPERO DUTE

ratik gertuen dagoena mundu osoan; dituen soinua ezaugarriak bakarrak dira, interpreteek asko estimatzen dituztenak.

Lyongo lanekin batera, Artez zaharberitze estudioko langileak ere buru-belarri dabilta

organoaren kutxa eta haren gainean dauden figurak garbitzeko lanetan, eta sorpresa berezi bat topatu dute. "Aldamioa jarri eta sei metrora lanean jarri garenean deskubritu dugu Santa Ageda zela uste zena Ama Birjina zela; izan ere, atzean Jesus haurtxoa topatu dugu lagata", dio Maite Fernandezek. Figura horiek organoaren kutxa muntatu ostean jarri ziren eta Fernandezek ziurtatu du behin organo berritua muntatzen denean figura haiek euren lekura itzuliko direla.

## Askotariko lanak aldamiara igota

Artez estudioko Maite Fernandez, Aiora Elkoro eta Aida Paya joan den astean hasi ziren San Pedro elizako koruan jarrita dagoen aldamiu gainean lanean, kutxa eta han XVII. mendetik –aurreko organoaren garaitik– dauden figurak garbitzen: "Figura horiek organoaren parte dira eta hala izaten jarraituko du organo konpondua jartzen dutenean ere", dio Fernandezek.



Artez estudioko langileak figurak garbitzen, San Pedro elizan. TXOMIN MADINA



BERGARA KIROL ELKARTEA

## BKE: zozketa handiko irabazleak

BKEko futbol sailaren urteko zozketa handiena izaten da Gabonetakoa. Joan den asteburuan banatu zituzten sariak –argazkian–: lehen saria, saski erraldoia, Mari Carmen Chascok irabazi du; bigarren saria –patinete elektrikoa–, Iban Agirrebeñak; hirugarren saria –asteburu baterako opari-tartela–, Danel Plazaolak; eta laugarren saria –telebista–, Martin Da Silvak.

## Sarrabete taldearen folk doinuak gaur Seminarixoa (20:00)

Sarrabete folk taldeak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 19, Seminarixoa (20:00). *Txori arraina* izeneko diskoa aurkeztera etorriko da folk taldea, eta gaur egun boskote formatuan dabilta: Gorka Bravo –zarrabetea–, Pablo Bueno –gitarra eta koruak–, Irati Bilbao –ahots nagusia, perkusioak eta kalimba–, Nerea Quincoces –perkusioa eta koruak– eta Jordi Arcusa –baxu elektrikoa–. Taldea sortu zenean, 2020ean, Leire Etxezarreta arrasatearra izan zen abeslaria. Gaurko kontzertuan abesti propioak izango dira protagonista; betiere, euskal folklorean ezagun diren melodia eta erritmoak bidelagun. Sarre-raren prezioa zortzi euro da.

## Belako eta J. Martina ikusteko sarrerak gaur salgai, 19:00etan

Urtarrilaren 27an, Belako eta J. Martina taldeek joko dute kartzela zaharrean, 22:30ean hasita. Gaztetxea bete egingo dela aurreikusita, antolatzaileek erabaki dute sarreraren salmenta ohikoa ez den moduan antolatzea. Hala, sarrera fisikoak gaur jarriko dituzte salgai, hilak 19, kartzela zaharrean bertan, 19:00etan. Gehienez lau sarrera salduko dira gaur pertsonako, eta, sarrera guztiak salduko ez balira, urtarrilaren 25erako beste hitzordu bat zehaztuko lukete. Gainera, kontzertu egunean bertan gutxienez 30 sarrera jarriko dituzte salgai gaztetxe-ko atean; sarreraren prezioa zortzi euro da.

## Kukubaso: landaketa Sanmartzialaldea lur eremuan hilaren 28an

Royde enpresak San Martzial inguruan laga berri dion lur eremua baliatuko du Kukubaso elkarteak beste zuhaitz landaketa bat egiteko. Royde enpresaren eta Udalaren laguntzarekin antolatu dute; urtarrilaren 28an San Martzialgo ziburuetan elkartuko dira, 10:30ean. Landaketa Sanmartzialaldea izeneko eremuan egingo dute: "Bertako

espezietako 250 zuhaitz landatuko ditugu, habia-kutxa, saguzar-etxola eta intsektuendako hotel eta guzti. Lanak amaitutakoan, goiza ederki borobiltzeko, Royde enpresari esker hamarratekoa egongo da".

Izena emateko, Kukubasorekin jarri behar da harremanetan, formularioa beteta –[labur.eus/kukubasoizenematea](mailto:labur.eus/kukubasoizenematea)– edo [kukubasoelkartea@gmail.com](mailto:kukubasoelkartea@gmail.com) helbide elektronikora idatzita; eskatu dute egun horretan San Martzialera oinez igotzeko.

# Batuta aldaketa naturala eskolako Gazte Bandan

Aurten 40 urte betetzen dituen Bergarako Musika Eskolak zuzendari aldaketa izan du Gazte Bandan. Azken 28 urteetako zuzendari Alberto Laskurainek eskolako irakasle Txus Arriaran pasatu dio lekukoa; diotenez, "oso modu naturalean" gauzatu dute

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Umetatik dute harreman estua Bergarako Musika Eskolarekin Alberto Laskurainek eta Txus Arriaranek. Ikasturte honetan 40 urte beteko ditu Bergarako kultura arloan oso garrantzitsua den eragileak, eta badituzte aurreikusita hainbat ospakizun; aurrerago iragarriko dituzte ospakizun-ekitaldi horiek.

## 28 urte Gazte Banda zuzentzen

Hain zuzen ere, Laskurain izan zen duela 40 urte musika eskola abiatu zuen taldeko kideetako bat: "Ilusio handiarekin ekin nion. Dena zegoen sortzeko; hutsetik hasi ginen. Urteek aurrera egin ahala hazten joan da, gaur egungo eskola izateraino. Ekitaldi esanguratsu bat dagoenean, herrian ia beti dago musika eskola presente". Akordeoia nola jo irakasten hasi zen, eta geroago etorri ziren tronboia, tuba eta bonbardinoa, eta baita hizkuntza musikala eta harmonia irakasteko eskolak ere. Eta 1995etik 2023ra Gazte Banda zuzentzen ere aritu zen: "Gazte Banda 1986an hasi zen martxan, Angel Agirianoren zuzendaritzapean. Gazte Bandan tronboia jotzen nuen, eta 1995ean Angelek utzi zuenean nik hartu nion lekukoa. Bizipen ugari izan dira



Txus Arriaran eta Alberto Laskurain, batuta aldaketa irudikatzen. JOKIN BEREZIARTUA

28 urteotan; ikasle asko pasatu dira, eta egungo ikasle batzuk nire lehen urteetako ikasleen seme-alabak dira. Nire bigarren bizitza izan da musika eskola".

Bizipen gehienak herrian bizitakoak dira, baina jo izan dute Bergaratik kanpo ere: "1989ko *Las seis horas de Euskadi* txir-rindularitza proban egon ginen jotzen, Donostiako belodromoan. Eta Anoeta futbol zelaian ere jo genuen birritan, Reala Bigarren Mailan zegoenean". Gazte Bandako zuzendari moduan lekukoa hartuko dion Txus Arriaran

Laskurainen ikasle izandakoa da: "Lasai noa, esku oso onetan uzten dut-eta batuta".

## Aratusteetakoa prestatzen

Arriaranek "ilusioz" hartu du ardura berria, dagoeneko birritan zuzendu du-eta Gazte Banda: "Ikasle izatetik zuzendari izatera pasatuko naiz. Lehena sanmartinetako danborradakoa izan zen, irailean; oporretatik itzuli eta lehen astean izan zen, eta larri ibili ginen. Eskerrak talde ederra dudala, ondo irten zen eta. Hurrengoa Gabonetakoa izan zen, frontoian, eta hori ere oso ondo". Hurrengo zita Aratusteetakoa izango da: "Gabetakoa oporretatik bueltatu berri gara eta lau entsegu eskas izango ditugu Aratusteetako kalejira ondo prestatzeko. Bi ordu eta erdi dira kalejiran, eta horrek baditu bere konplikazioak, baina gure eskuetan dagoena egingo dugu dena ondo irten dadin".

Gazte Banda zuzentzea musikaz harago doala gaineratu du Arriaranek: "Gaztetxoekin lanean ari gara, eta horrek esan nahi du bestelako aldagai batzuk

ere sartzen direla ekuazioan. Neska-mutikoak kontrolpean izan, isilik egon daitezela bermatu, publikoaren aurrean nola jokatu behar duten irakatsi... Hainbat faktore daude, baina orain arte, behintzat, taldearekin oso pozik nago".

Bestalde, esker on hitzak ditu Arriaranek Laskurainendako: "Asko lagundu dit Albertok. Aholku onak eman dizkit, eta eskertzen diot, adibidez, partituren artxibo guztia horren ondo gorde izana".

## Hirugarren belaunaldia

Arriaranek ere ia bizitza osoa daroa musika eskolan: "9 urterekin sartu nintzen eskolan, eta fase guztietatik pasatu naiz. Familia bat sortu dugu eskolaren bueltan, gure seme-alabek osatzen duten hirugarren belaunaldiak heldu dio-eta lekukoari".

**1986TIK 1995ERA  
ANGEL AGIRIANO IZAN  
ZEN ZUZENDARI ETA  
1995ETIK 2023RA,  
ALBERTO LASKURAIN**

## Banda nagusiaren kontzertua etzi

Gazte Banda du harrobi banda nagusiak, eta domekan, hilak 21, emango du 2024ko lehen kontzertua; udal frontoian, 12:30ean –sarrera doan–. Honako pieza hauek joko ditu Enrike Txurrukak zuzentzen duen bandak: *Gaztetxeruntz*, Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendari ohiak kartzela zaharrari eskainitakoa; *Pique Dame*, Franz von Suppek konposatutako operaren obertura alai eta bizia; *Lorea*, Miguel Gonzalez Bastida zuzendari ohiak musika eskolara bidean istripuz hil zen ilobari eskainitako zortziko sentimental; *Brave*, Patrick Doylek idatzitako doinu zeltak; Rivieren Cyclus, Hego Amerikako hiru ibai deskribatzen dituen Arie Malandoren doinu latino bilduma. Horrez gain, Txurrukak aurreratu duenez, ez da faltako sasoiarekin lotutako "sorpresatxoren bat".



## DEBAGOIENEN PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

**BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
blasaga@icagi.net

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### ARKITEKTOAK

**BIARK ARKITEKTOAK**  
ARRASATE  
Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

### AHOLKULARITZAK

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABAETA  
Araba ibilbidea 20, behea  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

**URIBESALGO  
ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE  
Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# Dune proiektuan izango dira Errekaren torlojuak

Neutroiak aztertzen dituen proiektua da Dune, AEBetan, eta Errekako torlojuak izango dira ikerketaren egitura finkatzeko tresna. Errekako kideek azaldu dutenez, "beste erronka bat" da, eta espero dute horrelako proiektu gehiagotan aritzea aurrerantzean

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Unibertsoaren izaerari eta osarari buruzko "funtsezko erantzunen bilaketa" dago Dune (Deep Underground Neutrino Experiment) proiektuaren epizentroan, Erreka Taldearen arabera. Neutroiak aztertzea dute xede horretan dabilzan ikerlariak, "unibertsoko misterio askori erantzuna eman diezaioketen partikula iheskorak", alegia; horretarako, parte izango dira Errekak ekoiztutako torlojuak, neutrinoak bilduko dituen egituraren finkapenerako erabiliko baitituzte.

Erreka Smart Fastening negozioko zuzendaria da Arkaitz Etxezarreta, eta proiektuak "ikaragarriko garrantzia" duela adierazi du. "Batez ere, industriar murgilduta dagoen gure moduko enpresa batentzat: torlojuak egitetik, unibertsoaren sorreraz hausnartzen duen nazioarteko proiektu batean parte

hartzera. Ohituta gaude energia berriztagarrietako proiektu handietan parte hartzen, baina hau ezberdina da". Ilusio "handia" egiten die proiektuak, "oso polita" dela nabarmenduta.

**Eginiko urratsak**

Espainiako Garapen Teknologikorako eta Berrikuntzarako Zentroa jarri zen lehendabizi Errekarekin harremanetan, eta Ikerketa Nuklearerako Europako Kontseiluaren (CERN) proiektuetarako bidea ireki zien, Etxezarretaren hitzetan. "Eskaintza landu eta CERNeke auditoria pasatu ondoren, eskaria iritsi zitzaigun. Ematen duena baino errazagoa izan da bidea".

Guztira, 90.000 torloju ekoiztuko dituzte Ameriketako Estatu Batuetara bidaltzeko, han baitabilza garatzen Dune proiektua; zehazki, Hego Dakotako Sanford laborategietan. Egitura lur azpitik 1.500 metrora dago,


eta espero dute gai izatea zero azpitik 184 gradura 34.000 argoi likido mantentzeko. Hala, Errekak aurreikusten du finkapenerako lehen laginak martxorako eskuragarri egotea, eta, gainontzekoak, "programatuta dagoen moduan", urrirako; horrela, Dune proiektua 2026an hasiko litzateke martxan.

**"EZBERDINA DA PROIEKTUA; ILUSIO HANDIA EGITEN DIGU"**

**"TORLOJU BATZUEI INTELIGENTZIA SARTUKO DIEGU"**

**"ERREKAK BADU ZER ESANA 'BIG SCIENCE' SEKTOREAN ERE"**

ARKAITZ ETXEZARRETA, ERREKA SMART FASTENING-EKO ZUZENDARIA



Dune proiektuak izango duen egitura. ERREKA

Torloju horiek, gainera, Etxezarretaren arabera, "ez dira ohikoak", egiten dituzten guztiak ere tamaina "oso handikoak" direlako. "Baditugu 35 kilokoak, baina Dunekoek hiru-lau kilo inguru pisatzen dute, eta batzuei inteligentzia sartuko diegu, Erreka Digital Bolt erabiliz; hartara, kapazak izango gara torlojuen lan-indarra nahi dugunean jakiteko".

**Beste erronka bat**

Errekarentzat proiektu horretan parte hartu ahal izatea beste erronka bat da, eta "harro" daude, Etxezarretak nabarmendu duenez. "Erreka Taldea ingeniaritza eta fabrikaziora bideratutako talde bat da, eta dibertsifikazioa da gure oinarrietako bat.

Sektore oso ezberdinetarako ematen ditugu irtenbideak. Gaur arte, *Big Science* sektorean ez geneukan lan eginda, baina ikusi dugu Errekak badaukala hemen ere zer esana".

Bada, aurrerantzean ere sektore horretan jarduteko aurrerapausoak ematen saiatuko direla adierazi du Erreka Smart Fastening negozioko zuzendaria, proiektu horretan parte hartzeak etorkizunera begira ateak zabal ditzakeelakoan. "Honek ahalbiderratu dezake ezagutza beste sektore batean ezartzea, etorkizunean proiektu handiak izango dituen, hala nola fusioko energia, unibertsoaren sorrera aztertzen duten esperimentuetan eta instalazio astronomikoetan lan egitea".

## EHko mus txapelketako lehen kanporaketa, bihar, Okaldin

Mox tabernan jokatu da etzi bigarrena eta urtarrilaren 28an, berriz, hirugarrena; azkenik, finala, otsailaren 4an

**A.R.K.** ANTZUOLA

Euskal Herriko mus txapelketak hasiera eman dio 15. aldiari, eta bihar eta etzi jokatu dira lehen kanporaketak, Antzuolan: bihar, Okaldi tabernan izango dira partidak, 16:30ean hasita; etzi, berriz, ordu berean, baina Mox tabernan.

Lau erregetara jokatu da mus txapelketa, eta izena jokatzen den tokian eman behar da. Parte hartzaile bakoitzak kanporaketa batean bakarrik har dezake parte, eta kanporaketa jokatzeke, gutxienez, lau bikote



EHko mus txapelketa, iaz. IMANOL SORIANO

behar dira. Herritarrek edo herriarekin lotura dutenek har dezakete parte; esate baterako, senideak dituztenek eta herrian lan egiten dutenek. Bikote bakoitzak hoge euro ordaindu beharko ditu.

Hirugarren kanporaketari dagokionez, urtarrilaren 28an izango da, domeka, 16:30ean, Arin tabernan. Azkenik, finala otsailaren 4an jokatu da, domeka, Koxkorren, 16:00etan.

**Finala, Zuberoan**

Euskal Herriko mus txapelketako hurrengo faserako Antzuolako nortzuk sailkatuko diren kanporaketa bakoitzeko bikote kopuruaren arabera hautatuko da. Zazpi herrialdeetako finalak martxoaren 9an izango dira; nagusia, berriz, martxoaren 23an, Altzain (Zuberoa).

## Etorkizuneko hilerria irudikatzeke bigarren fasea martxan da

Hil Arte Bizi elkarteak etorkizuneko hilerraren gaineko gogoeta parte-hartzailea abiatu zuen duela hilabete batzuk, eta bigarren fasean da. Horretarako, tailer bat egitea izango da lehen urratsa: urtarrilaren 29an izango da, astelehena, 18:00etatik 20:00etara, Orlanen, baina antolatzaileek ohartarazi dute hilaren 26a baino lehenago eman behar dela izena, 644 12 60 91 telefono-zenbakira deituta.

Bigarren faseko tailerreko zeregin nagusienetako bat izango da lehen fasean jasotako ideiak kontrastatzea eta azken txostenerako edukiak finkatzea. Asmoa da martxoan aurkeztea gogoetan erdietsitako emaitzak.

## Udal aurrekontuen proposamena hilaren 24an aurkeztuko dute

2024ko aurrekontuak onartzen dabilza bailarako udaletan, eta hala izango da datorren astean ere, Antzuolan. Izan ere, datorren egunean, hilaren 25ean, landuko dute gaia ohiko osoko bilkuran, eta baita aurrekontuak onartzeko bozketa egin ere. Antzuolako Udal Gobernuak, ordea, egun bat lehenago, urtarrilaren 24an, eguaztena, egingo du aurtengo udal aurrekontu proposamenaren aurkezpena jendaurrean; Orlango areto nagusia izango da, 18:30etik aurrera.

Osoko bilkurari dagokionez, ohi den eran, arratsaldeko zazpietan izango da, udaletzeko osoko bilkuren aretoan.



# "Eukaliptoarekin dugun erlazioan sakondu dugu"

JON ANDER URRESTI AKTOREA

Eukaliptoarekin "harreman toxikoa" dago gizartean, Urrestiren ustez, eta hori lantzen saiatu dira oholza gainean; esplotatzailearen eta esplotatuaren figura dituzte oinarri

**Amaia Ramirez de Okariz**

**Kortabarria** ANTZUOLA

Eukaliptoak abiapuntutzat hartuta, *Eukalyptus* antzezlanaren aurkeztuko du Jon Ander Urrestik (Bermeo, Bizkaia, 1992) etzi, 18:30ean, Torresoroan. 2022ko Durangoko Azokako Sormen Beka irabazi zuen, eta horrela hasi zen proiektua garatzen; Udalbiltzaren Geuretik Sortuak-en eta Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza ere izan du.

**Nola iritsi zarete eukaliptoetara?**

Euskal Herriko paisaiaren parte garrantzitsuenetakoak dira, batez ere, Bizkaian, baina gero eta gehiago Gipuzkoan eta Araban. Eukaliptoekin dagoen erlazioan sakondu nahi izan dugu, harreman toxiko horren konplexutasuna aztertu, ea zergatik diren gure paisaiaren parte, zein ondorio dituzten, zein eragin duten guregan eta guk eurengan; hainbat galdera izan ditugu.

**Galdera horiei erantzuna emateko, ikerketa bat egin duzue, ezta?**

Bai. Udalbiltzako dirulaguntzak baldintzetan du herri batzuekin harremana izatea, eta Aulestin, Amoroton eta Munitibarren (Bizkaia) izan gara; saiatu gara landa eremuko jendearekin elkartzen, esate baterako, egurrean lan egin duten eta basoak dituzten herritarrekin, eukaliptoaren inguruan duten iritzia jasotzeko. Horrez gain, adituekin ere izan gara; adibidez, Errez kooperatibarekin. Hala, ahalik eta begirada pluralena erdietsi nahi izan dugu. Horrek gero eta gehiago aberasten du gatazka, eta gero eta interesgarriago egiten du antzezlanaren. Ez dugu panfleto bat egin nahi izan.

**Horretarako, adibidez, "euskaldun kontzientziatua" duzue hizpide.**

Pertsonaia konplikatuaren sakondu nahi izan dugu, konplexutasunean, eta hor bada euskaldun kontzientziatuaren eszena bat. Izan ere, batzuetan, erraz ematen dugu eukaliptoan



Jon Ander Urresti eta Beñat Urrutia *Eukalyptus* antzezlanaren. JON ANDER URRESTI

## "BEGIRADA PLURALEK ABERASTU EGITEN DUTE GATAZKA; HALA, INTERESGARRIAGOA DA ANTZEZLANA"

inguruko iritzia, zuzenean gure basoen postalari apelatuz, baina, beste aldetik, gizarte moduan bada eukaliptoaren kontsumo handi bat. Horrez gain, bada saiakera bat periferian gelditzen diren gai batzuei lekua emateko ere. Eukaliptoak gure basoetan daude, baina kontsumo nagusia hirietan dago: bazen modu bat zubi bat egiteko jende kosmopolitaren eta landa eremukoaren artean.

**Non da eukaliptoak?**

Paperezko gauza guztietan, adibidez: komunekoan, musuzapetan, kaferako baso eramangarrietan... Hori guztia aipatzen dugu modu komiko, tonto eta probokatzaillean, baina egiak direnak, gure kontsumo mailaren kontrola behar baita gure basoen kontrola izateko.

**Lurjabe diruzale bat eta langile bat dituzue pertsonaia nagusi.**

Horiek dira gure pertsonaiak. Ikusi dugu eukaliptoarekin dugun erlazioa, batez ere, lanari lotutako harreman toxiko bat dela, eta horregatik hautatu ditugu esplotatuaren eta esplotatzailearen pertsonaiak. Kanpotik ekarri dugun espeziea da eukaliptoak, efizientea delako, eta harengan dugun interes bakarra ekonomikoa da; gure langilea da. Modu paraleloan hitz egin nahi izan dugu esplotazioari edo ustiapenari buruz.

**Ez zara bakarrik aritu lan honetan; nortzuek osatu duzue lantaldea?**

Matxalen De Pedro, Beñat Urrutia eta hirurok aritu gara teatroa artikulatzen, eta Nerea Ibarzabal, berriz, testuekin. Elkar probokatzen egiten dugu lan; inspiratzaileak izan daitezkeen irudiak hartzen ditugu, eta horren potentzialtasuna frogatu eszenan, gerora testuak sortuz. Nahiko aktiboa izan da partaidetza.

**Orain, aurkeztea besterik ez da falta; nola zaudete?**

Durangoan aurrestreinaldia egin da, Aulestin estreinatuko dugu gaur, eta hemezortzi plaza ditugu lotuta. Oso gogotsu gaude. Antzerkiak publikoa behar du; ikuslerik gabe, ez luke zentzurik.

## Santa Barbara eta Korda Rota izango dira gaur gaztetxean

Santa Barbara eta Korda Rota musika taldeak igoko dira gaur oholtzara Antzuolako gaztetxean. Urretxun (Gipuzkoa) sortutako taldea da Santa Barbara, 2021ean, eta partaideetako bat da Xabi Vargas antzuolarra. Rock-and-rolla egiten du boskoteak. Korda Rota, berriz, Aitor Alegrek, Raul Uriartek, Unai Okinak eta Francesco Basilek osatzen dute. Antzuolan bizi dira Okina eta Basile, baina Arrasateko eta Tarantoko (Italia) taldea dela diote. *Panem et circenses* diskoa aurkeztuko dute, Asel Errastirekin grabatua Aretxabaletako kuartel zaharrean.

22:00etan hasiko dira kontzertuak, eta bost euro da sarrera.

## Jon Artanok 'Juana' liburua aurkeztuko du hilaren 23an

Jon Artano kazetariak *Juana* liburua aurkeztuko du martitzenean, hilaren 23an, Olarango bigarren solairuan, 18:00etan.

Juana Perea Plataren istorioa kontatzen du liburua. Gerra garaian Kolonbiara ihes egin-dako euskaldunen ondorengoa zen, eta 2020ko urriaren 29an hil zuen talde paramilitar batek, Nuqui udalerrian (Kolonbia). Perea senideei eta lagunei eginiko elkarrizketek eskerrak ondu du argitalpena Artanok, eta, Perea bizi ez zela, haren familiaren historia ere kontatzen du.

Hain justu, Tene Mujika bekari esker idatzi du argitalpena, iaz lortu baitzuen.

## Astelehenean batuko da bigarren aldiz Korrika batzordea

Joan den astean batu zen lehen aldiz Korrika batzordea, urtariraren 9an, eta beste batzar bat egingo dute oraingoan. Hain justu, datorren astelehenean izango da, hilaren 22an, Olarango bigarren solairuan, 18:00etan.

Martxoaren 14tik 24ra egingo da 23. Korrika, Irundik (Gipuzkoa) Baionara, *Harro herri* lelopean, eta martxoaren 20an eta 23an igaroko da Debagoienetik; ez, ordea, Antzuola erdigunetik. Alabaina, Korrika batzordeko kideek ohartarazi dute berdin-berdin babestuko dutela, eta, gainera, Antzuolako lurretatik igaroko direla hiru kilometro martxoaren 20an.

## Udal gimnasioan ate irekiak izango dira hilaren 22tik 26ra

Udalak eta E-goitekek ate irekiak egingo dituzte gimnasioan: spinninga, martitzenetik eguenera, 19:30etik 20:30era eta, astelehenean, 18:30etik 19:30era; funtzionala, martitzen eta eguenean, 19:30etik 20:30era; body tonoa, berriz, astelehenean 17:30etik 18:30era, eguaztenean 18:30etik 19:30era eta eguenean 09:30etik 10:30era. Gainera, hipo expresia, astelehenean, 17:00etatik 17:30era; gazteentzako body tonoa, egubakoitzean, 16:00etatik 17:00etara; body balantzea, martitzenean, 08:30etik 09:30era, eta egubakoitzean, 15:00etatik 16:00etara. Azkenik, 60 urtetik gorakoentzako saioa, astelehenean eta eguaztenean, 09:30etik 10:30era.

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrak eta oilaskoak  
Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34



Ipuinen Ordua ekimenean kontulari aritzen den boluntario taldeko hainbat kide. OLATZ PEREZ



Taldeko boluntario Maria Mendazona saioa egiten. ELGETAKO LIBURUTEGIA



Kontulari boluntarioak, Maider Galarzarekin egindako tailerretako batean. L.Z.L.

# 10 urte bete ditu Ipuinen Orduak

Liburutegiaren gidaritzapean eta herriko boluntario talde baten eskutik ohikoak dira Ipuinen Ordua dinamikako saioak Elgetan. Badira hamar urte ekimena jaio zela. Hemezortzi kontulari aritu dira bertan. Otsailean egingo dute 100. saioa

## Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Auzolanean egiten da Ipuinen Ordua, eta hasierako harrera ona izaten jarraitzen du sortu eta hamar urtera. Urtemuga borobilerako ekintza bereziak prestatu dituzte. Gaurko Ipuinen Ordua 99. saioa izango da, eta berezia egiturari eta edukiarri dagokionez.

Kartel lehiaketa, Maite Franco kontulariak gidatutako bi saioko tailerra eta otsailaren 14ko Kontularien Topaketa ere egingo dituzte datozen asteetan. Kultura etxeko korridoreetan, bestalde, hamar urteotako irudiekin osatutako erakusketa egongo da. "Gaur hasi eta otsailaren 16ko saiora bitartean -100. saioa izango da- egingo ditugu ekintzok", azaldu du udal liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak. "Kalkulatzen dut egindako ia 100 saioetan 3.000tik gora entzule egon direla. Ez dago Ipuinen Ordurik entzulerik gabe, baina ezta ere kontularirik gabe. Kultura etxean jarritako erakusketa bada pertsona haiei leku bat eman, eta egin duten ahalegina aitortzeko modua", ziurtatu du.

## Hamar urtean hainbat aldaketa

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umei zuzendutako ipuin kontularitza saioak egiten dituzte liburutegian. Bariku arratsaldeetan izaten dira eta hiru bat astean behinekoa da maiztasuna gaur egun. "Kontularien prestutasunaren arabera hilean behinekoa zein bi astean behinekoa ere izan da. Esango nuke ikasturteko 11-12 saio izaten direla, hiru adin tartetan banatuta", azaldu du Ezpeletak. "Liburutegi txikietan aurrekontua, normalean, txikia izaten da ekintzetarako, eta umeendako zerbait antolatzeke helburuarekin sortu zen Ipuinen Ordua. Banuen euskarazko ahoz-kotasunari lekua emateko nahia, eta hainbat lagunengana gerturatu nintzen ipuinak kontatzera animatuko ote ziren eskatzeko. Erantzuna positiboa izan zen, eta, hasieran gutxi baginen ere, denborarekin jende berria sartu da. Hamar urteotan sartu-irtenak ere egon dira; hemezortzi boluntario pasa dira hemendik. Gaur egun, bederatzi gaude aktibo, eta hiru gaude hasieratik", azaldu du Ezpeletak. "Gogoan

du Soroa Bikandirekin egindako lehen formakuntza; umeen adinaren arabera ipuinak nola aukeratu aholkuak eman zizkigun. Hamar urteotan halako zazpi lantegi egin ditugu, eta

zortzi profesional pasa dira hemendik: Soroa Bikandi, Virginia Imaz, Bego Gomez (Bego Alabazan), Eneko Haritza, Maider Galarza, Pedro Ruiz (Pedro Alabazan) eta Amaia Elizagoien. Beti gerturatu da jendea; batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago. Otsailean Maite Franco etorriko da". Bi saioko tailerra egingo du ipuin kontulari irundarrak; otsailaren

7an eta 15ean izango dira. Izen-ematea zabalik da. Plaza mugatuak dira, eta, boluntario taldeko kideek lehentasuna izango dutela kontuan hartuta, komeni da gainerako interesatuek lehenbailehen egitea izen-ematea.

## Gaztetxoak ere kontulari

Ipuinak entzuteak eta gertuko helduak eginkizun horretan maiz ikusteak bestelako dinamikak ere eragin ditu. Horien artean da *Gu ere kontulari* izenekoak. "Elgetako neska-mutikoak ipuinak entzutera ohitu dira; kanpotik etortzen diren kontulariek ere esaten dute nabaritu egiten dela ipuinak entzutera ohituta dagoen publikoa dela. Horregatik, akaso, haiek ere ipuinak kontatzeko nahia agertu zuten. Hala sortu genuen *Gu ere kontulari* proiektua", dio Ezpeletak.

Liburuzainak deialdi irekia egiten du eta emanaldian parte hartu nahi duen edonork aukera du izena emateko. "Martxan egon zen hainbat urtez, eta harrerara oso onarekin, baina eten egin zen pandemiarekin eta iaz berreskuratu genuen. Ikasturte honetan ere egingo dugu saioren bat; pare bat egiten saiatuko gara", esan du liburuzainak.

Harrobia ere badator, beraz, eta entzuleak zein kontulariak dauden bitartean kontularitzak bizirik jarraituko du Elgetan.

## Nola bizi duzu Ipuinen Ordua?



**AITZIBER ASKASIBAR**  
KONTULARI BOLUNTARIOA

"2016an hasi nintzen liburutegian ipuinak kontatzen. Beti gustatu izan zait, eta banuen hartxo hori. Proposamena jaso nuenean, parte hartzerara animatu nintzen. Oso gustura egiten ditut saioak, eta ekimen oso aberasgarria iruditzen zait gure herrirako".



**NAGORE OJANGUREN**  
KONTULARI BOLUNTARIOA

"Alaba saioetara etorri ahal izateko adinera heldu zenean animatu nintzen ni liburutegian ipuinak kontatzera. Umeak beti dira oso esker onekoak. Adi-adi egoten dira, eta segituan lotzen dira kontatzen diezun istorio horretara. Zoragarria da publiko honendako kontatzea".



Elgetako umeen euskal dantza ikuskizuna, herriko plazan, iazko uztailean. GOIENA

## Kultura bultzatu, musikaren erritmoan

Azken urteetan ez bezala, urte osoko euskal dantza ikastaroa jasotzen ari dira herriko 30 neska-mutiko baino gehiago. Eibarko Kezka dantza taldeko Irune Saiz eta Uxue Gisasola ari dira eskolak ematen, eta ikasleek herriko jaietan erakutsiko dute ikasitakoa

**Miren Arregi Amasorrain** ELGETA

Ikasturte osoa irauango duen euskal dantza ikastaroa jasotzen ari dira Elgetan Haur Hezkuntzatik hasi eta batxilergora arteko 30 neska-mutikotik gora. Guztira, lau talde osatu dituzte: 3 urtetik 5 urtera arteko neska mutikoekin bat, Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. mailetakoekin bigarrena, LHko laugarren eta seigarren maila artekoekin hirugarrena eta DBHko eta batxilergoko ikasleekin azkena. Urrian hasi zituzten eskolak, egubakoitzetan egiten dituzte entseguak eskolako ganbaran eta kiroldegian, eta halaxe jarraituko dute ikasturtea amaitu arte. Eibarko Kezka dantza taldeko kide bi dira irakasleak, Irune Saez eta Uxue Gisasola, eta herritarrek oso harrera ona egin dietela azaldu dute.

**Dantza herrikoiak**

Irakasleek lan egingo dute ikasturtean zehar neska-mutikoei dantza herrikoiak direnak ikas ditzaten. Gainera, talde bako-

tzari dantza jakin bat erakustea ere bada asmoa, "apur bat gehiago sakondu ahal izateko eta ez daitezkeen soilik dantza herrikoien mailan gelditu", dio Irune Saez irakasleak. Ikasitakoak erakusteko momentua herriko jaietan izango da. "Elgetara iritsi ginenean esan ziguten nola herriko jaietan umeek dantza egiten zuten, eta gure asmoa da egun horretan dantza emanalditxo bat egitea, urtean zehar prestatuko ditugunak erakusteko", azaldu du Uxue Gisasolak.

**Lankidetzaren handiko herria**

Irakasleendako oso aberasgarria ari da izaten Elgetan eskolak ematea: "Albisteak ezustean hartu gintuen, baina berehala kon-

**UZTAILEAN, HERRIKO JAIETAN ERAKUTSIKO DITUZTE EUSKAL DANTZEN IKASTAROAN IKASITAKOAK**

turatu ginen oso aukera polita izango zela. Bertakoen laguntza handia sentitu dugu, jendearekin harremanak izatea oso erraza da, lankidetzaren agerikoa da, herritarrek beti egon dira laguntzeko prest, bertakoen gertutasunak eta komunikazio neutralak gure esperientzia aberasgarri egin dute, oso ongietorriak sentitu gara", diote.

**Transmisioaren garrantzia**

Dantzak onura asko ditu bere baitan, eta horiek nabarmentzea garrantzitsua dela diote irakasleek. "Ongi pasatzeko aukera ematen dute, eguneroko kezka alboratu eta lagunekin eta musikaren erritmoarekin gorputza askatzeko aukera", dio Uxue Gisasolak. "Are gehiago, gure kulturaren parte dira", dio Uxue Saezek. "Dantzen erabilera eta transmisioa Euskal Herriko herrietara heltzea beharrezkoa da; izan ere, gureak diren ohiturekiko interesik ez badugu edo hauek irakasten ez badira, galdu egiten dira".

## Donostia ez da San Sebastian eguna ospatzen duen bakarra

Eskolako umeek danborrada egingo dute gurasoendako eta San Sebastian kofradiako nobleek, meza

**M.A ELGETA**

San Sebastian egunak izango du bere isla Elgetan ere, eta horren protagonista izango dira San Sebastian Kofradiako Nobleak, batetik, eta eskolak haurrak, bestetik. Azken horiek, gaur, egubakoitza, danborrada egingo dute gurasoendako, Eskolako frontoian, 15:30ean hasita. Haur Hezkuntzako hiru, lau eta bost urteko haurrek Lehen Hezkuntzako seigarren mailako laguntza izango dute zeregin horretan. Lau abesti joko dituzte San Sebastian eguna ospatzeko.

Bestetik, 1480ko hamarkadan sortu zen San Sebastian Nobleen Kofradiako kideak mezarako elkartuko dira, bihar, 13:00etan, Jasokundearen Amaren parrokian. Ondoren, sakristian bilera egingo dute. Kontuak egin, aktak jaso eta aurten ardura izango dutenei kargu-aldaketa egiteko. Ondoren, Bolatokian egingo dute bazkaria. Elgetako eta Uberako nobleen kofradiako hamazazpi bat lagun batuko dira, eta Angiozarko kofradiako beste lau. Apaizak eta abesbatzakoek ere eurekin bazkalduko dute.



GOIENA

## Sebas Arantzabal, finalean

Bihar du Sebas Arantzabalek Neguko Bolak txapelketako lehen postua eskuratzeko aukera, arratsaldeko bostetan izango du-eta laugarren eta azken jaurtialdia, Markina-Xemeingo Barinagan. Elgetako taldeko bolaria lehenengo doa sailkapenean, hamasei txirilo jota. Bigarren postuan da, berriz, Asier Azkarate bergararra, hamabost txirilo botata.

**Korrikako arropa saltzeko postua jarriko dute gaur**

Korrika batzordea martxan da eta laguntzaile egiteko aukera dago, liburutegian. Komertzioek Korrika Lagun egiteko informazioa ere jasoko dute laster, eta kilometroa diruz lagundu nahi duten elkarteek [korrikadebagoiena@gmail.com](mailto:korrikadebagoiena@gmail.com) helbidea dute horretarako. Gaur, arropa salmenta jarriko dute, 15:30ean, eskola atarian eta plaza inguruan.

**OHARRAK**

**Koko-dantzak**

Dantzak erreparatzeko saioa, gaur, 19:30ean, gimnasioan.

**Frontenis eguna**

Bihar, egun osoan, partidak frontoian. Amaitzeko, afaria bolatokian.

**Amantalak taldea**

Talde feministak batzarra egingo du domekan, 17:00etan, kultura etxeko lokalean.

# Badator Nabarralderen Historia Hamabostaldia

Bosgarren urtez egingo da, Nabarralderen Oñatiko taldeak antolatuta, eta erakusketa, irteera eta bi hitzaldi antolatu dituzte aurten. Gazteluaitzek presentzia izango du, gainera; hitzaldi bateko gaia horixe izango da, eta hara egingo dute irteera

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Oraina ulertu eta etorkizunera begiratzeko iragana ezagutzea garrantzitsua dela iritzita, beste hamabostaldi bat antolatu du Nabarraldeko Oñatiko taldeak. Bosgarren urtez egingo dira historia jardunaldiak, datorren astelehenean hasita: "Geuk gutaz kontatzen dugun historia".

**Bisitak ikasleekin**

Astelehen iluntzean zabalduko duten erakusketak, esaterako, erromatarren garaitik hasi eta karlistaldiak bukatu ostera arteko urteak jasoko ditu, mapez ilustratutako hamalau panel bisualen bitartez. Bisita gidatua egingo du inaugurazio egunean bertan Beñi Agirrek; DBH-4ko ikasleekin ere badituzte bisitak lotuta. Izan ere, konturatu ziren nahiko jende bertsuak hartzen zuela parte historiaren jardunaldi horietan, "adin batetik aurrerakoak eta gizonezkoak, gehienak" eta horri buelta eman

## "Anomalia asko gertatzen dira gure herrian"

**IÑAKI IDIGORAS** OÑATIKO NABARRALDE TALDEA

Historiaren zabalkundea egitea da Nabarralderen helburuetako bat, eta horren baitan kokatzen dira Oñatin egingo dituzten jardunaldiak, Iñaki Idigorasek (Oñati, 1972) azaldu duenez.

**Ze garrantzi du iraganera begiratzeko?**

Ikusten dugu anomalia asko gertatzen direla gure herrian; beste herri batzuetan gertatzen ez direnak gertatzen dira hemen: epaileek nazioko bertako hizkuntzaren aurkako epaiak hartzen dituzte, ikastola bati ez diote uzten lur batzuk euskaraz erakustearren,



O.E.G.

presoen aldeko manifestazioak egoten dira... Guk uste dugu iraganeko prozesu baten ondorioak direla, herri menperatua garena eta nola egin duten ulertzea garrantzitsua dela hau dena ulertzeko.

**Orain, baina iraganera eta etorkizunera begira, beraz.**

Hori da. Gure helburua da ekitea sustatzean iraganaren jakintzaren bitartez.

**Ze harreman duzue beste elkarteekin?**

Badugu harremana. Hiru hilean behin-edo elkartzen gara.

guran lotu dituzte gazteei eskainitako bisita horiek.

**Gazteluaitz da gaitako bat**

Bi hitzaldi ere egingo dituzte, eta Gazteluaitzi buruzkoa izango da bat. "Duela mila urte Nafarroako erresuman zeuden 258 gaztelu daude katalogatuta, eta Gazteluaitz da horietako bat. Toponimiari esker aurkitu dugu. Orduko gazteluaren aztarnak aurkitu dituzte han, eta garai hartan Nafarroa nola antolatuta zegoen, gure estatua nolakoa zen, azaltzera etorriko da Iñaki Sagredo. Izango da garai hura nolakoa zen azaltzeko, ez hango aurkikuntzen berri emateko", azaldu du antolatze lanetan ibili den Iñaki Idigorasek. Gaineratu du irteera bat ere egingo dutela Gazteluaitzera. Beste hitzaldia Xabier Irujok egingo du. Idigorasek aurreratu duenez, Orreagako gaia asko landu du: "Eta erakutsiko digu nola han gertatu ziren hiru gudaldien ostean euskaldunok errege bat aukeratu genuela kanpotik zetozen erasoan aurrean defendatzeko. Eneko Aritza zen errege hura".

Mapaz osatutako erakusketa otsailaren 3ra arte egongo da zabalik, kultura etxeko erakusketa gelan, eta egunero ikusteko aukera egongo da, 18:00etatik 20:00etara. Gazteluaitzera egingo den irteerarako, berriz, ez da izenik aurrez eman behar; nahikoa da zuzenean joanda.



Indusketak Gazteluaitzen. GOIENA

## Egitaraua

**Habitat erakusketa**

Kultura etxean. Urtarrilak 22-Otsailak 3. 18:00etan.

**Orreaga/Errozabal**

Xabier Irujoren hitzaldia. 23an, 19:00etan, zinema aretoan.

**Gazteluaitzera irteera**

Sindikatik abiaturatuta, 09:00etan.

**Gazteluaitzen garaia**

Iñaki Sagredoren hitzaldia. 30ean, 19:00etan, zinema-aretoan.

## GORA ETA BEHERA



## Guztion gauzekiko errespetu falta

Olabarrietako komun publiko barruan pintaketak egin izana "errespetu falta" iruditu zaio irakurle bati: "Noiz ikasiko dugu denon gauzekin norberak ezin duela gura duena egin?".



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

## Asanblada irekia egingo du Emakumion Kontseiluak 23an

Oñatiko Emakumion Kontseiluak bilera irekia egingo du datorren astean. Lau gai nagusi izango dituzte berba: azken akta onartzea, joan den urteko plan-gintzaren balorazioa eta 2024ko kronogramaren aurkezpena, kontseiluak proposatutako lan-ildoan gainera errepasoa eta ama bakarren inguruan kontseiluko kideek eginiko hausnarketa. Galde eta eskaerarako tartea ere egongo da.

Bileran datorren astean izango da, urtarrilaren 23an, martitzena, 17:30ean, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan. Irekia izango da eta interesa duen edonork parte hartu ahal izango du bertan.

## Azterketa bat egingo dute, termitak non dauden ikusteko

Herriko alde zaharrean egurrezko egitura duten eraikin bat baino gehiago daude, eta termiten eragina neurtu gura dute. Hala, horretan aditua den enpresa bat kontratatu du Udalak, herriguneko termiten mapa osa dezan. Hori lehen pausoa izango da balizko izurrite bati aurre egiteko; arazoa konponduko duen tratamendu integrala definitu eta gauzatzeko. Egurrezko egitura duten eraikinen ikuskarpenak egingo dituzte, kaltetzen ari direnak identifikatzeko. Intsektuen biologiagatik eta bizi zikloagatik, eraikinak birritan ikuskatzea aurreikusten dute; uneko egoera ezagutzeko eta termitak aktiboan daudenean.

## Gonbidapena egin dute Korrikarako ideiak proposatzeko

Astean egin du lehen bilera irekia Oñatiko Korrika batzordeak, eta hasita daude pentsatzen zer eta noiz egin, Korrika Oñatitik pasatzen denean herria girotzeko eta ekimenari babesa emateko.

Martxoaren 23an 05:00 aldera pasako da Korrika Oñatitik, Udanan gora, eta, ekintzak egunean bertan zein aurretik egin daitezkeela iritzita, proposamenak jaso gura dituzte hurrengo bileran: kontzertuak, kalejirak, Korrika Kulturean datorren emanaldiren bat, material salmenta... Hurrengo bilera 29an da, 18:00etan, Udal Euskaltegian. Herritar zein eragile guztiak daude gonbidatuta.



Irakurketa Erraza taldean irakurriko dituzten liburuetakoz batzuk ikusgai udal liburutegiko goiko pisuan. GOIENA

## Irakurketa Erraza taldea berreskuratu gura dute

Gaztelaraz izango da, hizkuntzarekin zailtasunak dituen edonorendako. Hamar saio egingo dituzte, behin taldea osatuta, ordu eta laurdenekoak, eguen goizetan. Liburutegian eman daiteke izena, baita zalantzak argitu han bertan ere

### Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Irakurketa Erraza izeneko ekimena berreskuratu gura dute udal liburutegian. 2018an sortu zuten lehenengoz han, aurretik bi urtez Helduen Hezkuntza Eskolan errefortzu moduan funtzionatu ostean. Dinamizatzaile baten falta ikusi zuten orduan, eta handik gutxira heldutako pandemiak eten egin zuen ekimena. Berreskuratu egin gura dute orain. Sortzen bada, liburutegiko bosgarren irakurketa taldea izango da.

### Esaldi motzeko testuak

Udal liburutegiko arduradun Arantzazu Ibarrondok azaldu duenez, gaztelaraz izango da eta irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen bideratuta dago Irakurketa Erraza taldea: "Bertan egon daitezke, adibidez, hizkuntza ez dutenak menperatzen ezagutzen ez dutelako zein ezagutu arren alfabetizazio maila baxua dutenak, edo ezintasun psikologikoa dutenak".

Nori bideratuta dagoen ikusita, lantzen diren testuak ere era berezian idatzita daudenak izaten dira, "egokitutakoak, moldatutakoak, bai liburuetakoz, bai ikus-entzunezkoetakoz. Modu oso errazean idatzita egoten dira testu horiek, esaldi motzak erabiltzen dituzte, hitz garbiak dituzte eta batzuetan behean azalpenak izaten dituzten testuak dira. *Printze txikia* liburu ezaguna adibide ona da talde honetan lantzeko, esaterako, esaldi motzak ditu eta".

### Hamar saio, eguenetan

Gaztelarazko irakurketa taldeak dinamizatzen dituen Monica Leiva izango da talde horretako gidaria ere. Hamar saio

**SORTZEN BADA,  
LIBURUTEGIKO  
BOSGARREN  
IRAKURKETA TALDEA  
IZANGO DA**

aurreikusitakoak, ordu eta laurdenekoak, eguen goizetan. "Irakurketa taldeetako saioak hilean behin izaten dira, baina honek eskatzen du jarraikotasun bat maiztasun handiagoa duena, eta, hala, taldea sortzen denean, hasi eta segidan datozen hamar eguen goizetan egingo dira saioak, liburutegian. Gure helburua da bosgarrena irakurketa kluba sortzea eta mantentzea".

### Sozializatzeko bide

Irakurtzen ikasteaz gain, taldeak sozializazioan izango duen garrantzia azpimarratu gura izan du Ibarrondok: "Taldea bateko kide izatera pasako dira izena ematen dutenak, liburutegia ezagutuko dute, kultura etxean zer dagoen ikusi... Ez da irakurtzen ikastea bakarrik; autoestimua ere hobetu egiten da. Oñatiko udal liburutegia publikoa da eta ekimen honek bete-betean betetzen du liburutegi publikoaren funtzioa".

## Dei berezia egin dute gaurko odol ematerako, beharragatik

16:30etik 20:00etara eman ahal izango da odola, baina aurrez deitu behar da txanda hartzeko

### O.E.G. OÑATI

Ospitaleetan odola falta dela-eta, ematera joateko dei egin du Euskadiko Odol Emaleen Elkarteak. Oñatikoak bat egin du deialdi horrekin, eta gaur, egubakoitza, Oñatin egingo den odol ateratzera joateko eskatu gura diete herriko emaleei. 16:30erako joango da profesionalen taldea Donostiatik MUko Enpresagintza Fakultatera, eta aurrez hartu behar da ordua odola emateko; deitu egin behar da 08:30etik 13:30era bitartean telefono-zenbaki ho-

netara: 943-00 78 84. 20:00ak arte irauko du odol ateratzeko.

### Aitortza jasoko dute gaur

Gaur egun, 325 odol emale daude Oñatin. Horietatik bederatzik askotan eman izanaren aitortza jasoko dute gaur, Enpresagintza Fakultatean bertan egingo den ekitaldian, arratsaldeko seietan. Horietako batek 80 odol emate egin dituelako jasoko du esker saria. Baita 25 emate egin duten hiruk, 40ko bik, 50eko batek eta 60ko beste bi herritarrek ere.



AMET

## Lehen saria 'Zuloan zu?' lanak

Bartzelonako *Nit de la imatge subterrània* jaialdian irabazi du lehen saria Aloña Mendiko espeleologia taldeak egindako *Zuloan zu?* ikus-entzunezkoak. Herrialde askotariko hamaika ikus-entzunezkoak osatu zuten zapatu arratsaldeko emanaldien maratonia, eta iritzia eman zuen amaieran publikoak. "Pozik" jaso du saria AMETek.

**AUTLAN**  
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako  
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Osaba Kimu taldeko lau lagunak, zapatuko kontzertua iragartzeko ateratako argazkian. OSABA KIMU

# Aurpegia erakustera dator Osaba Kimu taldea

Lehen kontzertu "ofiziala" izango da Osaba Kimu talde oñatiarrarendako zapatukoa, eta zertan ibili diren eta taldea nolakoa den erakusteko gogoz daudela aitortu dute. Burrunda Faktoriak antolatutako egitarau berria estreinatuko du laukoteak

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI Txomin Aranzeta Zumalde (ahotsa), Ane Urkia Gonzalez (bateria), Unai Murgiondo Ezpeleta (gitarra eta ahotsa) eta Oier Palacin Aztiria (baxua eta ahotsa) dira Oñatiko Osaba Kimu taldea osatzen duten lau lagunak. Lehendik dihardute musika egiten, baina proiektu berri horre-

tarako batu dira Urkia, batetik, eta Bitz taldean ibilitako beste hirurak, bestetik. Entseatzen eta musika sortzen ibili dira orain arte Eltzian, lasai, euren martxan, eta zertan ibili diren eta Osaba Kimu aurkeztera, erakustera, helduko dira laurak Antitxena gaztetxera zapatuan, hilak 20, 19:00etan.

**Aurkezpen-kontzertua** Bitz taldearekin azken kontzertua jo ostean, 2017 aldera, elkartzen eta musika egiten jarraitu zuten Murgiondok eta Palacinek. Ahal izan zuen bezain laster batu zitzaizen Aranzeta, eta aurreko estiloarekin alde handirik ez duen musika lantzen jarraitu zuten. "Beste proiektu bat hasi

gura genuen. Ane Urkia batu zitzaigun, bateria jolearen hutsunea betetzeko, eta hemen gaude. Kantakerixak proiekturako atera genuen kantu bat, beste lauk osatzen dute iaz kaleratutako diskoak, eta badugu asmoa Oñati Bizirik-en hurrengo lanerako ere pieza bat sortzeko", azaldu du Murgiondok.

Boga tabernaren urteurren festan jo zuten, joan den udan, baina zapatukoa dute "lehen aurkezpen-kontzertua". Eta badute gogo. "Erakutsi gura dugu zertan ibili garen urte hauetan guztietan. Ezagunak izango dira aurrean izango ditugunak; tentsio edo urduritasun puntu bat izango dugu guk, eta ea hori hausten laguntzen diguten entzuleek".

## Burrundaren barruan

Burrunda Faktoriak antolatuta joko du Osaba Kimu gaztetxean, eta Astelehen Goizak taldeak ere bai. Apirilaren amaiera arte antolatutako emanaldietako lehena izango da zapatukoa; Burrundaren bigarren denboraldiari hasiera emango diona. Oraingoan, gainera, ez dute kontzertua bakarrik antolatu: ipuin kontaketa saioa eta dokumental emanaldia ere egongo dira. Azken kontzertua, bestalde, Aloñako Igoerako lantaldearekin batera antolatuta. Horrekin lotuta, asteburuan jarriko dituzte salgai denboraldiko bonuak; 30 euro; murriztuak, 15 euro.

## Hurrengo emanaldiak

### Urtarrilak 20

Osaba Kimu eta Astelehen Goizak. 19:00.

### Urtarrilak 28

Ameli eta Xirrikituen jostunek eta eskulanak. 17:00.

### Otsailak 14

*Punkaren beste alde* dokumentala. 19:00.

### Otsailak 17

Habi eta Ziraun. 19:00.

### Otsailak 18

Sara Zozaya. 19:00.

### Otsailak 25

Ekain-txou. 17:00.

### Martxoak 2

Letagin eta The Clayton. 19:00.

### Martxoak 10

Ibil Bedi. 19:00.

### Apirilak 19

Ni-Hil eta Ikarass. 22:00.

### Apirilak 28

Pelax. 18:30

Oharra:

Antixena gaztetxean denak.

## Hastapen mailako pilates saioak egongo dira otsailean

Hastapen mailako pilates saioak egongo dira datorren hilabetean, otsailean, Zubikoa kiroldegian.

Guztira, lau saio izango dira; bi ordu iraungo duten lau saio. Egunak zehaztuta dituzte dagoeneko. Ostegunetan izango dira: otsailaren 1ean, 8an, 15ean eta 22an. Kiroldegian izango dira, eta izena han eman behar da. Urtarrilaren 29a da izena emateko azken eguna. Prezioak hauek dira: 20 euro bazkideek eta 27,05 euro bazkide ez direnek.

Urtarrilean ere eskaini zuten ikastaro hori Zubikoan, eta arrakasta izan zuen. Toki barik gelditu ziren hainbat herritar, eta interes hura ikusita antolatuko dute otsailekoa.

## Aldaketa egongo da zinema orduetan otsailetik aurrera

Datorren hilabetetik aurrera –otsailaren 1a– aldaketak egongo dira zinema orduetan. Ordu batzuk mantendu egingo dira eta beste batzuk aldatu egingo dituzte. Esaterako, zapatuetan eta domeketan nagusiendako eskainiko diren filmen orduetgia ezberdina izango da: zapatuetan 19:30ean ere eskainiko dute eta domeketan, berriz, ez da 22:00etako emanaldirik egongo. Aldatuko den beste ordu bat zinekubarena da: eguenetan izango da aurrerantzean ere, baina 19:30ean, 20:00etan beharrean. Umeendako filmek 17:00etan jarraituko dute izaten, zapatuetan zein domeketan, eta ikuslearen eguna ere bera: astelehenetan, 19:30ean.

## Penintsulako arroilen gaineko emanaldia zapatuan Araotzen

Penintsulako arroilen jaitsieren gaineko emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Araozko ostatuan Karmelo Oñatek eta Ainhoa Arizabaletak. "Kantauri itsasotik hasi, Portugalera sartu, Espainia erdi ingurukoak aipatu eta Mediterraneo aldeko arroilen argazki emanaldia izango da, Frantziako Pirinioetakoak barne. Ordubete inguruko argazki emanaldia izango da", aurreratu du Karmelo Oñate eskoriatzarrak.

Zapatuan 19:30ean hasiko da emanaldia ostatuan, eta Oñate eta Arizabaleta, biak izango dira han, argazkien gaineko azalpenak emateko eta joango direnkin tertulian aritzeko.

## Umeentzako eta nagusientzako antzezlanak Santa Anan

Domekan 'Loti ederrak' ikusteko aukera egongo da eta otsailaren hasieran, 'Passport'; sarrerak salgai daude

### O.E.G. OÑATI

Antzerkia ikustera joateko plana ere egin ahal izango da datorren astetan Oñatin. Asteburu honetan bertan, umeei zuzendutako *Loti ederrak* antzezlan egongo da, eta otsailaren 4an, berriz, Ylana konpainia izango da *Passport* lanarekin. Bietarako sarrerak Udaltzen webgunean sartuta eros daitezke dagoeneko.

Glu Glu konpainiak *Loti ederrak* lana antzeztuko du domekan, Santa Anan. 3 eta 12 urte bitarteko umeei zein euren

senideei zuzendutako lana da ipuin klasikoaren antzerkirako egokitzapena. "Ipuin klasikoa gaur egungo gai gatazkatsuenetako batez jarduteko baliatuko dugu: haurren zein nerabeen sare sozialen menpekotasuna eta esklabotza. Inposatu zaizkigun edertasun-estereotipoak hauste dugu xede", dio lantaldeak.

Otsailaren 4an, berriz, *Passport* antzezlan eskainiko du Ylana konpainiak; egindako bidaietan bizi izandako anekdota dibertigarrien laburpen bat.



# Realaren eta Rayo Vallecanoren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



## GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Rayo Vallecano norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik. Partida urtarrilaren 27an, 14:00etan, izango da.

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 22.



Eserlekuak  
Premium gunean



Catering  
zerbitzua



Aldageletako tunelean  
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko  
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu  
pertsonalizatua



353 metro karratuko  
gunea

**Ezin errazagoa da  
zozketan  
parte hartzea!**



**1.**  
Aplikazioa  
deskargatu.

**2.**  
Zozketak atalean sartu  
eta parte hartu.

**Gertu.**  
Zorte on!

**goiena<sup>™</sup>  
kide**

*Okm: batzen gaituen distantzia*



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)

# Betiko Aloñako Igoera, oihartzun handiagoarekin

**MENDI LASTERKETAK** Salomon markaren Golden Trail National Series zirkuituan sartuko da, eta Iberiar penintsulako lau probetatik bat izango da. "Pozik" daude antolatzaileak: "Jauzi bat izango da, baina badakigu nondik gatozen, zer garen eta zer nahi dugun"

**Jokin Bereziartua Lizarazu OÑATI** Salomon markak antolatzen duen Golden Trail National Series zirkuituaren barruan sartu da Aloñako Igoera aurten. Apirilaren 28an egingo da Oñatiko proba berezia, eta urtarrilaren 27an zabalduko da izen-emate epe orokorra, 10:00etan, [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) webgunean; oñatiarrek hilaren 24tik 26ra eman ahaliko dute izena.

**Izaera mantenduko du probak** Izan ere, antolatzaileek "pozik" hartu dute Salomonen eskaintza, baina ez dute ahaztu nahi Oñatin eta oñatiarrendako sortu zela proba; betiere, inguruko ezin zabalik: "Oihartzun handiagoa ekarriko du, baina badakigu nondik gatozen, zer garen eta zer nahi dugun. Lasterketa bera ez da askorik aldatuko; orain, akaso, Euskal Herriaz haragoko sona izango du Salomonen babes horrekin, baina argi dugu lasterketaren izaera bere horretan mantendu nahi dugula. Betiko moduan jarraituko dugu lasterkaria eta mendia mimoz zaintzen. Orain arte moduan, herriaren alde eta herriko gainerako eragile eta boluntario guztiekin egingo dugu lan".

Hala, azken 18 urteotan Aloñako Igoeraren bueltan izan diren antolakuntzako kideak, boluntarioak, babesleak eta, oro har, kirol probaren ibilbidea betetzen duten ikusleak eskertu gura izan dituzte.

**"Harrotasunez betetzen gaitu"** Martitzen eguerdian egin zen publiko albistea, eta martitzenean bertan antolakuntzako Pablo Arejolalebarekin, Maite Antonekin eta Mikel Urrutiarekin egin zuen hitzordua GOIENAK Oñatiko Foruen plazan. Arejolalebaren arabera, Salomonekin lehiatzen ari den Malen Osa oñatiarrek -iazko Aloñako Igoeran emakumezkoen



Pablo Arejolaleiba, Maite Anton eta Mikel Urrutia, Oñatiko Foruen plazan, asteon. J.B.L.

## APIRILAREN 28AN EGINGO DA PROBA; URTARRILAREN 27AN IREKIKO DA IZENA EMATEKO AUKERA

errekorra ondu zuen Osak- izan du zerikusia erabakian, baina ez da hori bakarrik izan: "Udan Salomonekoak gurekin jarri ziren harremanetan Malen Osaren bitartez, esanez beste lasterketa bat sartu nahi zutela egutegian, eta Aloñako Igoera egoki ikusten zutela. Pozgarria da jakitea eskaintza hau ez dela izan diru bidez lortutakoa, baizik eta Salomonekoek ikusi dutelako urteetan zehar lasterketa hau erakargarri egin dugula, ibilbide zein antolakuntza aldetik. Horrek harrotasunez betetzen gaitu".

**Iberiar penintsula mailakoa** Mendi lasterketek bizi duten loraldiaren adierazle da Salomon markak mundu mailan sortuak dituen zirkuituak: Golden Trail World Series da gorena, eta, besteak beste, zirkuitu horretan

dago Zegama-Aizkorri. Golden Trail National Series zirkuituak, berriz, estatu edo eremu geografikoaren arabera antolatutako zirkuituak dira. Bigarren horretan egongo da Aloñako Igoera: "Batez ere, lasterkari gazteentzat eta munduan zehar lehiatu ezin direnentzat sortu zuten Golden Trail National Serieseko finalerako sailkatzen dira lehen sailkatuak. Horretarako, Golden Trail National Series zirkuituak daude munduan zehar; horien artean, Iberiar penintsulan, Espainiako Estatu eta Portugalgo lau lasterketa batzen dituen. Aurten, lehenengoz, bertan izango da Aloñako Igoera".

Aloñako Igoera da Euskal Herriko mendi lasterketa zaharretakoa: "2005ean egin zen lehenengoz, eta mendi korrikalarien egutegietan indarra hartzen joan da orduetik. Euskal Herriko lasterketa zaharretakoa da, Zegama-Aizkorriarekin batera. Salomonen zirkuituan egotea aitortza moduko bat da probarendako eta urteetan horren bueltan jardun duten boluntario guztiendako".



Ainara Urrutia mendi lasterkaria. EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

## Ainara Urrutia, mendiko euskal selekzioko hautatzaile berria

**MENDI LASTERKETAK** Ilusioz eta modu naturalean hartu du ardura berria; Iris Abarrategi ordezkatu du selekzioan

**J.B.L. ARETXABAETA**

Euskal Mendi Federazioak aditzera eman du Ainara Urrutia (Aretxabaeta, 1981) izango dela euskal selekzioko hautatzaile berria, eta Aideko Lopez de Arbinarekin partekatuko du ardura. Mendi lasterketako euskal selekzioan teknikariek batera bi hautatzaile izaten dira, eta Urrutiak hartuko du Iris Abarrategi ordezkatzeko ardura. "Irisek amatasun baja hartu zuen abenduan, eta niri proposatu didate haren lekua betetzea. Egia esan, proposamena ilusio handiz hartu dut. Ez da sorpresa izan;

azken urteotan euskal selekzioko korrikalari moduan harreman oso estua izan dut lantalde osoarekin, eta modu naturalean hartu dut proposamena".

**Korrikalari moduan eragina**

Ardura berriak asko motibatu arren, Urrutiak badaki korrikalari moduan eragina izango duela: "Skyrunning zirkuituari muzin egitea dakar erabakiak, baina horrek ez du esan nahi ez dudarik lasterketa gehiago egingo; nire kabuz arituko naiz. Uste dut hautatzaile moduan ekarpena egin dezakedala".



EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOA

## Eskiarekin lehen proba, eta urrea

**ESKIA** Malen Osa atleta oñatiarrek beste ezusteko bat eman du; orainoan, eski gainean. Andorran jokatuak Espainiako Kopan lehen postuan helmugaratu zen. Lehen aldiz lehiatu da mendiko eskian: "Hasiara guztiak dira berezi, eta hau itzela izan da. Entrenatzen gozatu eta gorputzak erantzuten duenean, gauzak espero baino hobeto irten daitezke", idatzi du Osak sare sozialetan.



# Hiru puntu baino askoz gehiago daude jokoan

**FUTBOLA** Kategoriako bi talde onenek elkarren aurka jokatuko dute domekan Mojategin (16:30). Mondra da liderra, baina Aloña Mendik oso gertutik jarraitzen du. Derbia erabakigarria ez, baina oso garrantzitsua izan daiteke bi taldeentzat

**Julen Murua Mesonero** DEBAGOIENA Ohorezko Erregional Mailara igotzeko lehian ari dira Mondra eta Aloña Mendi, eta domeka arratsaldean, denboraldi hasieratik egutegian gorritz markatuta duten derbia jokatuko dute bi taldeek Mojategin. Gorengo Mailako bigarren multzoko liderra da Mondra, 38 punturekin; eta Aloña Mendi dute atzetik, 31 punturekin. Zuri-moreek etxean jokatutako zortzi partidetatik zazpi irabazi dituzte, eta bakarria berdindu. Oñatiarren kasuan, Azkoagandik kanpo jokatutako partidetan ez dute lehiarik galdu. Kategoriako bi oilarren arteko neurketa izango da, beraz, Mojategin jokatuko dena.

## Hiru puntu baino gehiago

Derbiek beti izaten dute beste neurketa batzuek baino berezitasun handiagoa, eta asteburu honetakoak, are handiagoa. Zazpi puntuko aldea dago bailarako bi taldeen artean, eta garaipena erdiesten duen taldeak hiru puntu baino gehiago eskuratuko ditu. Garaipena zuri-moreek lortuz gero, hamar puntuko errenta lortuko luke; bestalde, hiru puntuak oñatiarrek eskuratuz gero, liderztatik lau puntura geldituko lirarteke, eta horrek arrasatearren itzalean jarraitzea eragingo luke. Igoera zuzenarekin amesten jarraitzen dute bailarako bi taldeek, eta, derbia erabakigarria ez den arren, oso neurketa garrantzitsua izango da denboraldiaren bilakaerarako.

## Garrantzi handiko partida


"Momentuz denboraldiko partida garrantzitsuena" dela dio Aitor Azkaratek, Mondrako kapitainak, asteburuko derbiaz hitz egitean, eta Auritz Larrea Aloña Mendiko kapitainak ere "garrantzi handiko partida"

dela adierazi du; izan ere, hiru puntuak erabakigarriak izan daitezke Ohorezko Erregional Mailarako igoerari begira. Hala ere, Larreak dio "30 jardunaldiko liga batean neurketa guztiak" direla garrantzitsuak, eta bai Azkaratek eta baita Larreak

## MONDRAK IRABAZITA, 10 PUNTUKO TARTEA LORTUKO LUKE; ALOÑAK IRABAZITA, 4RA TXIKITUKO LUKE ALDEA



Jon Guridi eta Oxel Luengo baloia lortzeko lehian. IMANOL SORIANO



**AITOR AZKARATE**  
MONDRAKO KAPITAINA

"Momentuz, denboraldiko partida garrantzitsuena da asteburukoa; uste dut bi taldeok daukagula hiru puntuak lortzeko presioa".



**AURITZ LARREA**  
ALOÑA MENDIKO KAPITAINA

"Aste barruko giroa berdintsua izaten da, nahiz eta partida berezia izan; hiru puntu garrantzitsu dira, baina denboraldia luzea da".

berak ere espero dute Mojategitik etxera eramatea hiru puntuak.

## Bailarako gainontzeko taldeak

Kategoria berean, Antzuolak Iintxaren bisita jasoko du Ez-talan. Gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailan, UDAk eta Bergarak etxean jokatuko dute, Amaikak Baten eta Elgoibarren aurka, hurrenez hurren, eta Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailan, Debagoiena Bailarak Azpeitiko Lagun Onaken aurka jokatuko du.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

OHOR. ERREGIONALA

#### Bergara-Elgoibar

Zap. 16:30. Agorrosin.

#### UDA-Amaikak Bat

Dom. 16:30. Ibarra.

OHOR. ERREGIO. EMAK.

#### Lagun Onak-D. Bailara.

Dom. 17:30. Garmendipe.

GORENGO MAILA

#### Antzuola-Iintxa

Zap. 16:00. Eztala.

#### Aretxabal.-Danena

Zap. 16:00. Ibarra.

#### Bergara B-Euskalduna

Zap. 18:30. Agorrosin.

#### Mondra-Aloña Mendi

Dom. 16:30. Mojategi.

GAZTEAK, MAILA NAZ.

#### Bergara-Real Sociedad

Zap. 12:00. Agorrosin.

GAZTEAK EUSKAL LIGA

#### Anaitasuna-UDA

Zap. 18:00. San Juan.

OHOREZKO GAZTEAK

#### Aloña Mendi-Elgoibar

Zap. 16:30. Azkoagain.

#### Hernani-Mondra

Zap. 17:30. Zubipe.

GAZTEAK, GORENGOA

#### Lazkao- Aretxabal. B

Zap. 16:00. Arizti Handi.

### Zestoa-Bergara B

Dom. 18:15. Iraeta.

### ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

#### Eskoriatza-Tolosala

Zap. 18:00. M.Muñoz.

#### Donipari-Mondrate

Zap. 18:00. P.Donibane.

GIPUZKOAKO 1. MAILA

#### Coimb. Aloña (Atsed.)

.GIPUZKOAKO 2. MAILA

#### Eskoriatza-Mondrate

Dom. 12:30. M.Muñoz.

### ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

#### Fagor Profes.-Muskiz

Zap. 18:00. Zubikoa

GIZ. GIPUZ. SENIOR.

#### Hondarribia-Mugarri I.

Dom. 09:45. Hondartza.

#### Urnieta-Soraluze BKE

Dom. 12:00. Udal kirol.

EMAK. GIPUZ. SENIOR.

#### Aloña Mendi-Donibane

Zap. 16:00. Zubikoa.

GAZTEAK, GIZONEZK.

#### Aloña Mendi-Pulpo

Zap. 12:00. Zubikoa.

#### Elgoibar-Arrasate I.

Zap. 13:00. Olaizaga.

### SASKIBALOIA

EBA

#### MU-Santurtzi

Dom. 18:00. Iturripe.

EUSKAD. LEHEN EMAK.

#### MU-Villoslada

Dom. 18:30. Ibarra.

EUSKAD. BIG. GIZON.

#### Soraluze BKE- Aloña

Dom. 18:00. Labegarai.

EUSKAD. GAZTEAK

#### MU-Santurtzi

Dom. 12:00. Musakola.

### ERRUGBIA

SENIOR GIZONEZKOAK

#### Kanpanzar ART-Getxo

Zap. 16:30. Mojategi.

### PILOTA (MASTER CUP)

MISTOA GAZTEAK

#### Gomez-Sagardui

Aroa L.-Barainka

Dom. 12:00. Eskoriatza.

MISTOA PROMESAK

#### Gaston-Mena

Ugalde-Ozaeta

Dom. 12:00. Eskoriatza.

#### Arraiza-Arrillaga

Oronoz-Goietnetxe

Dom. 12:00. Eskoriatza.

## Denboraldiko lehenengo derbia jokatuko dute Labegaraietan

**SASKIBALOIA** Aurrenekoz jokatuko dute elkarren aurka Soraluze BKEk eta Biotz Aloña Mendik, domekan (18:00)

**J.M.M.** DEBAGOIENA

Sailkapeneko beheko postuetan daude Soraluze BKE eta Biotz Aloña Mendi, eta domekan elkarren aurka jokatuko dute Labegaraietan, arrisku-postuetatik urruntzen hasteko asmoz.

Azkenengo jardunaldian lortutako emaitzak guztiz ezberdinak izan dira bi taldeentzat; izan ere, mahoneroek 85-67 galdu zuten Azpeitiko Disdira Bitxitegia taldearen aurka eta oñatiarrek, berriz, denboraldiko garaipen onena lortu zuten Amurrioren aurka, 90-42 irabazita. Hala ere, bergarrek orain arte lortu dituzten hiru garaipenetatik bi etxean izan dira, eta, horrez gain, Easok, sailkapeneko liderrak, gorriak ikusi zituen Labegaraietan garaipena lortzeko. Hain zuzen ere, bergarrek, oñatiarrek baino garaipen bat gehiago izateagatik,

aurretik dira sailkapenean, baina txantxikuarren garaipen batek berdinduta utziko lituzke sailkapeneko beheko postuak.

## Bi taldeak "gogotsu"

Urteko lehenengo derbia jokatuko dute Labegaraietan bergarrek eta oñatiarrek, eta bi taldeetako entrenatzaileek aitortu dute "gogo handiarekin" daudela taldeak elkarren aurka jokatzeko. Xabat Irazola Soraluze BKEko entrenatzaileak dio taldea jokatzeko gogo handiz dagoela: "Gabonak ezker ari gara partida honetaz hitz egiten, eta derbia urteko lehenengo partida zela zirudien". Aitor Ugartek ere derbia irabazteak duen garrantzia nabarmendu du: "Derbiak irabazi egin behar dira, berdin da ondo edo gaizki jokatuta; beraz, guztia ematera irtengo gara kantxara".

# "Oso gurea sentitzen dugu; gure izaera du"

**AITOR ARREGI MORIARTI EKOIZTETXEKO KIDEA**

Moriarti ekoiztetxeak Cristobal Balenciaga goi mailako jostun ezagunari buruzko 'Balenciaga' telesaila estreinatuko du gaur, egubakoitza, Disney Plus plataforman

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**

OÑATI

Hiru urteko lan prozesuaren ostean, Moriarti ekoiztetxeako kideak "oso pozik" daude emaitzarekin eta promozio lanetan buru-belarri ari dira egunotan; Aitor Arregi zuzendari oñatiarrarekin izan da GOIENA.

**Ze sentsazio duzu lana estreinatzeaz dagoela?**

Niri gustatu zait egin duguna. Uste dut ez dela ohiko telesail bat. Beste erritmo eta beste egiteko modu bat du. Izango ditu oso gustuko izango duten ikusleak eta baita bat gustatuko ez zaienak ere, baina hasieratik genekien hori. Gu pozik gaude, oso gurea sentitzen dugu, gure ikuspuntua bertan da eta barrua eragiten diguten galderak eta gaiak hor daude. Bestetik, sekulako lantaldea izan dugu inguruan, puntako profesionalak alor guztietan, eta oso babestuta sentitu gara.

**Lan prozesua luzea izan da.**

Bai, horixe! 2021. urtearen hasieran Lourdes Iglesias gidolariak gure atea jo zuen eta Julien Berzosa produktoreari azaldu zion zortzi kapituluako telesail baterako ideia zuela; oinarriko ideia bat zen, oraindik garatu gabekoa. Interesgarria iruditu zitzaigun eta esku artean geni-



Moriarti ekoiztetxeako Josemari Goenaga, Jon Garaño eta Aitor Arregi. DAVID HERRANZ

tuen gure beste proiektuak albo batera utzi eta honetan buru-belarri sartzea erabaki genuen. Dena egiteko zegoen, ez zegoen gidoirik ere, eta 2021. urte osoa proiektu hau lantzen ibili ginen. 2022an produkzioan sartu ginen; hau da, besteak beste, aktoreak eta lokalizazioak lotzen. Sei hilabete jardun genuen lan horietan. eta, ondoren, bost aste grabatzen. 2023 hasieran edizio lanak egin genituen eta promozio lanekin hasi dugu 2024a.

**Alberto San Juan aktorea da Balenciaga; zelan moldatu zarete?**

Albertorekin lan egitea oparibat izan da guretzat. Oso jatorra izateaz gainera, aktore oso ona eta oso profesionala da. Interpretazio lanaz gainera, gauza asko ikasi egin behar izan ditu; esaterako: euskaraz berba egiten ikasi behar izan du eta oso ondo moldatu da Getariako euskaraz berbetan, madrildarra bada ere. Parisen kokatuta dago istorioa; hortaz, frantsesez modu naturalean berba egiten ere ikasi behar izan du, eta baita ondo moldatu ere! Eta hizkuntzez gainera, josten ere ikasi behar

izan du, josten onena zen maila eman beharra zuen-eta, edo horren itxura bai, behintzat.

**Ze aktore gehiago daude?**

Aktore asko daude; nazioarteko talde artistikoa osatu dugu, hala izan zen-eta Cristobal Balenciagaren bizitza. Esaterako, Thomas Coumans Belgikako aktore ezagunak paper garrantzitsua du; Belen Cuesta Belgikako Fabiola erreginaren papean ikusiko dugu, eta Ameriketako Estatu Batuetako aktoreak ere badaude, hango bezero asko izan zituen-eta jostunak. Haiez gainera, euskal aktoreak ere badaude lantaldean; besteak beste, Josean Bengoetxea eta Itziar Aizpuru.

**Getarian jaio eta toki askotan bizi izan zen gero Balenciaga; non errodatu duzue, bada, filma?**

Batez ere, Euskal Herrian egin ditugu grabaketa gehienak: Donostia aldean gehienak, baina Gasteizera, Iruñera eta Bilbora ere joan gara gauza zehatzak grabatzera. Horretan espezializatu gara; hau da, hemen, etxean, grabatzen eta itxura egiten beste toki batean geundela. Horrela egin behar da nahikoa dirurik ez dagoenean nahi duzun guztia egiteko. Baina, aldi berean, kanpoan ere izan gara; Parisen, esaterako, astebete izan ginen, hango kaleak, Balenciagaren etxearen fatxada eta bestelako gehiago grabatzen, eta, nola ez, Getariako irudiak ere jaso genituen. Barruko telesaila da, eszena asko barruan dira: sorkuntza tailerrean, desfileetan... Bada, horiek guztiak hemengo platoan grabatu ditugu.

**Disney ekoiztetxe oso handia da eta zuek, Moriartikoak, ohituta zaudete modu autonomoan lan egiten. Zelakoa izan da eurekin izan duzun harremana?**

Oinarrian ondo moldatu gara, batez ere, beste plataforma batzuetatik entzun ditugunak kontuan hartuta, askotan egilearen ahotsa isilarazi egiten dute eta. Baina guk ez dugu hori sentitu, gura izan dugun gidoia idatzi dugu eta gura izan dugun moduan grabatu dugu; beti eurekin aurrez berba eginda, noski. Egia da edizioan gehiago sartu dutela eskua, eta gu ez gaude ohituta, eta horrek une deseroso batzuk sortu ditu, baina, aldi berean, onartu egin genituen eskatutakoak, eurek arlo horretaz asko dakitelako. Hortaz, argazki orokorra hartuta, ezin gara kexatu, inondik inora; errespetatu egin gaituzte.

**Disney Plus plataforman estreinatuko da gaur.**

Oraingoz, plataforma horretan izango dira 45 minutu inguru irauten duten sei kapituluak; baliteke geroago beste kate batzuetan ere eskaintzea, baina guk hori ezin dugu erabaki.

**Badituzue, baina, beste proiektu batzuk esku artean; esaterako, Marco filma. Ze puntutan dago?**

Abenduan bukatu genuen grabatzen, eta editatzen ari gara orain; aurten estreinatzea da, hasiera batean, asmoa.

**Proiektu gehiago abiatzeko estu samar, ezta?**

Hainbat urtetan garatu ditugun proiektuak pilatu egin zaizkigu; hori horrela, azaroan beste film luze bat grabatzen hasteko asmoa dugu; euskaraz izango da proiektu berri hori.

**"ONDO MOLDATU GARA DISNEYKOEKIN; ERRESPETATU EGIN GAITUZTELA SENTITZEN DUGU"**

## MADDALEN IRIARTE

EH BILDUREN GIPUZKOAKO BOZERAMAILEA

**GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'**

URTARRILAREN 19AN, EGUBAKOITZA, 18:00, 20:00 ETA 22:00

**GOIATZ ARANAK EGINDAKO ELKARRIZKETA**



DESKARGATU  
GOIENA  
APLIKAZIOA

**goiena**  
Zu hemen zaude.





XVII. Huhezinemako lantaldea. HUHEZINEMA

# Bertan da Huhezinemaren hamazazpigarrena

Euskal film laburren jaialdia Aretxabaletan egingo dute hilaren 24an, 25ean eta 26an. Guztira, 81 lan aurkeztu ziren, eta horietatik 31 aukeratu dituzte jendaurrean erakusteko: sail ofizialean hamar, ikasle sailean hamaika eta bideoklip sailean hamar

**Mireia Bikuña Madrid** ARETXABALETA Hutsik egin barik, ate joka dago Huhezinemaren XVII. aldia. Euskal Film laburren jaialdia Aretxabaletako Arkupen egingo da hilaren 24an, 25ean eta 26an. "Dena prest daukagu jaialdi polita eta osoa izan dadin. Lan finalistak ikusteko eta baloratzeko ordua heldu da, bukaera biribila emateko", esan du programazio taldeko kide eta Huheziko ikasle Alex Altunak.

## Aukeraketa "zaila"

Guztira, 81 film labur eta bideoklip aurkeztu zituzten lehiaketara. Horietatik 31 izango dira jendaurrean erakutsiko dituztenak: hamarna lan Sail Ofizialean eta Bideoklip Sailean eta hamaika Ikasle Sailean. "Aurten jasotako lan kopuru handiagatik eta horien kalitate maila altuarengatik, zaila egin zaigu aukeraketa egitea. Euskal Herri osoko txoko guztietatik jasotako lanak izan dira", azpimarratu du Altunak.

Aukeraketa prozesuan bereziki azpimarratu dute Sail Ofizialeko lanen maila. Finalisten artean, gehienbat, fikziozko lanak daude, baina baita ere dokumentalak eta animaziozko lanak. Azken horien artean dago Goya sarietan hautagai izan zen *Txotxongiloa* lana.

## Punta-puntako epaimahaia

Nazioarteko edozein zinema jaialdiren antzera, Huhezinemak ere izango du lan guztiak ikusi eta epaituko dituen epaimahaia. Punta-puntako epaimahaia, gainera. Dokumental zuzendari eta gidolari Maider Oleaga, animaziozko filmen egile Izibene Oñederra eta Ramon Agirre aktorea izango dira

**GUZTIRA, 31 LAN LEHIATUKO DIRA, HIRU SAILETAN: OFIZIALA, IKASLEENA ETA BIDEOKLIPENA**

azken epaia emango dutenak. Huhezinemak berak jorratzen dituen arloetan eskarmentu handia dute hirurek.

Euren esku egongo da sail bakoitzeko lan onena aukeratzea –Sail Ofizialean 800 euro eta Ikasle eta Bideoklip sailetan 300na euro–, eta baita lehen aldiz emango den Aktore Onenaren Saria –150 euro–. Beste hainbat sari ere banatuko dituzte. Guztira, ia 4.000 euro.

## Aurkezleak

Jaialdiak hiru egun iraungo du, eta egun bakoitzean aurkezle ezberdinak izango ditu: hilaren 24an, MUko Ikus-entzunezko Komunikazioko hirugarren mailako ikasle Ane Urresti eta Iker Mateo izango dira aurkezleak; hilaren 25ean, bideoklipak ikusteko egunean, Albina Stradust artista nafarrak hartuko du ekitaldiaren ardura; eta hilaren 26ko final handian, Kepa Errastik girotuko du sari banaketa ekitaldia.

## Goienakideen txokoa

### URTARRILEKO SARIAK

**Liburu-irakurgailua**  
SPC e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

**ARRIKUTZ**  
OATIBO BAK

### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

[www.harremandenda.org](http://www.harremandenda.org)  
Bidezko Merkataritza produktuak

### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) WhatsApp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOTO 15/1000 legeren sistema jokatzen dugu, zuzen pertsonaldi Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki batera sartuko dira. Datu-bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen sariaren gestioa. Eskubidea izango duzu dituzten sariak, haiek zuzentzeko edo ezarazteko, helbide honetan dituzte: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

### Arrasateko Udaleri esker

"Buho" antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amala antzokia | Urtarrilak 28 | 19:30

### PARTE HARTZEKO:

E-postaz: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus) WhatsApp: GOIENAKIDE "buho" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LOTO 15/1000 legeren sistema jokatzen dugu, zuzen pertsonaldi Goiena Komunikazio Zerbitzuaren bitartez automatikoki batera sartuko dira. Datu-bilaketaren helburu bakarra da indarrez dagoen sariaren gestioa. Eskubidea izango duzu dituzten sariak, haiek zuzentzeko edo ezarazteko, helbide honetan dituzte: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)

## Irabazi bi lagunendako otordua

### ARANTZAZU JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: urtarrilak 23.



943 25 05 05



[goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea  
[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65 €  
Deitu: 943 25 05 05 • [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



DESKARGATU GOIENA APLAZIOA

**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia

### IRAGARKI SAILKATUAK

#### 1. ETXEBIZITZAK

##### 101. SALDU

**Etxebizitza salgai Donostian.** Etxebizitza salgai Donostiako Zubiaurre pasealekuan, Grosetik oso hurbil. 299.000 . 65 m2, 4. pisua, parking-a. 3 logela eta 2 balkoi dauzka eta eguzkia egun osoan. Etxea ekipatua dago. Autobus, tren geltokiak eta autopista bertatik bertara. Hondartza eta mendia 5 minutura. 617 24 97 99

##### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasaten pisu bila.** Arrasaten pisu bila dabilen hiru kideko familia gara. Bi edo hiru logeladun etxea errentan hartuko genuke. Lan kontratua daukagu. 680 87 38 66 edo 603 45 04 13

**Pisu bila Arrasate edo Bergaran.** Arrasate edo Bergaran 2 logeladun pisua errentan hartuko nuke. Lanpostu finkoa dut. 645 72 92 87

**Pisu bila Debagoienean.** Errentan hartuko nuke pisu bat Debagoienean. 672 96 37 99

#### 2. GARAJEAK

##### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Arrasateko Udalpe kalean. Deitu 676 32 23 88 telefonora.

#### 3. LOKALAK

##### 301. SALDU

**Trastelekua salgai Bergaran.** Trastelekua salgai Bergarako Zubiaurre 3an, behe solairuan. Tamaina: 3,5 x 1 x 3,5 metro. Deitu 605 72 38 97 zenbakira.

#### 4. LANA

##### 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Oñati.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Soziosanitariario ikasketak ditut eta astelohenetik ostiralera bitartean lanaldi osoa lan egingo nuke. Deitu 603 51 80 00 edo 631 70 57 63 telefonoz zenbakietara.

### IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- **ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENAKIDEKO BAZKIDEENDAKO.**

**Arrasate.** Ekipo arinen mekaniko bezala lan egingo nuke. Esperientzia duen gizon zintzo eta langilea naiz. Telefonoa: 632 41 21 47

**Arrasate.** Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 695 73 87 95

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Soziosanitariario ikasketak ditut. Orduka lan egingo nuke. 696 84 19 51

**Bergara.** Emakumezkoa prest nausiak zaindu, garbiketa lanak, etab egiteko. Astelehenetik ostiralera zein asteburuetan lan egingo nuke. Telefonoa: 666 07 42 98

**Debagoiena.** Atari, lokal, taberna, enpresa eta baserriren garbiketarako egongo nituzke, baita banatzaile lanak ere. Kotxea dut. Telefonoa: 645 72 92 87

**Debagoiena.** Esperientzia duen emakumea orduka eta gauetan lan egiteko prest. Soziosanitariario ikasketak ditut, baita legezko agiriak egunerako ere. Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketeta lanak egingo nituzke. 691 28 53 25

**Debagoiena.** Gizonezkoa astelehenetik ostiralera eta asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zaindu, edo eta garbiketeta lanak egingo nituzke. Telefonoa: 614 14 83 47

**Debagoiena.** Gizonezkoa prest nagusiak zaindu, garbiketeta lanak egin. . Astelehenetik ostiralera eta asteburuetan lan egingo nuke. 603 12 18 44

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna zaintza edo garbiketeta lanetarako prest, orduka edo bertan bizitzen. Titulu soziosanitariarioa eta legezko agiriak ditut. 677 146 429

**Debagoiena.** Orduka lan egingo nuke, astean zehar zein asteburuetan, baita gauze ere. Malgutasun osoa. Esperientzia dut erizain laguntzaile lane-

tan. Soziosanitariario eta erizain laguntzaile tituluak ditut. 672 96 37 99

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo arropa-garbiketietan lan egiteko prest dagoen emakumea. Malgutasun osoa dut. 644 47 06 49 edo 688 71 08 09

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketeta lanak egingo nituzke. Soziosanitariario ikasketak ditut. Malgutasun osoa orduategi aldetik, bai astean zehar baita asteburuetan ere. Deitu 602 64 68 17 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu eta garbiketeta lanak egingo nituzke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest nago. Magutasun osoa. 613 11 92 98

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. 642 49 94 09

#### 5. IRAKASKUNTZA

##### 501. JASO

**Eskola partikularrak Arrasaten.** DBH 2-ko ikasle batak ingelesezko eta matematikako eskola partikularrak behar ditu Arrasaten. 669 11 28 94

**Klase partikularrak jaso Arrasaten.** 4.DBHKo Arrasateko mutil bati klase partikularrak emateko pertsona bat behar dugu, ahalik eta azkarren. 605 75 46 99

#### 7. ANIMALIAK

##### 703. EMAN

**Katua etxe berri baten bila.** Etxean katua eta txakurra batera edukitzeak sortzen dizkidan

buruhausteak direla eta, katuari beste etxe bat aurkitzeko beharrea nago. Duela lau urte, jaiotze berri eta egoera baxarrean zeuden hiru katakume

hasi eta aurrera aterarrituena ebean. Horietako bieri, familia berri bat aurkitu nien, baina hirugarren hau nirekin dago orduak. 653 71 53 57

#### 8. DENETARIK

##### 801. SALDU

**Egurra salgai.** Sutarako egurra salgai. Deitu: 688 69 73 14



**Bergara: Masterreka, 75m² erabilgarri, 3 logela eta egungo dekorazioarekin. 135.000€**

**Bergara: Zubiaurre, 61m² erabilgarri, 2 logela, balkoia eta argi natural askorekin. 120.000€**

**Burdiñate: Kalegoi, 65m² erabilgarri, 2 logela, igogailua, trastelekua, bizitzera sartzeko. 175.000€**

Ibargarai 3 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 97  
www.inmokokorosti.com

Informazio gehiago: 

## LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK

### HIZKUNTZA ERREFORTZUAK PROIEKTURAKO HEZITZAILEAK BEHAR DITU

**Eskaintzen da:**

- Hizkuntza errefortzuetako proiektuan hezitzaile lan egitea
- Astean 10 orduko jarduna (arratsalde), astelehenetik ostegunera
- Otsailetik apirilera

**Eskatzen da:**

- Euskalduna izatea
- Bigarren mailako Lanbide Heziketa, gradua edo diplomatura-izentziatura tituluia izatea

**Baloratuko da:**

- Aretxabaletarra izatea eta bertako euskalkia menperatzea
- Hezikuntzarekin loturiko ikasketak
- Haurrekin aisialdian esperientzia izatea

 **Loramendi**

Interesatuok bidali curriculumak **urtarrilaren 21a** baino lehen euskara@loramendiarteak.eus helbidera edo gure bulegora gerturatu (Durana 11, Aretxabaleta)

### ZORION AGURRAK




**ARRASATE Xabat Guzman Arregi** Urtarrilaren 25an, 2 urte. Zorionak, artista! 2 urteko etxeko guztiak zorutzen! Muxu pottoloak eta besarkada handi bat etxekoan partetik, bereziki Oinatzen partetik!



**ARRASATE Hegoa Bergaretxe Arkauz** Urtarrilaren 18an, 5 urte. Zorionak, maitxia! Oso ondo pasau zure urtebetetze egunean! Zeruraino ta buelta maite zaitxugu. Patxo potolo bat etxeko danon partetik.



**ARETXABALETA Gari Gastañaga Vicente** Urtarrilaren 16an, 11 urte. Zorionak, Gari! Patxo potolo bat etxeko danon partetik! Askor maite zaitugu!



**ARETXABALETA Maria Angeles Gutiérrez Gutiérrez** Urtarrilaren 13an, 72 urte. Zorionak, amona! Disfrutatu bizitzez! Eta Tenerifetik bueltan, bazkari goxo batekin ospatuko dugu. Maite zaitugu. Izaro eta Aitzol



**DEBAGOIENA Larraitz Agirre Iribar** Urtarrilaren 22an, 40 urte. Zorionak, tia Larra! Askor maitte dotzugu, patxo haundi-haundi bat. Julene, Lier, Maddi, Aner, Oier eta Asierren partetik.



**ARETXABALETA Axel Anduaga Cortes** Urtarrilaren 19an, 10 urte. Zorionak, prexioko! Ze haundi ein zaren ta ze azkar pasau dien urte honeik. Ondo ondo pasau eguna, maiti! Patxo haundi bat bereziki Lian partetik.



**ARRASATE Idoia Larrañaga Aperribai** Urtarrilaren 18an, 5 urte. Zorionak, Idoia! Ondo ondo pasau zure eguna! Muxu pila bat familia guztian partetik!



**OÑATI Haizea eta Aner Lizarralde Garcia** Urtarrilaren 16an, 10 urte. Zorionak, maitiaki! Ondo pasau zuren urtebetetze eguna. Muxu haundi bana familia danon partetik!



**OÑATI Arizta Martinez de Arenaza Lopez** Urtarrilaren 14an, 1 urte. Zorionak txikitxu! Osansuntsu eta bizipozez hazten jarraitu lazтана! Muxu pila bat etxekuan partez!



**OÑATI Oier Galdos Navarro** Urtarrilaren 15an, 7 urte. Zorionak, rubiales! ondo ondo pasau zure urtebetetzian!



**BERGARA Oier Mendizabal Larrañaga** Urtarrilaren 11n, 12 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure eguna eta segi zaren bezelakoa izaten. Askor maite zaitugu!

**URTEURRENA**

## Francisco Mendivil Maiztegui

'Ipiñari'

2023ko urtarrilaren 1ean hil zen, 96 urte zituela.



---

Urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 21ean, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

---

Elizkizunetara joango zaretenoi alde aurretik mila esker.  
Bergaran, 2024ko urtarrilaren 19an.

**OROIGARRIA**

## Asun Altuna Urdingio

Imanol Beloki lankidearen amama

2024ko urtarrilaren 15ean hil zen, 93 urte zituela.



---

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

---

Goiena Komunikazio Taldea.  
Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 19an.

**ESKELA**

## Beñat Lete Txintxurreta

2024ko urtarrilaren 17an hil zen, 44 urte zituela.



---

*Zu beldur zinen maitasuna zeuk asmatutako poema bat besterik ez ote zen izango, baina zaude ziur zu benetan maitatua izan zarela*

---

Gurasoak: Alberto (†), Marines eta Jabier Zaloña; anai-arrebak: Markel eta Saioa, Miren eta Jon; ilobak: Enara, Ihintza; osaba-izeba, lehengusu eta gainerako ahaideak.

Haren oroimenezko azken agurra larunbatean izango da, urtarrilaren 20an, 12:00etan, Goroetako Auzoetxe aurrean.

---

Familiak Aretxabaletako Tanatorioan hartuko zaituzte, gaur, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

**ESKER ONA**



## Maria Lizarralde Mujika

2024ko urtarrilaren 11n hil zen, 96 urte zituela.



---

*Bizitzak bere ibilbidean badu ur gardenean neguko hotzaren albistea eta amak agur esan du isilpean zaratak ez duelako egirik*

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


---

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 19an.

**ESKER ONA**

## Asun Altuna Urdingio

2024ko urtarrilaren 15ean hil zen, 93 urte zituela.



---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Arrasaten, 2024ko urtarrilaren 19an.

**ESKER ONA**

## Patxi Elgarresta Gallastegui

2024ko urtarrilaren 14an hil zen, 89 urte zituela.



---

Anai-arrebak: Nati (†), Purita eta Ignacio Biain (†), Ana Maria eta Juan Echaniz (†), Antonio (†), Maria Luisa (†) eta Luis Uzkudun, Jose Luis; ilobak: Juan Ignacio eta Lucia, Irene eta Samuel; iloba txikiak: Juan Alvaro, Samuel, Julia; eta beste senide guztiak.


---

Eskerrik asko hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi babesa eta gertutasuna adierazten.

---

Familiaren izenean, bihotzez besarkada handi bat.  
Bergaran, 2024ko urtarrilaren 19an.

**ESKER ONA**



## Pilar Mugica Arregui

2024ko urtarrilaren 13an hil zen, 95 urte zituela.




---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---


Bergaran, 2024ko urtarrilaren 19an.

**ESKER ONA**



## Juan Marcos Mugica Mugica

2024ko urtarrilaren 14an hil zen, Gasteizen, 81 urte zituela.



---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

---

Bergaran, 2024ko urtarrilaren 19an.

**BABESLEA**

# Oroilore

*Hileta zerbitzuak*

---

Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu

---

*Gure artean agurtutako guztiei esan bidea osatzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiak izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beronenak gurean izan dituzten konfiantzarako eta maitasunagatik.*

**Mario, Iban, Maribi eta Cristian**

---


**617 44 21 55**  
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OSATI



## BERRI-ZAKUA



**Goienan**  
Arrasateko Udal Euskaltegiko 12 eta 17 urte arteko 40 bat ikasle Goiena ezagutzen egon ziren. Irratia, telebistako platoa eta erredakzioa gertutik ikusi zituzten.



**Gipuzkoako txapelketara**  
Bergarako Artatse elkartearen jokaturako mus txapelketan 26 bikote lehiatu ziren. Argazkiko Xabi eta Unai izan ziren irabazleak. Orain, Gipuzkoako txapelketa jokatu dute.

## ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**ITHAKA TALDEAREN ZUZENEKOA**

Orioko eta Zarauzko kideak dituen taldeak Kooltur Ostegunetan egindako kontzertua osorik ikusteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza 19:30, 21:30 eta 23:30

**MADDALEN IRIARTERI ELKARRIZKETA**

EH Bilduren Gipuzkoako bozeramailea elkarrizketatuko du Goiatz Arana kazetariak.

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00

**ASTEBURUKO KIROLARI ERREPASOA**

Besteak beste, futboleko Erregional Preferenteko eta saskibaloiko Euskadiko Txapelketako derbien laburpenak egingo dituzte.

'Harmailatik' Astelehena, 19:30, 21:30 eta 23:30.

**JON ARTANORI ELKARRIZKETA**

Juana liburuaren gainekoak galdetuko dizkio, besteak beste, Larraitz Zeberio kazetariak.

'Hemen Debagoiena' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK': BRASIL**

Brasilen bizi den Itziar Aranburu oñatiarra elkarrizketatuko du Eneko Azurmendik. Askotariko gaiak landuko dituzte.

'Debagoiendarrak mundutik' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 19****OÑATI Odol ematea**

Urteko lehena. Aurrez eman behar da izena, 943-00 78 84 zenbakian. Enpresagintzan, 16:30ean.

**OÑATI Esker on luntxa**

Eskolako familiek eta herritarrek erakutsitako babes eta gertutasuna eskertzeko. Elkar Hezin, 16:30ean.

**ELGETA Ipuinen ordu berezia**

Hamargarren urteurrena ospatzeko. 17:30ean, Haur Hezkuntzako 2. mailatik LHko 1. mailara artekoak; eta 18:30ean, LHko gainerako mailetakook. Liburutegian, 17:30ean.

**ARRASATE 'The Messy Playroom' antzezlan ingelesez** 1 eta 3 urte arteko haurrendako. Kulturatan, 18:00etan.

**OÑATI 'Giza eskubideen defentsan' hitzaldia**

Askatasunaren eta Giza Eskubideen Aldeko Plataformak deituta. Kultura etxean, 19:00etan.

**ELGETA Koko-dantzak: entsegua** Otsailaren 3an egingo den koko-batzerako dantzen errepasoa. Gimnasioan, 19:30ean.

**ARETXABALETA Demode Quartet taldea**

A kupela emanaldia eskainiko du, kantu ezagunen euskarazko bertsioekin. Sarrerak, bost euro. Arkupen, 20:00etan.

**ARRASATE 'Antologia de la zarzuela' ikuskizuna**

Izaskun Murgia elkarte lirikoaren eskutik. Sarrerak, hogeituro. Amaia antzokian, 20:00etan.

**BERGARA Sarrabete folk taldea**

Txori arraina diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, zortzi euro. Seminarixuan, 20:00etan.

**ANTZUOLA Santa Barbara eta Korda Rota taldeak**

Rock doinuekin girotuko dute gaztetxea. Sarrerak, bost euro. Gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Golden Blend eta Dukkha taldeak**

Egubakoitzak Berreskuratzen egitasmoaren baitan. Sarrerak, bost euro. Kartzela zaharrean, 22:30ean.

**ZAPATUA 20****ELGETA Frontenis Eguna helduendako**

Goizez eta arratsaldean hainbat partidu; eta ostean, afaria. Udal pilotalekuan, 09:00etan.

**ARRASATE Zuhaitz azoka**

Zaldibarko, Arrasateko, Gasteizko, Zarauzko eta Gatikako sei mintegik parte hartuko dute, baserritarren azokarekin bat eginez. Seber Altuben, 09:00etan.

**ANTZUOLA Urkiolara egun-pasa** Hamalau kilometroko ibilbidea egingo dute Arrolakoek. Herriko Plazatik, 09:00etan.

**ARRASATE Zuhaitz landatzea**

Etkezaretako herri lurretan landatuko dituzte 1.621 zuhaitz. Musakolako San Isidroren abiatuko dira. Musakolan, 10:00etan.

**ARETXABALETA Mozorroen bigarren eskuko azoka**

Karnabalen Lagunak taldearen eskutik. Mozorroak saltzeko eta erosteko aukera. Herriko Plazan, 12:00etan.

**ANTZUOLA EHko mus txapelketako kanporaketa**

Lehenengo kanporaketa. Okaldi tabernan, 16:30ean.

**ARETXABALETA 'Kortxoaren dilema' ikuskizuna**

Endredozko thriller politikoa idatzi du Patxo Telleriak. Telleria bera egongo da oholtzan, Mikel Martinezekin. Sarrerak, bost euro. Zaria aretoan, 19:00etan.

**OÑATI Osaba Kimu eta Astelehen Goizak taldeak**

Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrerak: zortzi euro arrunta eta hiru murriztua. Gaztetxean, 19:00etan.

**ARRASATE 'Antologia de la zarzuela' ikuskizuna**

Izaskun Murgia elkarte lirikoaren eskutik. Sarrerak, hogeituro. Amaia antzokian, 19:30ean.

**DOMEKA 21****ESKORIATZA Emakume Master Cup txapelketa**

Binakako partiduak jokatu dira. Frontoian, 12:00etan.

**BERGARA Bergarako Musika Bandaren kontzertua**

Debalde. Pilotalekuan, 12:30ean.

**BERGARA Potx magoa**

San Bizente ermitan. Debalde. Angiozarren, 13:00etan.

**ANTZUOLA EHko mus txapelketako kanporaketa**

Bigarren kanporaketa. Mox tabernan, 16:30ean.

**ARETXABALETA Ekain pailazoa**

Slapstik ikuskizuna egingo du, jolasak eta zirkuko trukuak erabilia. Sarrerak, hiru euro. Arkupen, 17:00etan.

**ELGETA Amantalak taldearen batzarra**

Aurrera begirakoak aztertuko. Kultura etxean, 17:00etan.

**OÑATI 'Loti ederrak' antzezlan**

Glu Glu taldearen eskutik, 3 eta 12 urte arteko umeendako eta familian ikusteko moduko antzezlan. Sarrerak, lau euro. Santa Ana antzokian, 17:00etan.

**ARRASATE Familian Jolasean**

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako. Okendoko ludotekan, 17:30ean.

**ARRASATE Punteria jolasak**

Gaztetxoendako. Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

**ANTZUOLA 'Eukalyptus' antzezlan**

Jon Ander Urresti aktorearen eskutik. Sarrerak, bost euro. Torresoroan, 18:30ean.



DEMODE QUARTET

### ESKORIATZA 'Mi hermana y no yo' antzezlana

Alabike Teatro konpainiaren eskutik, gazteleraz. Sarrerak, bost euro.

Zaldibar antzokian, 19:00etan.

### ARRASATE 'Antologia de la zarzuela' ikuskizuna

Izaskun Murgia elkarte lirikoaren eskutik. Sarrerak, hoge euro.

Amara antzokian, 19:30ean.

## ASTELEHENA 22

### ARRASATE 'Emakume Abertzaleak XX. mende hasieran' hitzaldia

Begoña Bilbao Bilbao eta Karmele Perez Urzaa pedagogoen eta Gurutze Ezkurdia Arteaga historialariak egingo dute berba, Goienagusik gonbidatuta.

Kulturaten, 10:00etan.

### DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Antzuolan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin, pentsio duinak eskatzeko.

Herri horietan, 12:00etan.

### ANTZUOLA Korrika batzordearen batzarra

Bigarrena. Irekia.

Olaran etxean, 18:00etan.

## MARTITZENA 23

### ANTZUOLA 'Juana' liburuaren aurkezpena

Jon Artano kazetaria egongo da ekitaldian.

Olaran etxean, 18:00etan.

### BERGARA 'Loarre' film laburraren aurkezpena

Sorkuntza bekaren Joseba Zeziagaren proiektua.

Seminarixoan, 18:00etan.

### ELGETA Mendiko bazkidetza eta federatu txartela

Urtarileko martitzenetan.

Kultura etxean, 19:00etan.

### ELGETA Hitez Pitz taldea

Euskarazko liburu baten gaineko saioa.

Liburutegian, 19:00etan.

### ARETXABALETA Demode Quartet taldea

A kupela emanaldia egingo du laukoteak. Kantu ezagunen errepaso egingo dute, euskarazko bertsiopropioekin eta, ohi legez, umoreak eta musikak bat eginda. Sarrerak, bost euro.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 20:00etan.

## EGUAZTENA 24

### BERGARA 'La toxicidad de las plantas' hitzaldia

Jose Antonio Aperribai bergararrak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.

Seminarixoan, 10:00etan.

### ARETXABALETA Ipuin kontaketa

Vanessa Gonzalez arrasatearrarekin, 5-8 urte artekoendako. Izena emateko azken eguna hilaren 22a izango da.

Liburutegian, 18:00etan.

### BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera.

Oxirondon, 18:00etan.

### ESKORIATZA Ipuin kontaketa

Lur Kortaren eskutik, 4 urtetik gorakoendako.

Bibliotekan, 18:00etan.

### BERGARA 'Entre las higueras' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsiotan eta azpitiitulekin. Sarrerak, hiru euro.

Seminarixoan, 20:00etan.

## EGUENA 25

### OÑATI Mendi ibilaldia Arantzazu auzo inguruan

Goienagusiko kideek egingo dute. Bukaeran, mokadua auzo-etxean.

Kortakogainen, 09:30ean.

### ARRASATE Sasoibide

Bixi-bixi tailerra egingo dute. Ferixalekuan, 10:00etan.

### ARRASATE Literatura solasaldia

Sylvia Plath idazlearen *Beirazko kanpaia* liburuaren gaineko saioa, Alex Gurrutxagak gidatuta.

Kulturaten, 18:00etan.

### ESKORIATZA Literatura solasaldia

Bilbao-New York-Bilbao liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.

Kultura etxean, 18:00etan.

### ARAMAIO Santa Agedako entsegua

Otsailaren 3ko batzerako kantuen entsegua.

Musika etxean, 19:00etan.

### ARAMAIO 'Udalatx, ura eta atxa' dokumentala

Udalatxi buruzko dokumentala ikusteko aukera egongo da.

Debalde.

Kultura etxean, 19:00etan.

### OÑATI 'A fuego lento' filma

Tran Anh Hung zuzendariaren lana, jatorrizko bertsiotan eta azpitiitulekin. Sarrerak, bost euro.

Zinema-aretoan, 20:00etan.

### ARRASATE Kooltur Ostegunak: Harat

Ibai Gogortza musikariak 2022an sortu zuen rock musika taldea, Beran. Sarrerak, zazpi euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

## ZINEMA

### BERGARA

#### SEMINARIXOA

**El maestro que prometio el mar**  
Domeka eta astelehena: 19:30.

**Migrazioa, bidaia ahaztezina**  
Domeka: 17:00.

#### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Yo, capitán**  
Egubakoitza: 22:00 (jatorrizko bertsiotan)

Zapatua: 22:00.  
Domeka: 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:30.

**Migrazioa, bidaia ahaztezina**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

#### GASTEIZ

#### FLORIDA

**Trolls 3**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

### Anatomía de una caída

Egubakoitza: 18.30, 21.30.  
Zapatua: 18:30, 21:45.  
Domeka: 18:30.  
Astelehenetik eguenera: 19:00.

### El rapto

Egubakoitzetik domekara: 22:00.  
Astelehenetik eguenera: 19:15.

**Robot dreams**  
Zapatua eta domeka: 12:00.

### Wonka

Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00.

### El correo

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:15, 21:30.

Astelehena, martitena eta eguaztena: 17:00, 19:30.  
Eguena: 17:00.

**Fallen Leaves**  
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:15, 21:30.

Astelehena, martitena eta eguaztena: 17:00, 19:30.  
Eguena: 17:00.

### La zona de interés

Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:15, 21:30.  
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:30.  
Martitena: 17:00.  
Eguena: 16:45, 19:30.

### Los que quedan

Egubakoitzetik domekara: 19:00, 21:45.  
Astelehenetik eguenera: 16:45.

### Perfect days

Egubakoitza: 16:30, 19:00.  
Zapatua eta astelehenetik eguenera: 16:45, 19:15.  
Domeka: 16:45, 21:55.

### Migrazioa, bidaia ahaztezina

Zapatua eta domeka: 12:00.

### Slow

Egubakoitza: 17:00, 19:15.  
Zapatua eta domeka: 16:45, 19:00.  
Astelehenetik eguenera: 19:30.

### Valle de sombras

Egubakoitza: 16:30, 21:30.  
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 21:30.

### Wish: el poder de los deseos

Zapatua eta domeka: 12:00.

## KRITIKA

### Los que se quedan

★★★★★

**Zuz.:** Alexander Payne. **Aktoreak:** Paul Giamatti, Dominic Sessa, Da'Vine Joy Randolph. **Iraupena:** 133 minutu.

## Giza harremanen berotasuna

### ANTONIO ZABALA

Alexander Payne zuzendariak *Los que se quedan* filmarekin joan den mendeko 70eko hamarkadan murgiltzen gaitu. Ez bakarrik kontatzen duen istorioa 1970-1971ko Gabonetan gertatzen delako; batez ere, istorioa garatzeko modua eta estiloa garai hartako zinemakoa delako. Universalen logoa, filmaren titulua, erabilitako koloreak eta argazkiari emandako testura eta irudien planifikazioa garai hartakoak dira. Normala da filmean garai hartako autoak, jantziak eta orrazkerak zaintzea, baina filmari originaltasuna ematen diona garai hartako zinemara egiten duen hurbilpena da. Istorioa mutilen eskola baten gertatzen da. Ikasleak etxera doaz Gabonetako

oporrak pasatzera. Eskolan ikasle bat, irakasle bat eta eskolako sukaldaria bakarrik geratzen dira.

Ikusi izan ditugu irakasleen eta ikasleen arteko harremanak garatzen dituzten filmak, eta antzeman dezakegu zer gertatuko den, baina Paynek esku ona du garai hartako eta Gabonetako giroa islatzeko eta pertsonaia bakoitzari bere lekua eta denbora emateko. Zuzendariak ez du presarik istorioa garatzeko. Denbora hartzen du giza harremanen berotasuna jariatortasunez azaltzeko. Itxuran desberdinak diren pertsonaiek hasieran ematen dutena baino askoz gehiago dute komunean. Ederki heltzen gara ezagutzera bakoitzaren izaera eta euren artean sortzen diren lokarriak.



AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

## Trailerrak

Urtean hiruzpalau aldiz gertatzen da. San Martzialerako erdibidean gora igo ezinik geratzen den trailerraz ari naiz. Ez du abisurik jasotzen, ez dago seinalerik, ez daki nora doan, baina gora igotzen saiatzen da, astelehen urdin bat bada ere.

Eta batzuetan ez da nahikoa garabia, ez da aski izango kanpotik jasotako laguntza. Maniobra imajinaezinak egin eta kamioilariak ibilgailu astuna mugitu beharko du pixkanaka, ez aurrera ez atzera egin ezin den puntu horretatik ateratzeko.

Ez ote dugun guk ere gauza bera egiten. Finkatuta ditugun helmugetara iristeko baldintzak ongi ezagutu gabe egiten dugu aurrera, ezustekoen kontingentziak kontuan hartu gabe. Hankak lokatzetaraino sartu eta salbatuko gaituen holograma jainkotiar baten zain geratzen gara. Ez ote den kamioi trabatu hori gure bizitzako pelikularen trailerra izango.

Itoizek kantatzen duen *astelehen urdin batean* idatzi dudalako izango da, *Blue Monday* kontzeptu sasizientifikoa igaro delako bestela, eta, agian, ni ere erori naiz gizartea egun batez deprimitzeko kapitalismoaren estrategian. Barkatu intentsitatea eta gogor egin urtarreleko aldapari.

BUKATZEKO



Manex Agirre eta Eneko Barberena, Arrasate Irratiko estudioan; eta *Fukuyama* saioaren logoa. LUKEN UGARTEBURU

# 'Fukuyama' podcasta, historiaren epilogoia

Erronka pertsonal moduan hartuta, atzo, eguena, estreinatu zuen Eneko Barberenak 90eko hamarkadan arreata jarrita sortu duen 'Fukuyama' irratsaioa; hilean behingo maiztasuna izango du eta Arrasate Irratian eta 'Goiena.eus' atarian entzungo da

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**  
ARRASATE

Gero eta ohikoagoak dira podcastak, izan audio edo bideo formatukoak, eta Arrasate Irratia eta Goiena ari dira urratsak egiten; urrian hasita, abian dira Josemari Velez de Mendizabalek egiten duen *Hala dio argazkiak* eta *Guraso.eus* atariarekin elkarlanean egindako *Gurasota-*

*sunaz hausnartzen* izenekoa, asterokoak. Bada, atzo, eguena, estreinatu zuten Eneko Barberenak sortutako *Fukuyama*.

**90eko hamarkadari "aitortza"**  
Aspalditik zuen Barberenak "80ko hamarkadari nostalgia dion Arrasateri buruz" asmo eta nahi bat, 90eko hamarkadan arreata jarrita. "Hamarkada

ahaztua besteko aberatsa izan zen, nire ustez, eta, azkenean, urratsa egin dut, hainbat zertzelada batuta, 45 minutu iraungo duten hamar irratsaio egiteko. Txiste txiki bat da izena. Francis Fukuyama soziologoak historiaren bukaera iragarri zuen 1989an Berlingo Harresia erortzean; beraz, historiaren epilogoan bizi gara...

Helburua zerbait arina egitea da, baina datu batzuk emanda", dio Barberenak.

Kapitulu guztiek egitura bera izango dutela azaldu du: "Saio bakoitzean gai bat landuko dut eta beti izango dut alboan gaian aditua edo aritua den gonbidatu bat, eta, horrez gainera, kolaboratzaile bat ere bai, audio laburren bidez gaiari buruzko beste ikuspuntu bat ekarriko duena. Gaiak dagokienez, denetarikoak izango dira: disko edo liburu ezagun batzuk egongo dira; marka ezagun bateko zapatilak; kirolariak, diskotekak.. Hau da, nolabait, elkarren artean egongo den harremana izango da; 90ko elementuak direla. Beti ahaleginduko gara nahiz eta atzerriko gaiak izan zubi bat jartzen gure errealitate hurbilarekin. Jolasetik edukiko du hori guztia lantzeak".

**Aitor eta Jon Sarasuaren diskoa**  
Aretxabaletako anaia bertsolariak 1995ean Elkar argitaletxearekin argitaratu zuten *Fauna txiki bat bertso berritan* diskoa buruz egin du estreinakoa. "Garai hartako belaunaldi baten eragina izan zuen lanak, eta oraindik badu oihartzuna. Aspaldiko lagun eta ibilbide luze bertsolari Manex Agirreren laguntzarekin, kantuz kantuko azterketa egin dugu solasaldi formatuan, eta, tartean, Ane Zuazubiskar Arrasateko bertsolariak eta aipatutako diskoa baino gazteagoa denak bere ikuspegia oparitu digu".

 *Fukuyama* lehen atala entzuteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Goienakideentzako zozketa

**Eskuratu Lakarko Lezaun upategian bi lagunendako bisita gidatua eta bazkaria!**

PARTE HARTZEKO:

 **688 69 00 07** GOIENAKIDE "upategia" [bazkidearen zenbakia]

 **goienakide@goiena.eus**  'goiena app'-a / zozketa atalean

Irailaren 2024ko LOPD 15/1000 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzua saren Erabaztegi automatizatuetan sartuko direla. Datu-bilketa honen helburua jakinarazi da irailaren 2024ko azararen 20an zuzeneko gestioan. Eskubidea izango duzu datuak sartzeke, buketu zuzentzeko edo ezarritako, helbide honetan idatzi: [goienakide@goiena.eus](mailto:goienakide@goiena.eus)



**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia

